

Egoera eta etorkizuna

Euskararen egoera larri: Hil ala bizikoa! Egon al dago euskara? Atzera ote doa? Nola begiraten du aurrera?

Erdara indartsuen aurrean borroka latza du euskarak, Herri honen gaurko kultur hizkuntza moderno normal bihurtzeko.

Euskararen normalkuntzarako politika egokia bideratzeko, beharrezkoa da aurretik horren egoera eta dinamika ezagutzea. Kultur sailen eta gizarte-sektoreen arabera azaltzen ditu bigarren parte honek *oraingo egoera* eta *etorkizunerako dinamika*: Alfabetatze-Euskalduntzean, Irakaskuntzan, Komunikabide sozial bakoitzean, Administrazio publikoan, Gizarte-zerbitzuetan, Lanaren munduan.

Egoeraren kritika da etorkizuna egoki bideratzeko abiapuntua.

1968an hartu zuen zinez, hain zuzen, bere eskuetan Euskaltzaindiak euskara idatziaren batasuna bideratzeko eginkizuna. Izatez, Euskaltzaindiak bakarrik izan zezakeen horretarako arauak emateko eskua, erakunde publiko bakarra zenez. Arantzazuko kongresuan onartu zen euskara batuaren oinarritzko projektua. Bertan banatu ziren, baita, batasunaren bidean aztertu eta landu beharreko alorrak: ortografia, morfologia (deklinabidea eta aditz-jokoa), sintaxia, hitzen mailegutza, etab. Ondorioz, hainbat ba-

tzorde sortu ziren alor horiek aztertzeke. Eta urte haietan erritmo aski biziari eutsi zitzaion.

Baina batez ere Eusko Ikaskuntzaren I. Kongresuak (1918ko-ak) agertu zuen aspalditiko asmoa, euskararen modernotu beharra esplizitatuz eta horren batasunaren arazoarekin lotuz. Luis de Eleizalde azaldu zuen problema argi eta garbi bi hitzalditan.

Bereziki aipatu behar dira UEU eta Elhuyar, Jakinen eta UZEIren hiztegi-gintzarekin oso lotuta daudelako. Gero azalduko dira hobeto horien orain arteko lana eta etorkizunerako egin-kizuna.

Euskararen normalkuntzaren eta modernotzearen helburua hauxe da: Euskal Herriaren hizkuntza nazionala gaurkotzea. Arazo nazionala eta publikoa da, beraz, euskararen modernotzea.

1. EUSKARAREN ESTANDARDIZAZIOA ETA MODERNIZAZIOA

Hizkuntzaren normalkuntzaren alderdi nagusi bat betetzen dute estandardizazioak eta modernizazioak: *Corpus*-arena, hain zuzen. *Corpus*-aren normalkuntza, berriz, hizkuntzaren normalkuntza soziolinguistikoaren funtsean dago.

Estandardizazioa eta modernizazioa hertsiki loturik daude elkarrekin: kultura modernoaren sorbide eta adierazpidearen premiei erantzuteko beharrezkoa da hizkuntzaren estandardizazioa.

1.1. Euskararen estandardizazioa

Euskarari gagozkiolarik, estandardizazioa funtsean batasuna dela esan da. Euskararen batasuna, beraz, euskararen normaltasunaren —normalkuntzaren— oinarrian dago. Normalbidearen lehen urratsa da benetan.

Euskarak Euskal Herriko hizkuntza nazionala, normaldua eta modernoa izateko —hau da, ez bakarrik bere funtzio nazional sinbolikoa betetzeko eta bai bere komunikazio-funtzioa betetzeko ere—, beharrezko du batasuna eta estandardizazioa. Kode bat denez hizkuntza, arauak eskatzen ditu, elkarren komunikaziorako benetan kode adierazlea izateko. Horregatik, behar-beharrezkoa

da euskararen plangintza, horren estandardizazioa lortzeko ere. Saussure-k dioenez, «bere kasa uzten den hizkuntzak dialektoak besterik ez ditu ezagutzen; horietako bat ez zaio besteri nagusitzen; eta horrela etengabe zatikatuz joango da hizkuntza».

1.1.1. Euskararen batasunaren urratsak

Euskal literaturaren hasieratik agertzen da adierazita horren batasunaren premia; aski da Leizarraga-ren *Testamentu Berria*-ren edota Axular-en *Gero*-ren sarrerak irakurtzea. Eta horien ondoren beste hainbat autoreren arrenkurak, hainbat euskalkitan banatuta egotearen eragozpenengatik eta euskara «standard» bat, euskaldun guztiek ulertuko dutena ez edukitzeagatik.

Euskararen estandardizazioa planifikatzeko lehen urratsak, berriaz, XX. mendekoak dira, Euskaltzaindia sortu zenekoak. 1922an *Eusker*a aldizkariaren zenbaki berezi oso bat argitara zuen, non bilduta bait zeuden euskararen batasunaz batzaldietan irakurritako txosten eta ikerpenak.

Geroztik hainbat proiektu eta iradokizun eman izan dira euskararen batasunari buruz. Hala ere, euskara batuaren plangintzak hogei urteko historia besterik ez du.

Lehen urratsa 1964koa da. Urte horretan egin zen hainbat idazleren bilera Baionan, batasunaren arazoari eginkizun nagusi gisa heltzeko. Han hartu zituzten lehen erabaki garrantzizko batzua. Haren ondorioa izan zen 1968an Ermuan egindako idazleen bigarren bilera nagusia. Biler horiek, ordea, ez ziren arauemai-leak, idazleen arteko proposamenak eta erabakiak baizik. Hala ere, urte berean Euskaltzaindiak Arantzazun antolatu zuen kongresuaren oinarri izan ziren Baionako eta Ermuako bilerak.

1968an hartu zuen zinez, hain zuzen, bere eskuetan Euskaltzaindiak euskara idatziaren batasuna bideratzeko eginkizuna. Izatez, Euskaltzaindiak bakarrik izan zezakeen horretarako arauak emateko eskua, erakunde publiko bakarra zenez. Arantzazuko kongresuan onartu zen euskara batuaren oinarritzko proiektua. Bertan banatu ziren, baita, batasunaren bidean aztertu eta landu beharreko alorrak: ortografia, morfologia (deklinabidea eta aditz-jokoa), sintaxia, hitzen mailegutza, etab. Ondorioz, hainbat batzorde sortu ziren alor horiek aztertzeko. Eta urte haietan erritmo aski biziari eutsi zitzaion.

Bigarren urrats handia Bergarako kongresua izan zen, 1978an, hamar urtetan ibilitako bidea aztertze eta kritikatzeko. Arantzazuko projektua eta batasun-eredua berretsia gelditu zen bertan. Hiru kapitulu nagusi hauetan bideratu du Euskaltzaindiak euskararen batasuna: Ortografia, Deklinabidea, Aditz-jokoa. Oraindik bide luzea dago egiteko: kapitulu horietan eta batez ere hiztegiari eta sintaxiari dagozkion kapituluetan. 1984ean Iruñean egindako kongresuan izen-sintagma arautzeari heldu dio bereziki.

1.1.2. Euskara batuaren onarpena

Gaur egun euskararen batasuna, Euskaltzaindiak gidatua, onartua dago. Arantzazuko kongresutik hamar urtetara, Bergarako egin zen urtean, argitara ziren liburu berrietatik % 71 euskara batuaz idatzi ziren; hurrengo urtean, berriz, % 88. Liburugintzari buruz esaten den honek berdin balio du prentsarako. Eta ondoko bost urteotan euskara batuaz idazten denaren ehunekoa handitu egin dela esan daiteke, oker ibiltzeko inolako arriskurik gabe. Eta dena dela euskalkietan idazten dena eta euskaraz idazten dena ez dira elkarren lehian hartu behar, bata bestearen arerio ez direlako. Euskalkietan ahalik eta gehien idazteak ez dakarkio euskarari kalterik. Hemen adierazi nahi dena zera da: hizkuntzak gizartean bete behar dituen halako funtzio eta maila formaletarako euskara (euskara batua) onartua eta zabaldua dagoela.

Euskara batuaren eta euskalkien arteko harremanaren oinarriak eta horri buruzko erizpideak Euskaltzaindiak garbi utzi zituen Bergarako kongresuaren adierazpenaren 5. puntuan: «Euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla uste du, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz». Horri buruzko agiri luzeago bat eman zuen, berriz, 1979ko martxoaren 9an. Euskara bat dela esatean, euskalki guztien oinarrian eta «aurretik» euskara batua dagoela esan nahi da. Euskararen batasun-bidea funtsezko euskara hori aurkitzea eta arautzea besterik ez da.

Hala ere, euskara batuaren etsaiak ez dira lasaitu, eta batzutan badirudi indartu ere egin direla, komunikabideetan egiten dituzten erasoei begiraturik. Bi aldetatik etorri dira bereziki erasoak: Bizkaiera-zaleen aldetik eta Euskerazaintzakoen aldetik.

Euskara estandarizatua bizkaiera hutsa ezagutzen duten eta berau landu gabe daukaten bizkaitarrentzat buruhauste ez txikia dela, edonork aitortzen du; arazo pedagogikoa dago hor, baina,

beste neurri batez euskaldun guztiok daukaguna: euskara lantzekoa.

Baina badira, «bizkaitarrismoa»ren izenean, Euskal Herri osorako izango den euskara (euskara estandarizatua) ukatu nahi dutenak, eta bizkaieraren defentsa ez arazo pedagogikotzat eta bai helburu estrategikotzat daukatenak, euskara batuaren kontra. Borroka horixe eraman izan da batez ere Euskal Telebistan. Azkenik, sarritan, kutsu eta helburu politikoak daude tartean, bizkaieraren defentsaren izenean lortu nahi direnak.

Beste alde batetik ere badator euskara estandarizatuaren kontrako eraso: Euskarazaintzakoen aldetik. Horiek inoiz ez dute onartu Euskaltzaindiaren gidaritza arazo horretan. Eta «herri-euskara» jarri nahi dute euskara estandarizatuaren aurka, azken hori euskara artifizial, desitxuratu eta mordoilotzat jotz. Esan beharra dago, euskaraz ondo ala gaizki idaztea ez dela euskara batuaren ala «herri-euskara»ren arazoa; alde batean eta bestean baitaude idazle onak eta idazle txarrak. Eta esaten den herri-euskara horrek bere funtzioak bete behar ditu gure hizkuntza nazionalaren bizitzan: horren biziberritzea eta indarberritzea beharrezkoa da euskararentzat. Baina euskara batuak hizkuntzaren alderdi formal batzuek bakarrik arautzen ditu, eta ez herriaren hizkuntzaren bizitasuna bera. Horregatik «herri-euskara» ez dago inola ere euskara estandarizatuaren aurka. Eta eguneroko bizitzan eta literaturan hizkuntza herritarra lantzeak eta erabiltzeak ez dio inolako kalterik egiten arlo eta maila formaletan erabiltzen den euskara estandarizatuari. Honek euskalkietan oinarritu behar du eta horietatik edan etengabe. Euskara estandarizatuak eta euskalkiek elkar indartu eta sendotu behar dute.

Hizkuntza estandarizatuak arautzean eta bideratzean beti gertatu izan dira kontrako jarrerak, dialektoen nahiz herriaren «hizkera bizia»ren izenean. Euskararen bidean ere gertatzen ari dira horrelako oztupoak: ez da harrizkera. Hala ere, erne egon behar da jarrera eta jokabide horiek, euskara estandarizatu eta modernoan lortzeko helburuaren aurka gailen ez daitezen, sarritan Euskal Herriaren berreskurapen nazionalaren aurkako xede politikoak ere tartean baita dituzte, edota politika antieuskaldunaren jokoan erortzen dira behintzat.

Euskararen batasuna edo estandarizazioa arazo nazionala eta soziala da noski. Eta alferrikakoa litzateke, euskal gizarteak onartuko eta beretuko ez balu. Baina funtsean arazo tekniko da euskararen batasunarena. Horregatik, Euskaltzaindiari aitortu zaio hori

bideratzeko eskuia; eta berak hartzen dituen erabakiak arauak dira euskaldun guztiontzat. Hizkuntza herriarena dela eta berorrek lantzen eta aldatzen duela esatea ez doa horren estandarizazioaren, hizkuntzaren «teknikariek» arautzearen aurka.

1.1.3. Euskaltzaindia

1918-1919 urteetan sortu zen Euskaltzaindia, Hego Euskal Herriko lau Diputazioen babesaren pean eratua. Alde horretatik, sortzez erakunde publikoa dela esan daiteke. Euskaltzaindiaren bizitzak bere gorabeherak izan ditu, egoera politikoaren arabera. Azken hogeitamar urteotan, bereziki 1956an Arantzazun egindako kongresuaren ondotik, eta batez ere 1968an, Arantzazun bertan, euskararen batasunerako egindako kongresuaren ondotik, eginkizun handiak eta zabalak bete ditu Euskaltzaindiak euskararen normalkuntzaren eta modernotzearen bidean.

Hauek dira Euskaltzaindiaren helburuak, bere Arautegiaren lehen artikuluan markatuta daudenez:

- a) Euskararen gramatika legeak ikertu eta mamitzea.
- b) Hizkuntza honen idazlangintzarako argibideak eta arauak ematea
- c) Hiztegia biltzea
- d) Bai hiztegian eta bai gramatika eta grafian ere, literatur hizkera batura heltzeko lan egitea
- e) Euskararen enplegua aitzinatzea
- f) Hizkuntzaren eskubideak zaintzea
- g) Hizkuntza, gizarte maila guztietan gai bihurtzeko, lan egitea
- h) Literatur eta ikas lehiaketak eragitea
- i) Filologia eta linguistikako estudioak sustatzea, euskara eta euskal literaturaren irakas-aulkiak sortuaz
- j) Hartako titulu eta ageriak ematea

Ikusten denez, hizkuntzari buruzko araugintza aparte, euskararen normalkuntzaren beste hainbat alor eta alderdi bereganatzen du Euskaltzaindiak. Egia esan, euskararen erakunde publiko bakarra zenez, berak bete ditu eginkizun guzti edo gehienak, ahal izan duen neurrian, orain dela gutxi arte. Bertsolarien txapelketatik hasi, eta euskara irakasteko gaitasun-tituluak emateraino. Honek beronek erakusten du seguruenik euskararen anormaltasun instituzionala.

Azken aldi honetan bere helburu horietako batzu bestelako erakunderen eskuetan utziz joan da: Ikastolen babes instituzional-

-legala aurrenik; UEUren babesa gero; hurren, Euskalduntze eta Alfabetatzeko erakundea; euskara-gaitasun tituluak ematea azkenik.

Izatez, euskararen egoera normalbidean doalarik edota horren egoera normalduan, ezin pentsa daiteke goian aipaturiko helburu eta eginkizun guztiak Euskaltzaindiaren edo Euskararen erret Akademiaren bizkarrean jar daitezkeenik. e) eta f) helburuak, euskal gizarte osoari eta Euskal Herriko administrazio publikoari dagozkie; h) helburua, Euskaltzaindiak berak baino gehiago betetzen dute beste hainbat erakunde pribatu nahiz publikok; j) helburua Euskal Komunitate Autonomorako behintzat utzia du Euskaltzaindiak, beste erakunde ofizialek bete dezaten; i) helburua Euskal herriko Unibertsitatearen eskuetara igaro da, normala denez; g) helburuari dagokionez, berriz, euskara modernotzeko gaurko premiei erantzuteko, bestelako indar eta erakunde jakintzartekoen premia nabari da, gero ikusiko denez.

Bestalde, Euskaltzaindiaren itzala, lana, koordinazioa eta erauemailetza behar-beharrezkoak dira lehen lau helburuei dago kienez. Baina Euskararen batasuna edo estandardizazioa da Euskaltzaindiaren eginkizunik nagusia euskararen normalkuntzaren bide honetan.

Azken urteotan motelduta ikusten dugu Euskaltzaindia; eta agertu dituen zalantzak arriskutsuak dira, kultur indarren aurrean fidagarritasuna gal dezakeelako. Euskararen estandardizazioak, berriz, urrats asko eta garrantzizkoak egin behar ditu oraindik; eta euskararen modernizazioak eta horrek gaurko euskal gizartean bete behar dituen funtzio sozialek gero eta larrikiago eskatzen dituzte neurri berriak eta bizkorrak, estandardizazioaren bidetik.

Euskaltzaindiak ez du inolako indar politiko edo hizkuntzaz kanpokoren morrontzapean egon behar, benetako politika nazionalari, hizkuntza nazionalarenari, tinko helduz. Alderantziz, euskalgintzan eta euskal kulturgintzan ari direnen —Euskal Herri osoaren— aldeko zerbitzu publikoa izan behar du Euskaltzaindiak, zentzu zientifikoak eta nazionalak eraginda.

Bi gauza eskatu behar zaizkio gaur egun Euskaltzaindiari bereziki: 1) Euskararen batasuna eta estandardizazioa gogoz eta ausardiaz bere eskuetan hartzea, eta kapitulu guztietan eman behar dituen oinarrizko arauak bizkortasunez emanez joatea, zuhurtasuna galdu gabe; 2) Bere lana eta gidaritza jokabide irekiz eramatea, batasun horren bidetik lanean diharduten lagun, talde eta erakunde dei buruz zabaltasunez jokatuz eta behar diren lankidetzak bere-

ganatuz eta hizkuntzaren dinamika soziala kontutan edukiz. Bestela, etena sortuko da Euskaltzaindiaren eta euskararen normal-kuntza bultzatzen ari diren beste indarren artean.

1.2. Euskararen modernizazioa

Euskararen modernotzeak lau ardatz ditu: Euskara literarioa; euskara periodistikoa; euskara tekniko-zientifikoa; euskara administratiboa. Lau alderdiak konkistatu behar ditu euskarak, benetan modernoa izango bada.

Azken urteotan hainbat erataraz adierazi da euskararen gaurkotasun beharra: Euskara kaletartzea... Euskara hiritartzea... Euskara teknifikatzea... Euskara modernotzea, azkenik! Antonio Tovar hizkuntzalariak idatzia du: «El problema más urgente respecto del euskera es su transformación en lengua moderna» (*El País*). Zorionez igarota da euskararen gaitasunari buruzko eztabaidaren garaia. Tovar-ek berak esana duenez, «Todas las lenguas son maravillosas y perfectas. Cubren las necesidades de comunicación del grupo humano que las utiliza y son aptas para expresar cualquier idea». Beste hainbat hizkuntzalarirekin batera, 1954ean UNESCOk emandako deklarazioa berretsi besterik ez du egiten: «Nada existe en la estructura de una lengua que le impida transformarse en vehículo de civilización moderna». Euskarari dagokionez, ez dago hori egiaztatzen ibili beharrik, teorikoki; eguneroko praktikak, hau da, gaurko kulturaren alor eta maila guztietan euskara erabiltzeak berak egiaztatzen du gaitasuna.

Hala ere, ez dago inola ere esaterik, euskarak dagoeneko kultura modernoaren hordagoa irabazia duenik. Erabiliaren erabiliaz gaitzen eta modernotzen dira hizkuntzak: euskara ere bai. Ez dago zalantzarik, leize sakona sortu dela euskararen eta gaurko kultura modernoaren artean. Gure hizkuntza nazionalak gure gizarte modernoan bete beharreko funtzioak beteko baditu, bere normalkuntza kulturala lortu beharra du. Lan handia dago horretan. Indi hizkuntza eta hebraiera modernotzeko hamar urtetan 300.000 termino tekniko sortu eta sartu behar izan ziren.

Dena dela, modernotzearen bideari tinko ekin dio euskarak aspalditxoko urteotan. Ager dezagun aurrenik horren historia, oso laburki bederen.

1.2.1. Euskararen modernizazioaren historia

Euskararen modernizazioaren *arazoa*-ren historia apurra —edota horren eskema— besterik ez da izango hau. Izan ere, euskararen modernizazioaren edo eguneratzearen historia euskararen beraren historia da azken finean: Euskal literaturarena, euskarazko irakaskuntzarena, euskal testugintzarena, euskal hizte-gigintzarena, Euskaltzaindiaren eta batasunerako horren arauena, euskararen erabilpenarena (administrazio publiko nahiz pribatuan, zerbitzu sozialetan, merkataritzan, etab.).

Argi dago, historia hori ez dagoela hemen egiterik.

Kultura modernoari buruz euskarak jasan duen eta jasaten duen atzerapena arazo historikoa da: hau da, mundu modernotik (administraziotik, irakaskuntzatik, komunikabideetatik, unibertsitatetik, merkataritzatik, etab.etik) euskara baztertzen hasi zenetikoa. Badira mende batzu euskara jasaten ari dela egoera hori.

Horregatik euskara modernotu beharraren jabetasuna ere aspaldidanikoa da, eta behin eta berriro euskal idazleengan eta kultureginengan agertzen dena. Ioannes Leizarragaren eta Axularren aipaturiko sarrerak premia horren adierazgarriak dira.

Larramendiren itxurazko baikortasuna alde batera utziz, era beretsuan —nahiz eta testuinguru ezberdinetan— mintzatzen da Kardaberaz ere, XVIII. mendean.

XIX. mendeko krisialdi politikoa, kulturala eta hizkuntzazkoa suspergarri gertatu da hainbat kultur laguneren artean, teoriarik behintzat euskara mundu modernorako errebindikatzeko.

Baina batez ere Eusko Ikaskuntzaren I. Kongresuak (1918koak) agertu zuen aspalditiko asmoa, euskararen modernotu beharra esplizitatuz eta horren batasunaren arazoarekin lotuz. Luis de Eleizalde azaldu zuen problema argi eta garbi bi hitzalditan.

Urte horietan landuriko ideiak eta proiektuek nolabaiteko aurrerapidea izan zuten, baina oso mugatua. Zenbait testuliburu egin zen bide horretatik, batez ere eskolarako; baina oso isolatuak izan ziren lan horiek.

Gerrate zibilaren ondoren, bereziki 1954etik aurrera hartuko du nolabaiteko bide jarraikoa eta sistematikoa euskararen modernotzeak.

Aurrenik *Euzko Gogoa* aldizkariak eta horren inguruan dabilen kultur jendeak aski argi planteatzen du arazo hori; hala ere, kulturarekiko beren burueragatik, euskararen modernotzeak edukin aski mugatua du: Klasikoen itzulpenetan modernotu nahi da bereziki euskara: Platon, San Agustin, Pascal, Descartes, etab.

Aldi beretsuan, *Egan* aldizkariaren inguruan euskararen modernotzea bilatuko da, baina literaturan bereziki, filosofian baino gehiago.

Jakin aldizkariak, ordea, hasiera-hasieratik (1956) jartzen du aurrez-aurre euskara modernotu beharra, gaurko zientzia eta tekniketarako. Etengabe izan du Jakineko taldeak kezka hori, behin eta berriro agertzen denez. Hiztegi berezituak egin beharraren eta testuak landu beharraren bidetik konkretatuko da kezka hori. Horrela 1972an Hiztegi horiek aurrera eramateko projektua eta programa lantzen ditu; eta handik lau urtetara argitaratuko du *Natur Zientziak* hiztegia, beste hainbat ere bideratuak dituelarik. Horri jarraipen finkoa emateko, ordea, UZEI sortu eta eratu zen 1976an.

Esan beharra dago, ordea, Jakinen hiztegegintza eta gero UZEIkoa ez direla bideratu bakardadean, testuinguru kultural berezi batean baizik. Ordurako Ikastolak martxan zeuden, eta horietarako testuliburuaren premia atzeraezina zen; horiek lantzen ere ari ziren.

Bereziki aipatu behar dira UEU eta Elhuyar, Jakinen eta UZEIren hiztegegintzarekin oso lotuta daudelako. Gero azalduko dira hobeto horien orain arteko lana eta etorkizunerako egin-kizuna.

Mugimendu, ahalegin, proiektu, talde eta erakunde guztiorien fruitu gisa sortu zen UZEI 1976an, euskara modernotzeko erakunde *profesional* gisa. Gero aipatuko da zabalago erakunde hau ere; aski da oraingoz horren sorreraren testuingurua eta kultur ingurua, bai eta soziala, aipatu izana.

1.2.2. Modernizaziorako hizkuntz erakundeak

Euskararen normalkuntzaren eta modernotzearen helburua hauxe da: Euskal Herriaren hizkuntza nazionala gaurkotzea. Arazo nazionala eta publikoa da, beraz, euskararen modernotzea.

Erakunde ofizialen aldetik debekatuta eta erasopean egon ez denean ere, arazo pribatua izan da euskararena; eta horren modernotzea lagunbanako eta lagun-talde pribatuen eskuetan ibili da.

Hiru puntutan laburbil daiteke aipaturiko arazoari buruz esan beharrekoa:

- Gaur egun, eta printzipioak aparte, euskarak duen egoera linguistiko-kulturala eta soziala ikusiz, behar-beharrezkoa da horren modernotzea erakunderen batzuren bidez koordinatzea eta gidatzea.
- Euskal Herriko administrazio publikoek beren eginkizuna dute euskararen normalkuntza, beronen globaltasunean, beren eskuetan hartzea.
- Euskararen normalkuntza linguistiko-kulturalak bere erakunde *publiko* espezifikoak behar ditu, horren hiru alderdiak (inbestigazioa, estandardizazioa eta modernizazioa) bultzatzeko, koordinatzeko eta gidatzeko.

Zeintzu dira —zeintzu izan daitezke— erakunde horiek? Badi-ra erakunde ofizial eta publiko batzu; eta beste batzu, pribatuak izanik, zerbitzu publikoa betetzen dutenak. Sailean aipatuko ditugu ondoko hauek: Filologi Fakultateak (Gasteizko publikoa eta Deustuko pribatua), Administrazio-eskolako Euskara-Saila, Itzul-tzaile-Eskola, UEU, Elhuyar eta UZEI.

1.2.2.1. Euskal Filologi eta Hizkuntzalaritza-Fakultateak

Azken urteotan, euskarazko eta euskararen irakaskuntzarako sortu eta zabaldu diren erakundeez gain, filologi eta hizkuntzalaritza-zientzien mailan euskara aztertzeke eta irakasteko Fakultateak ere sortu dira Euskal Herrian: Deustuko Unibertsitate pribatuan (Deustuan bertan eta Donostiako EUTGn) eta Euskal Herriko Unibertsitate publikoan: Gasteizen. (Baionako Euskal Unibertsitate-Institutua ere horien ondoan jarriko genuke). Esan beharra dago, hala ere, Fakultate horietako gairik gehienak erdal filologiazkoak direla. Onartezinezkoa da, bestalde, erdara erabat nagusizat erabiltzea Fakultateok, euskararen kaltetan.

Orain arte lagunbanako zaletu eta jakintsuen eta kanpoko zenbait irakas-katedraren gain egon da euskararen goimailako irakaskuntza eta horren ikerkuntza. Aitortu beharra dago, noski, Euskaltzaindiak bete izan duen eginkizuna alor horretan.

Euskara normaltzeko eta modernotzeko behar-beharrezkoa da ikerkuntzaren alderdia. Eta horretarako erakunde egokiak Unibertsitateko Fakultateak izan daitezke; euskararen gaurko egoerari eta dinamikari erabat atxekirik egin behar dute, ordea, beren lana Fakultateok, euskararen normalkuntzaren gaurko premien zerbitzuan.

Euskarari buruzko ikerkuntzak, horren normalkuntzari begira programatu, koordinatu eta gidatu beharko lirakeela ematen du. Unibertsitateak eta ikerkuntzarako bekak eskaintzen dituzten erakunde ofizialek puntu hori oso kontutan eduki beharko lukete.

Era berean, eta beti euskararen normalkuntza globalari begira, alderdi filologikoen ondoan, hizkuntzalaritzaren zenbait adar bereziki bultzatu eta indartu beharko litzake: Soziolinguistika, psikolinguistika, hizkuntzaren didaktika, lexikologia eta lexikografia, terminologia, etab.

1.2.2.2. «Herri Arduralaritzako Azterlanerako Euskal Iraskundeko Euskara Saila»

1980ko otsailaren 26an sortu zen erakunde hori eta horren barruko *Euskara Saila*. Azken honen xedeetako bat hau da, araudia-
ren arabera: «Funtzio publikoari dagozkion alderdi tekniko guztietan euskararen estudioa sustatzea».

Xede hori betetzeko, aurrenik, Administrazioeko euskararen eredia aukeratu beharko luke. Baina oraindik ez du hori egin, seguruenik harrapatuta gertatu delako bi indarren artean: Eusko Jaurlaritzako eta Gasteizko Parlamentuko Buletinetan erabiltzen den ereduaren eta bestelako erakundeetan eta sailetan zabalduak eta onarturik dagoen ereduaren artean. Seguruenik ez dagokio horrelako instituzioari berari hizkuntz eredia definitzea.

Bestalde, euskal lexiko eta berbaldi administrazioekoa lantzeko ere talde teknikoak behar dira, jakintza ezberdinetakoak, eta ondo koordinatuak, administrazioeko hizkuntza jakintzartekoa delako. Bide horretatik, hain zuzen, UZEIk, Diputazioetako eta Udaletxeetako itzultzaileekin batera dihardu aspaldidanik administrazioeko euskara lantzen; atereak ditu Administrazio-, Enpresa- eta Zuzenbide-Hiztegiak, besteren artean, Administrazioeko hainbat formulario prestatzearekin batera. Ik. Dosierraren 2. parte, 5.5.

Zorakeria da beste talde teknikorik sortzea, lan bera egiteko. Zoritxarrez, Euskara-Sailak ez du oraindik, benetako urratsik egin aipaturiko bere xedea betetzeko.

1.2.2.3. Itzultzaile-Eskola

1980an eraiki zen Itzultzaile-Eskola, Euskaltzaindiaren babesean. Lehen ikastaroan lau irakasle eta 30 ikasle izan zituen; honako ikasgaiok eman ziren:

- Euskara eta euskal literatura
- Gaztelania eta erdal literatura
- Linguistika orokorra eta estilistika
- Itzulpen-teoria eta praktika
- Euskal itzulpenaren historia eta testu-konparaketarako metodologia.

Itzultzaileak prestatzea zen, beraz, Eskolaren helburua. Euskararen modernizazioan eginkizun garrantzizkoa betetzen du, alde horretatik Eskolak; izan ere, edozein hizkuntza modernok, gaurko kultura moderno eta unibertsalaren adierazpide izango bada, beste hizkuntza modernoekin neurtu beharra dauka; itzulpenaren bidez gertatzen da neurketa hori. Areago oraindik, produkzio txikia duen euskara bezalako hizkuntzan.

Sortu eta bi urtetara, onarpen publikoa eduki zuen Eusko Jaurlaritzaren aldetik, eta *Arantu gabeko Irakas-Zentru* bihurtu zen, LH2-ren markoaren barruan. Urte hauetan UZEIrekin eta IRALEREkin lankidetzan ihardun da maiz.

1984eko abenduan *Senex* aldizkaria argitaratzen hasi da, Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria, UZEIrekin eta Elhuyar-ekin batera. Itzultzaile Gaitasun Agiria programatzen ari da orain Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuarekin batera.

1.2.2.4. Elhuyar

1972an sortu zen, Donostiako Industri Injineruen Goimailako Eskola Teknikoan ikasitako hainbat lagunen arteko talde iraunkor gisa. Beren asmoa teknika eta zientzietako alorretan euskara lan-tzea zen. Gazte-talde dinamikoa eta ekina agertu zen hasieratik.

1974ean, berriz, *Elhuyar* aldizkaria ateratzeari ekin zion. Zailtzarrik gabe euskararen modernizazioaren bidean, oso garrantzizkoa izan da Elhuyar taldea eta berorren aldizkaria. Bertan landu dira euskaraz hainbat gai, aurretik ukitu gabeak: Matematika, Fisika, Kimika, Biologia, Medikuntza, Informatika, Teknologia elektronikoa, Teknologia mekanikoa, etab. Bestalde, taldearen eta

aldizkariaren inguruan trebatu dira kultur alor horietako hamaika espezialista, bere espezialitatean euskaraz iharduteko.

Alor berean batez ere lan eskerga burutu du Elhuyar-ek ikasli-buruak itzultzen edo lantzen, batez ere erdimailako irakaskuntzarako, Lanbide-heziketarako, baita Unibertsitaterako ere. 43 titulu argitara ditu dagoeneko.

UEUren antolamenduan eta irakaskuntzan partaidetza koalifikatua eduki du hasieratik Elhuyar-ek. Era berean, UZEIrekin lankidetzatza estuan ihardun da, bereziki bere alorretako zenbait Hiztegi tekniko-berezitu lantzen: Fisikarena, Kimikarena, Matematikarena, Teknologia mekanikoarena, etab.

1.2.2.5. UEU (Udako Euskal Unibertsitatea)

1973an jaio zen UEU; lehen ekitaldia Donibane Lohitzunen egin zuen.

Unibertsitateko irakaskuntza euskaraz ematearekin eta horretarako irakasleak gaitzearekin batera, euskara bera gaitzea izan da UEUren asmorik nagusienetakoa. Oso garrantzizkoa izan da, eta da oraindik ere, UEUren egitekoa euskararen modernizazioaren bidean. Puntu hauxe nabarmendu nahi dugu, hain zuzen hemen, UEUren beste alderdia, —hau da, euskarazko Unibertsitatea bideratzeko daraman lana— irakaskuntzari buruzko kapituluan azalduko bait da.

Udako ikastaroekin batera, Unibertsitate mailako liburugintzaren hutsune handia betetzen saiatu da UEU azken urteotan. Unibertsitateko benetako euskal bibliotekari hasiera eman diola esan daiteke: Euskal Unibertsitatearen premia gorri bati erantzuteko eta euskara bera zientzietako alor guztietan gaitzeko.

Unibertsitatean, eta irakaskuntzan orokorki, diharduten irakasle-ikasleen artean eragile eta koordinatzaile gisa jokatu du UEUk, Unibertsitate-gai guztiak euskaraz erabiltzera bultzatuz. Hortik sortu da, hain zuzen, «Biblioteka» horren fruitua. Hainbat sail ditu dagoeneko biblioteka horrek: Fisika, Kimika, Matematika, Natur Zientziak, Psikologia, Arteak, Biologia, Elektrizitatea, Historia, Hizkuntzalaritza, Medikuntza, Ekonomia, Geologia, Elektronikak, Dialektologia, Teknika eta Estatistika. Denetara, 100 bat liburu dagoeneko.

Elhuyar eta UZEIrekin lankidetzatza hertsian ihardun da, bestalde UEU. Esan daiteke nolabait UZEI gertatu dela UEUko lagunen

artean talde edo erakunde teknikoa, euskararen modernizazioari begira.

1.2.2.6. UZEI (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea)

1977an sortu zen UZEI. *Jakin* taldearen eskutik eta honek bideraturiko programa aurrera eramateko sortu bazen ere, esan daiteke *Jakin*, Elhuyar eta UEUren arteko konbergentzia gisa sortu zela: hau da, euskararen modernizaziorako talde tekniko gisa, lehen adierazi denez, eta alor ezberdinetan euskara tekniko-berezitua lantzen ziharduten talde eta indarrak teknikoki koordinatzeko eta bateratzeko. 500 lagunetik gora ihardun da UZEIren programetan.

Lan-talde profesional gisa eta erakunde publiko izateko asmoz abiatu zen UZEI. Hala ere, oraindik ez du lortu onarpen publikorik Administrazio publikoaren aldetik.

Hasieratik Hiztegitzinta tekniko-berezituaren lanari eta programari ekin zion bereziki UZEI. Alor ezberdinetako hainbat hiztegi kaleratuak ditu dagoeneko. Azken urteotan, berriz, oinarriko lexikogintza berezituari eta hiztegitzintzari eustearekin batera, ikasliburugintzari ere heldu dio, erdmailako irakaskuntzari eta batez ere Unibertsitateko materialgintza idatziari begira. Dozena bat testuliburu argitaratuak ditu.

Euskararen modernizazioari begira, zentru nagusi bihurtu da gaur UZEI, kaleratu dituen liburuekin batera, eratu eta handitu duen terminologia tekniko-berezituaren bankuarekin batez ere. Horregatik, UZEIren beste eginkizun nagusi bat zera da aspalditxoko urteotan: kontsultategia. 150.000 datu inguruko terminologi bankua osaturik du dagoeneko.

Azkenik, bere lexikogintzako eta hiztegitzintzako lanari begira, euskal lexikologiaren eta lexikografiaren hainbat lan bideratu du UZEI. Horietako batzu argitaraturik edota oso aurretatuta dauzka.

Euskararen modernizazioaren bidetan, batez ere gaurko kultura tekniko eta zientziazkorako euskara gaitzearen bidetan, eta Euskal Unibertsitatea euskalduntzeko helburuari begira, nabarmentzekoa da azken hamar urteotako lana, bereziki Elhuyar, UEU eta UZEIren eskutatik joan dena. Sortzez oso loturik egon badira hiru erakundeak, urtetako lankidetzak eta koordinazioak hurbilagotu egin ditu.

Hirurak sortu ziren indar herritarren eskutatik, eta ekimen pribatuaren eraginez ihardun dira. Azken urteotan Administrazio publikoaren aldetik nolabaiteko laguntza izan badute ere, oso motz gelditu da hori, euskararen modernizaziorako luzaroko programak egiteko eta aurrera eramateko.

Gaur, berriz, hiru erakundeak ari dira beren etorkizuna aztertzen; hiru dira azterketa horren kapituluak: Lan-eremua definitzea, instituzionalpena eta onarpen publikoa, maila eta alor bere-tsuari eta helburu beretsuekin diharduten beste erakundeekiko harremana. Beharrezkoa da seguruenik, aurrerako bidea eta helburuak eta lanbideak ere modu koordinatuz markatzea.

2. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA ETA ALFABETAKUNTZA

2.1. Mugimenduaren sorrera eta bilakabidea

Euskal Herria alfabetatu eta euskalduntzeko helburu nagusiaren inguruan gauzatu zen herri-mugimendu honen abiadan bi arlo bereiz daitezke. Horietako bakoitzak ditu bere ezaugarriak, biak aski nabarmenak.

2.1.1. AEKren egituraketa-prozesua: 1960-1980

Nahiz eta izena bera geroztikoa izan, gaur egun soziologikoki AEKn mamitzen dena 1960ko hamarkadan sortu zen kultur mugimendu herritar gisa, euskal kultura eta politika mailako beste zenbait mugimendurekin batera.

Hasieran, 1965 inguru hartan, AEKren ekintza alfabetatzeko lanetara mugatu zen bereziki. Geroago ekin zion euskalduntze-alorrari, 1967-68 inguruan, hain zuzen. Harez gero, azken hegi hori etorri da poliki-poliki indartuz eta Euskal Herri osora hedatuz. Eta, azken batean, prozesu bikoitz honen barruan euskalduntzeak alfabetatzeari aurrea hartu dio.

Talde herritarren euskararekiko kontzientzia eta borondateetik jalkitako mugimendu hau Euskaltzaindiak bere babesean hartu zuen 1968an, horretarako, bereziki Rikardo Arregiren eraginez,

«Alfabetatzeko Batzorde» bat izendatuz. Hamar urte Euskaltzaindiaren gerizpean egin ondoren edo, zehatzago esanda, Eusko Kontseilu Nagusi jaio-berriak Euskaltzaindia organo ofizialtzat hartzea erabaki zuen urtean (1978an), AEK kalean geratu zen bere indar soilen kontura eta kargura.

AEKren bilakabidea, lehen aro honetan, era askotakoa eta goranzkoa izan da. Halaxe erakusten dute jarraiko datuok:

2.1.1.1. Ikasle-kopuruaren gorakada

Ikasle-kopuruaren aldetik, beti gora joan zen 1976-77 ikasturtea arte, gorakada aski normalez joan ere. Aipaturiko ikasturte horretan, ordea, gorakada guztiz anormala izan zen: % 300ekoa, hain zuzen ere. Goreneko gailurra jo zuen ikasturte horretan. Euskal Herri osoan, aipaturiko ikasturte horretan, 30.000tik gorakoa izan zan ikasleen kopurua. Gipuzkoak orduan ezagutu zuen gorakadarik bizkorrena: 11.454 ikasle, aurreko ikasturteko 3.796ren aurka.

Bistakoa zenez, 1977az geroztik beherakada azeleratua hasi zen berehala. Lehen mailako ikaslekoa zen aurreko ikasturtean ikastera jo zuena, eta jende horrexek utzi zion ikasteari. Beheranzko aldia, ordea, goranzkoa bezain laburra izan zen, edota laburragoa. Dena dela, beheranzko aldi hori ez da sekula gorakada anormalaren aurretiko mailaz behetik joan. Gipuzkoan, adibidez, 1975-76 ikasturtean 4.162 ikasle ziren, eta 1978-79an 8.387 eta 1980-81ean 6.545.

2.1.1.2 Irakasle-prestakuntza eta mugimenduaren eraketa

Euskarazko irakaslearen prestakuntza, hasieran, nola-halako ikastaro berezi batzuren bidez egin zen. Irakasleen prestakuntzarako ikastaro hauek, ikasketa linguistiko eta pedagogikoari bagagozkio bederen, gehienetan morfologiatzeko alor batzu lantzerat mugatzen zen. Honela, bada, «Alfabetatze-Kanpainak» edota «Gau-Eskolak» edo «Euskal Eskolak» lur gorritik hasi behar izan zuten.

Irakasle-prestakuntzari dagokionez, batipat 1976-77ko ikasle-uholdeak eraginik, pauso garrantzitsuak eman ziren. Honela:

- Ikasturte berean irakaslearentzat ikastaldi didaktikoak eratu ziren; 815 irakasle inguruk parte hartu zuen.

— Euskalduntze-Ikasketak ere gehiago zehaztu ziren, Hasiera-Oinarri eta Hobakuntza mailak bereiziz.

Metodo erabilienak, une honetan, *Jalgi hadi* eta *Euskalduntzen* izan ziren.

Hurrengo ikasturtean (1977-78an), Bizkaiko Talde Didaktikoa sortu zen, eskualde bakoitzetik lagun bat denbora-erdiz izendatuz talde-lanerako. Honela, irakaslegoaren prestakuntzari eta materialen zerbitzuari bultzada handia eman zitzaion. Ordukoak da *Urraspideak* eta abarren ekitaldia.

Segidan, 1978-79an, «Euskaltegi» berriak ugaritzeko erabakia hartu zen eta, horren ondorioz, eskolak egun osoz emateko irakasle liberatuak gehitu ziren.

Geroago, 1979-80 ikasturtearen hasieran, Euskal Herri mailako didaktika-ikastaroak antolatu ziren, Bizkaiko Talde Didaktikoak, Hernanialdeko «Okila» taldeak eta Goierrikoak eraturik. Irakasleek mailaka egiten zituzten hamabosteroko bilerak gorpuzten hasi ziren garai honetan.

Eraketa-lanari dagokionez, 1976-77 ikasturtean, gipuzkoarren eta bizkaitarren arteko harremanak finkatzen hasi zirenean, aurre-rapauso garrantzitsua eman zen, Rikardo Arregiren garaian elkarrekin ibili baziren ere, gerora bakoitzak bere aldetik jo bait zuen. Honela, 1977-78 ikasturterako, eskualdeak iraunkorki egituratzen hasten dira. Gauzez ezezik egun osoz ere eskolak ematen dira. Honelako «Euskal Eskolak» nahi dira eraiki baldintza minimoak betetzen dituzten herrietan. Irakasleen prestakuntzarako «Irakasle-Eskolak» aipu ona lortzen hasten dira.

Azken urte hauetan, bada, AEKren eraketan eta koordinaketan urrats handiak eman dira: Euskal Herri mailako lanari ekin zaio, bakarka, eskualdeka edo herrialdeka soil-soilik arituz euskararen berreskuratzeak ez duela etorkizunik uste bait da. Honez gero, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan, Iparraldean (Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan) eta Nafarroan jadanik eraturik dago AEK. Eskualde guztiek koordinaturik dihardute lanean.

2.1.2. HABEren sorrera eta AEKren egoera berria: 1980-84

Aro honetan Hego Euskal Herrian erreforma politikoa gauzatu zen da eta Komunitate Autonomoan hasierako Eusko Kontseilu Nagusiari Eusko Jaurlaritza darraio. Honek, lehen unetik,

AEKrekiko harremanak hautsi egin zituen eta, honela, 1981ean Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE) sortu zuen, kale gorrian zegoen AEKri administrazio-laguntzaren bidez konkurrentzia egin ziezaion.

Zerbitzu publiko gisa sortua baina halabarrez finantzaketa pribatuz malbizi den AEK herri-mugimenduak, HABE sortu-berrriaren aurrean, jarraiko xede hauetan oinarritutako alternatiba aurkezten du:

2.1.2.1. Irakaskuntzaren autonomia

Barne-antolaketari begira, gestio demokratikoa aldarrikatzen du: irakaskuntza aurrerakoa eta herritarra bideratuko duena, ideologia zabalean oinarritua; dirigismo administratiboaren eta kontrol burokratiko-legalistaren lekuan, ikastalde eta ikasle-karten protagonismoari lehentasuna emango diona. Zentzu honetan, Administrazioarekiko harremanetan, gestio demokratikoari darizkion ezaugarri hauei erantzuteko behar den adinako autonomia eskatzen da.

2.1.2.2. Herri-dinamikaren bermea

Helburua Euskal Herria berreuskalduntzea dela onartzen baldin bada, euskararen irakaskuntza ezin izango da herri-dinamika-tik bereizi, merkantzia aseptiko bat bailitza. Egoera diglosikoa gaindituz goazeneko prozesu honetan, euskara eta kultura elkarrekiko eraginpean bilakatuz datoz eta, horregatik, euskal kulturaren bidez Euskal Herriari eskaini nahi zaion giza projektutik ezin bereizi izango da euskal eskolen alfabetatze- eta euskalduntze-lana.

Biharko Euskal Herri euskaldundura heltzeko, beharrezkoa da bitarteko hauek jartzea:

— Euskal *lurraldeari* bere osotasunean eustea. Honek, funtsean, Euskal Herri mailan jokatzeko eskatzen du, gaur hor barruan diharduten Administrazio desberdinak (Komunitate Autonomo-koak, Nafarroakoak eta Iparraldekoak) eta beroriei dagozkien maila desberdinetako instituzioak (Udalak, Diputazioak, etab.) plangintza orokor batean koordinatuz.

— Euskararen *herri-irakaskuntza* oinarritzko abiapuntutzat hartzea. Honek *sektore guztietara* iristea suposatzen du, bereziki lan-mundura, komunikabideetara eta hezkuntzara. Euskara kale-ratzeko, gizartea bera euskalduntzeko, euskara duen herriaz bialtu beharra dago, planteamendu akademiko hutsak gaindituz.

— Administrazio publikoak eta herri-dinamikak *batera jokatu behar* dute, euskal gizarteak euskara beregana dezan. Herriaren partehartzerik gabe ezin lortu ahal izango da euskarak euskal gizartearen hizkuntza integratzaile izateko behar duen mobilizazio masiborik.

2.1.2.3. Publikotasunaren eskea

Publikotasuna da AEK mugimenduak sorreratik bertatik bere erraietan erroturik daraman bokazioa. Bere eginkizunak eskatzen diona. Bere izaera horrexek eragin dio behin eta berriz publikotasun honen atzetik ibiltzera. AEK beti egon da prest Euskal Herriko edozein erakunderekin batera beharrezko deritzon Helduen Irakaskuntzarako Erakunde Publikoa sortzeko eta bertan jokatzeko, horretarako duen errealitate osoa eskainiz. Zentzu honetan, Administrazio publikoarekin izandako harremanetan, beti errendikatu izan du publikotasunaren beharra. Eusko Kontseilu Nagusiari gogo hori azaldu zion 1979-80 ikasturtean eta orobat Eusko Jaurlaritzari HABE sortu zenean, 1981ean, eta gehiagotan.

AEKren hizkuntza filosofia orokor honi HABE konpetitiboa kontrajarri zaio. Hau ote da euskalduntzearen eta alfabetatzearen arazoa erabakibidean jartzeko modua? Galdera honetan datza arazoaren gakoa, gaurdanik erantzun beharrekoa.

Administrazio publikoaren erantzun bakarra HABE izan da, nagusien euskara-munduan dabilzan erakundeekin eta, bereziki, Euskal Herri osoan zehar 30.000 ikasle baino gehiagorekin, publikotasun-bokazioa duen AEKrekin, kontatu gabe egositako lege batean oinarritua.

HABE lege honetan ikasle-irakasleen ahotsa hutsaren hurrengo delarik, gestio demokratikoaren eskabide gutxienekoak ere ez dira betetzen eta, euskara duen herri-multzoa ezertarako kontutan hartu gabe, akademia hutsezko proiektu artifizial bat gauzatzen da, euskara berreskuratzeko baliogabea dena funtsean. HABE legeak, erakunde publikoa sortu ordez, erakunde administratibo aski berezia gauzatu du, Administrazioak bere-berea duen irakaskuntzaren eremu guttiz mugatua eratuz eta subentzionatzen diren «Euskaltegi Pribatuak» kontrolatuz. Berreuskalduntzea, funtsera joanda, berezko inizatibaren esku uzten da.

Bestalde, euskal lurraldea hiru eskualdetara mugatzeak hankamotz uzten du euskararen proiektu nazionala.

Eta, azkenik, badirudi HABE legea AEK apurtzeko egina dela, AEKren filosofia eta herri-dinamika, AEKren irakaskuntz alternatiba hainbat zatitan eta eredutan banakatzen bait du, diskriminazioari atea irekiz.

2.2. Egungo ikasle-kopurua

Lehen, bidenabar, 1980 arteko datu batzu eman dira. Hemen oraingo egoeraren berri eman nahi da.

Euskal Herriko populazioa 1975ean 2.784.320koa zen (Ik. *Hizkuntz Borroka Euskal Herrian* liburua); horietatik, iturri berean oinarrituz, 632.301ek bakarrik hitzegiten zuen euskaraz. Datu hau aurrean edukiz, segidan Helduen Alfabetatze eta Euskalduntzearen arloari dagozkion zifrak emango dira.

Ikasle-kopurua 1983-84eko negu-ikasturtean

Erakundea	Komunitate Autonomoa	%	Nafarroa	%	Iparraldea	%	Guztira	%
AEK	23.718	57	2.600	82	900	100	27.218	59,4
INSTITUZIO OFIZIALAK	3.880	9	300	9	-	-	4.180	9,1
BESTEAK	14.132	34	300	9	-	-	14.432	31,5
GUZTIRA	41.730	100	3.200	100	900	100	45.830	100

Iturria: AEKren bulegoa.

Zifrek diotenez, AEK erakundeak egun Euskal Herriko helduentzako irakaskuntzaren alorrean % 59,4 betetzen du, % 57 Komunitate Autonomoan, % 82 Nafarroan eta % 100 Iparraldean. Datuak askotan hotzak izaten bait dira, AEKren herri-irakaskuntzaren inguruan bildutako laguntzaileak eta lan-taldeak ere aipatzekoak ditugu, *Korrika* prestatzeko lana eta mobilizazioa ahantzi gabe, noski. Arazo honetan, beste erakundeek, publikoek nahiz pribatuek, ez diote euskararen irakaskuntzari dinamika berezirik ekarri.

Datuekin segituz, Euskal Herriko zazpi herrialdeetan helduen irakaskuntzan diharduten erakunde nagusien lan-orduak edo klase-orduak zehaztuko dira ondoren:

			%
AEKk	4.223.283	klase-ordu	52,42
HABEk	1.711.345	klase-ordu	21,24
Besteek	2.120.525	klase-ordu	26,32

AEKk era desberdinetako ikastaro-motak eratzen ditu, tokian tokiko errealitatea kontutan izanik eta uda/negua bereizketa egirik. Ikastaro hauetan, 1983-84 ikasturtean egindako matrikulak 30.000tik gora ziren. HABEk, bere aldetik, lau euskaltegi dauzka: Donostian, Bilbon, Gasteizen eta Hondarribian, azken honetakoa barnetegia. Bestalde, Gipuzkoan 9 udal-euskaltegi eta Bizkaian 5 ditu 1984eko udazkenean. Urtean gehienez ere 3.500 ikasle har ditzake bere geletan.

2.3. Euskararen irakaskuntzaren projektua

2.3.1. AEKren azken helburu nagusia

AEKren azken helburua Euskal Herria berreuskalduntzea da eta, zehatzago, Euskal Herriko edozein pertsona larri euskalduntzea eta alfabetatzea. Horretarako, Euskal Herriak bere hizkuntza ahalik eta arinen eskura dezan, alegia, biderik eraginkorrenak erabiliko dira. Beraz, helburu funtzional bati begira jokatu du: hots, euskara-hiztunen kopurua lehenbailehen gehitzen saiatuko da, euskararen ahultze-prozesua geldidakin. Eraginkortasuna jarraiko hiru puntu hauetan kokatzen da:

— *Euskal hiztunak* sortzean. Hau da: euskaldun berriak nahiz zaharrak euskaraz hitzeginez elkarrekin komunikatzeko gai egin behar dira.

— *Hiztun asko* sortzean. Zergatik? Ba, hizkuntza nagusiek ez duten arazo bat daukagulako, irakaskuntza bera errotik baldintzatzen duena. Datu hori *ikasle-kopuruari* dagokiona da, hilibiziko datua.

— *Hiztun asko epe laburrean* sortzean. Ezinezkoa baldin bada ere epe labur batean euskara menperatzea, posible da ikasleari hizkuntz barruti bat, mugatua baina ongi programatua, eskaintzea, geroago hizkuntza aberatsagoa lor dezan.

2.3.2. Bitartekoak

Epe laburrean euskaldun asko eta hiztunak sortzeko, askorengana iristeko alegia, ondorio biderkatzaileak dakartzaten bideak, orain arteko esperientziaren bermez efikazia erakutsi dutenak, bultzatu behar dira. Bereziki:

2.3.2.1. Euskaltegiak

Euskaltegien ugaritzea ere beharrezkoa ikusten da. Ikastaro trinkoak eratzeko toki aproposak dira euskaltegiak, bertan erraz antola bait daitezke egunean 3 edo 4 orduko ikastaroak.

Euskaltegietan irakasle asko biltzen bait da, talde-lana egiteko leku egokiak dira. Bestalde, teknikak ematen dizkigun abantailak ere errazago erabil daitezke euskaltegietan, leku hauek lagun helduei euskara irakasteko bakarrik erabiltzen direnez gero.

2.3.2.2. Gau-eskolak

Auzoetan eta herrietan gau-eskolak mantendu beharra dago. Mantendu, indartu eta ugaitu. Euskal eskolek, euskara irakasteaz gainera, euskal giroa mantendu eta gehitu behar dute auzoetan eta herrietan. Euskal giro honi esker, jendea euskara ikastera ekarri ahal izango da. Eta euskara ikasteko gogoia sartzen zaienean, auzoan edo herrian bertan, edo euskaltegietan, edo barne-ikastaroetan, euskara ikasteko aukera izango dute.

2.3.2.3. Ikastaro trinkoak

Bide berri hau indartu behar dela nabari da. Beraz, egunean ordu bat baino gehiagoko ikastaroak bultzatu behar dira. Ahal dela, astean bost egunetan eman eskolak: 10, 12, 16 eta 20 eskola-ordu. Eskola hauek ikasturtean bi edo hiru maila egiteko moduan antolatuak egongo lirarteke.

2.3.2.4. Barnetegiak

Aurrerantzean, barne-ikastaro edo barnetegiak gehitu egin behar dira. Ikasketak hitzegiten ikastera zuzenduak egon arren, ez dago sarri baldintza nahikorik, ikasleek euskaraz hitzegiten ikas dezaten, inguru egokia falta bait zaie. Premia hau betetzeko, es-

kualde euskaldunetan barnetegiak ugaritzea irtenbide egokia izan daitekeela pentsatzen da.

Barnetegietan zerotik hasi eta oinarrizko maila batera heltzen dira ikasleak, euskaldunekin hitzegiteko gai izanik.

2.3.2.5. Irakasle dedikatuak

Euskaltegi eta barne-ikastaroen inguruan irakasle dedikatuen talde bat sortu eta bultzatu behar da. Irakasle dedikatuak euskararen irakaskuntzatik aterako lukete beren bizibidea eta, beste zereginak utziz, lagun helduei euskara irakastera jarriko lirateke soil-soilik. Talde honek dedikazio osoa euskarari emango liokeenez, talde-lana egiteko ahaltsuna edukiko luke.

2.3.2.6. Irakasle-eskolak

Ikastaro trinkoek eta barne-ikastaroek berezitasun gehiago suposatuko luketenez gero, irakasleak ere espezialdu egin beharko dira. Baina horrezaz gainera, irakasle berriak sortu beharra ere badago, egon. Honek, noski, euskararen irakasle-eskolak bultzatu beharra dakar.

2.3.2.7. Alfabetatze-kanpaina

Berezko hiztunen protagonismoa suspertzearen bidetik segituz, jendea alfabetzera eraman behar da, nola edo hala, horretarako kanpainak antolatuz. Hau egiten ez den bitartean euskalduntzearen planteamendua erren gertatuko da, erdararen euskararekiko ordezkapen-prozesua aurrera joango bait da, gaur egun eskualde euskaldunetan gertatzen den bezala. Bai euskalduntze aldetik bai alfabetatze aldetik dinamikarik ez dagoen eskualdeak mugitzeko plangintza eta inbertsioetan pentsatu beharra dago.

Alfabetakuntza honen barruan, euskara ikasten dabiltzan umeen gurasoak alfabetatzea edo euskalduntzea izango litzateke, ondorio biderkatzailearen aldetik begiratuta, lehen eginkizuna. Garrantzitsua baldin bada umei euskara irakastea, garrantzitsua da, halaber, gurasoek beren umeen eskolarekin batera jokatzea; horretarako, noski, alfabetatu egin behar edota, euskara ez badakite, ikasi egin behar, umeekin hitzegiteko neurrian bederen.

2.3.2.8. Ikaseltartearen dinamika

Hemen proposatzen den estrategiak euskal jendea nahikoa ma-siboki mugitzea eskatzen du eta ezin daiteke aurrera eraman, bal-din eta euskararen irakaskuntzaren alternatiba ez bada herritarra. Didaktikaren ikuspegitik begiratuta, ikaseltarteetan hiru partai-deok hartu beharko lukete parte: ikasleek, irakasleek eta laguntzai-leek. Bestalde, ikaseltarte hauetatik sortu beharko lirarteke herri-dinamika eta gestio-gintza demokratikoa.

2.3.2.9. Euskaragintza eta kultur-gintza

Euskararen transmisio eraginkorra lortzeko bidea, bai kopu-ruaren eta bai kalitatearen aldetik, «kalea» inplikatzeko da euskar-aren irakaskuntzan, euskaldun berriek euskaldun zaharrengan, hauengan bereziki, beren sostengua izan dezaten eta, honela, esko-la eta kalea bateratzeko zubia eginez joan dadin. Laguntzaile bila abiatu behar da, euskararen aldeko borondatea azaltzen duen nor-nahi egintzara konprometituz eta, bidenabar, txokoak, mintza-eltarteak, bilgelak, bidegelak, kanpainak eta abar antolatuz.

2.3.2.10. Langabeentzako plangintza berezia

Euskara berreskuratzeko plangintza gaurko egoera sozio-eko-nomikoa kontutan hartuta egiten bada, ez dago dudarik langabe-ziak eta langabetuek leku berezia dutela plangintza horretan. Jen-detza hori euskarak bereganatzen ez badu, ezingo da aurreraegi joan.

2.3.2.11. Langile-mundua

Benetako berreskalduntze-prozesuak, ez dago inolako duda-rik, langileria hori barruan sartzea suposatzen du. Zentzu honetan, lantegietan dihardutenentzat eskolak antolatu behar dira. Hau orain, une honetan, Euskal Herriko zenbait lantegietan egiten da, baina esperientzia hori zabaldu egin behar da, leku gehiagotara hedatu, langileei, euskara ikas dezaten, erraztasun guztiak eskai-niz. Horrelako zabaltze-lana eginez gero, lantegietako batzorde eta sindikatuarekin konpromiso batera heldu beharko litzateke, euskalduntze-prozesuaren bidea eskualdez-eskualde sendotuz joan dadin.

Hauek dira bideak, ez beharbada neurri berekoak, baina bai guztiak garrantzitsuak. Ohar-pare bat, hala ere:

Batetik, mota guztietako ikasgu eta ikaserritmoak plangintza beretsuetan lotu behar dira (eskualde mailako plangintzan, kasurako), bestela desbideratu egiten bait da prozesua Euskaltegiak Hizkuntz Akademia soil bilakatuz, ikasguak lokalismoan eroriz, etab.

Bestetik, azkenaldiko esperientziak erakutsi duenez, ikastaro trinkoek eta, batez ere, barne-ikastaroek eraginkortasun aparta dute. Beraz, ildo horretatik joan beharko luke helduentzako euskararen irakaskuntzak.

2.3.3. Euskararen irakaskuntzaren plangintza nazionala

2.3.3.1. Plangintzaren beharra

Euskal Herria berreuskalduntzeko plangintza orokorra egin beharra dago. Eta horretarako hainbat osagarri eta sail hartu behar dira kontutan:

- Soziolinguistikazko azterketak.
- Komunikabideak (ETB, irratia, prentsa).
- Lan-harremanak (goikoek behekoekin, langileen artekoak...).
- Glotodidaktikazko lan-taldea, hizkuntz irakaskuntzari buruz ihardungo litzatekeena.

Honenbestez, gure helburua lortu nahi badugu, lehenik, hizkuntza berreskuratzeko plangintza bat egin beharko da; bigarrenik, herriak onartu edota begi onez ikusi beharko luke —herriak nahi gabe ez dago hizkuntza berreskuratzerik—; hirugarrenik, plangintza martxan jartzeko legeak egin eta, lege bidez ezarritakoa bete dadin, diru-multzoak erabaki beharko litzateke; azkenik, egingdako lana neurtu egin beharko litzateke, aurrera begira zer alda eta nora jo jakiteko.

2.3.3.2. Herriaren partaidetza plangintzan

Hizkuntzaren plangintza hau, batetik, botere publikoari dago-kion egitekoa da eta, bestetik, herriak berak partehartu eta onetsi beharreko zerbait da.

Jakina da, arestian esan bezala, Euskal Herriak euskararen hizkuntz plangintzaren behar gorria duela. Jakina, orobat, plangintza

horretan zerikusi handia dutela Euskal Herriko Administrazio publikoek eta lekuan lekuko agintariek. Jakina da, hálaber, Euskalduntze eta Alfabetatzearen aldeko herri-mugimendu ez-ofizialak zati handi bat betetzen duela eta are gehiago bete dezakeela plangintza horren barruan.

Diglosia serioски gainditzeko bidea planteatzen bada, helduen euskalduntzea eta alfabetatzea aurrera eramateko egungo 45.000 inguruko ikasle-kopurua bi edo hiru aldiz biderkatu beharko litzateke eta horretarako, gutxi gorabehera, 3.000 edo 5.000 irakasle beharko lirateke. Honi lokalak, materialak eta abar eransten badizkiogu, urtero bost-zortzi bat mila milioi pezeta suposatuko luke. Nekez burutu ahal izango dira prebisio hauek, jendea euskararen alde masiboki mobilizatzeaz gain, Administrazio publikoek ez badute benetan asumitzen helduen berreuskalduntzea.

3. EUSKARA IRAKASKUNTZAN

3.1. Lehen eta bigarren mailako irakaskuntza

Izenburu honen azpian Eskolaurrea, Haurtzaindegiak, OHO, BBB, UBI eta Lanbide-Eskolak sartzen dira. Irakaskuntzaren maila hauetan dagoen problematika zabala eta berezia aztertu nahi da hemen, hizkuntz politikaren aldetik arazo funtsezkoenak laburbilduz.

3.1.1. Hurbilketa koantitatiboa

3.1.1.1. Ikaslegoaren kopurua Hego Euskal Herrian: 1983-84

Zifrak honela banatzen dira Hegoaldeko lau eskualdeetan:

Zentru publikoetan	266.850 (% 50,76)
Zentru pribatuetan	196.670 (% 36,84)
Ikastoletan	62.230 (% 12,40)
<i>Guztira</i>	525.750

Zifra hauetatik ateratzen den ondorio garrantzitsua hau da: Hego Euskal Herriko ikasle gehienak euskarazko irakaskuntzatik kanpora daudela, zeren ikasten ari diren 525.750 ikasleetatik % 12,40 bakarrik bait dabilta Ikastoletan. Guztira: 62.230 ikasle.

Bestalde, ahanzezinezko datua da, Ikastolak aparte utzita, ikasle-kopururik handiena eskola publikoetan dabilela: % 50,76. Euskarazko irakaskuntza hor bideratzen ez bada, euskarak nekez egin dezake aurrerabiderik.

Ikaslegoaren kopuru orokorra, orain, 525.750ekoa da. Jaiotze-tasa jaitsiz datorrenez gero, logika zuzenean pentsatzekoa da kopuru orokor horrek jo duela bere gaina eta beheranzko prozesuan sarturik dela.

3.1.1.2. Irakasle euskaradunak eskoletan: 1982-83

Irakaskuntzan dihardutenak, oro har, 26.689 irakasle dira. Horietatik % 54,09 zentru publikoetan eta % 45,90 zentru pribatueta dabilzanak ditugu. Euskara dakitenen kopurua, iturri desberdinetako datuetatik hurbilketa bidez lortua, hauxe da:

Zentru publikoetan.....	1.010
Zentru pribatueta	857
<i>Guztira</i>	1.867

Ikastoletakoak kanpoan utzita, noski, % 7 eskas hori dugu bakarrik euskaraduna. Irakaskuntzan kulturaren eta hizkuntzaren bideratzaile profesionalak diren irakasle hauek, gehien-gehienak, euskarari arrotz zaizkion profesionariak dira.

3.1.1.3. Irakasle eta ikasle euskaragabeak Irakasle-Eskoletan: 1982-83

Irakasle-Eskola hauetan, pribatuak eta publikoak batera hartuta, 7.020 ikasle dabilta ikasten eta 303 irakasle irakasten. Zifra hauetan Derioko Irakasle-Eskolakorik ez dator.

Euskararen ezagutzaren arabera, honela banatzen dira irakasle eta ikasle euskaragabeen portzentaiak:

	Ikasleak	Irakasleak
Donostian.....	% 80,77	% 35,48
Deustuan	% 90,36	% 65,45
Gazteizen	% 86,35	% 68,00
Nafarroan.....	% 95,71	% 84,09

Laburki esanda: 7.020 ikasletatik 1.494 dira euskaradunak, hots, % 21,28. Biharko irakasle berrien harrobia funtsean euskaragabea dela adierazten du horrek. Irakasleen baitan portzentaiak zerbait positiboak dira, baina, horiengan ere, bereziki Nafarro-

an eta Araban, larria da euskararen egoera. Iparraldeko datuak, berriz, biltzeke daude oraindik.

Honaino, bada, datuen irakurketa bizkor hau.

3.1.2. Elebitasuna eta ereduaren porrota

Ikastolen eboluzioan, azken urteotan hain zuzen, gero eta eskasagoa dela esaten da euskararen ezagutza eta beronen erabilera. Honen errudun nagusia Ikastoletan orain arte aplikatu den eredu elebakarrarena izango litzateke, gaiak euskaraz bakarrik irakatsi nahi izatearena, alegia.

Eredu klasiko horrek, espreski esaten denez, bi gaitz ekarri ditu ikasleagoaren baitara: batetik, traumak haur euskaragabeengan eta, bestetik, hizkuntzaren beraren pobretasuna. Aipaturiko gaitzok ikastolen gorputz orokorrean areago zabal ez daitezzen, orain arteko eredu bakarrari uko eginik, eredu berriak proposatzen dira: zorioneko edo zoritzarreko A, B eta D ereduak. Polemika, noski, Ikastolen inguruan sortu da, ez beste eskoletan. Bitxia hau ere.

Ikus dezagun hurbilagoetik jokabide horren azpian ezkututzen den filosofia. Proposatzen den erizpidea irakaskuntza osorako da, baina kritika egin, arestian esan bezala, nagusiki monolinguismoa praktikatzen duen Ikastolari egin zaio.

3.1.2.1. Elebitasunaren inguruan

Elebidun izatea, espezialistek diotenez, bi hizkuntzak gaitasun berberaz menperatzea da, menperatu nola ulertzeko hala mintzatzeko.

Hori horrela baldin bada, badugu horretaz zerbait esatekorik gorago aipatu dugunaz gain (ik. I. parteko 3. kapitulua). Zeren, elebitasuna aipatzen denean, zer fenomeno-mota adierazi nahi da? Ezin gaitzke aurrera joan puntu hau argitu gabe.

— Elebitasuna norberaren hizkuntz portaerari dagokion egoera bereziaz esan ohi da. Beraz, esan, ez dago esaterik gizarte elebidunak badaudenik, baina bai pertsona elebidunak. Bigarrenetik lehenengora ezin da saltorik egin errealitatea gezurtatu gabe. Laburki esanda: elebitasuna arazo pribatua da, norberaren biografiari dagokiona; pertsona jakin batzu bizi diren ingurune baten barruan mugitzen da. Elebitasuna, beraz, arazo pertsonala da, indibiduala.

Goian aipatu den definizioak alderdi hori jasotzen du batipat. Baina, bistakoa denez, hizkuntza fenomeno soziala ere bada. Eta alderdi hori, eman den definizioaren arabera, ez da hor sartzen.

— Elebitasunak bi hizkuntzek beren artean gizarte-botere edo prestigio-status berbera dutela inplikutzen du. Honek, jakina, bi hizkuntzak maila berean egotea suposatzen du, berez eta teoriarik behintzat. Praktikan hala gertatzen al da? Gurean bederen ez.

— Garbi eta ozenki esan behar da euskararen egiazko arazoa ez dela elebitasunari dagokiona eta bai, bete-betean gainera, diglosia estrukturalarekin zerikusi zuzena duena. Diglosiak, elebitasunak ez bezala, hizkuntza baten antolakuntza mota orokor bati egiten dio erreferentzia, hots, gizartearen egitura sozio-politikoari. Gogoan hartzen ditu, beraz, gizarte jakin baten oraingo eta lehenengo historia eta ez, elebitasunaren kasuan bezala, norberaren hizkuntza portaerak soilki. Egoera diglosikoa ematen denean, bi hizkuntza kontrajarririk aurkitzen ditugu. Bata goimailakoa da (A), ofiziala, besteak baino indar eta itzal handiagoa duena komunikabideetan, literaturan, mass-medietan, irakaskuntzan, hau da, bizitza publikoan. Bestea (B), ofiziala ez dena, behemilakoa da, sukaldetik eta famili girotik oso urruti ez dagoena. Delako B hizkuntza hori euskara baldin bada, A-n bi dauzkagu baten lekuan: espainola eta frantsesa.

3.1.2.2. Ereduen erasoa

Ereduen erasoaldia bizi-bizia baldin bada ere une honetan, beronen zuztar teorikoak lehenagotik zeuden botata. Luze pentsatuta eta sakon botata. *Jakin* aldizkaria izan da ideia berrien balioa (Ik.: *Jakin*, 7. zenb., 1978; 19-20. zenb., 1981). Horietan Euskal Herriko irakaskuntza elebidunaz zenbait ideia plazaratu ziren. McKey-ren ikuspuntutik abiatuz, eredu desberdinen proposamena egiten zen. Gero ereduaren arazo honetaz han eta hemen hitzaldi eta mahainguru asko egin izan dira.

Espero bazen ez bazen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailekoek berehala jaso zuten eredu desberdinen proposamen-oihartzuna; ezer berririk asmatu gabe, sail horretatik bertatik eta 1981ean hain zuzen ere, A, B eta D izenez ezagutzen diren eredu plangintza zehatza egin zen irakaskuntzarako (Ik.: *Hasierako zikloko euskararen programakuntza. B eta D ereduak. Hasiera zikloa. 4. Orientabideak*, 1981).

Euskararen eta euskarazko irakaskuntza mailakatu horren ara-

bera, A eta B eruedetan adibidez, ikasleen hizkuntza nagusia ez da euskara, gaztelania baizik. Eta hala izango da, *Orientabideak* ematerakoan esaten den bezala, beren gizarteko harremanetan gaztelaniaz baliatuko direlako, hain zuzen. Hala ere, B eta D eruedetan, teorigile hauen ustez beti ere, ikasleek gaituak egon beharko lukete ikasketak euskaraz egiteko. Guztiau, noski, teoria mailan.

3.1.2.3. Ereduen emaitzak

Ereduak martxan daude jadanik eta, Eusko Jaurlaritzaren Gize Azterketarako Lantaldeak buruturiko txosten luzean (*Jakin*, 1983, 26-27 zenb., 97. or.), Eskolaurreko eta OHoko ikasmila bakoitzean euskararen egoera zein den azalduz, jarraiko datuok ematen zaizkigu. Datuok K.A.ko ikasle guztiak hartzen dituzte: pribatuak nahiz publikoak, Ikastolak barne. Ikasleen banaketa %-etan ematen da.

		Euskararik gabe	A Eredua	B Eredua	D Eredua	Guztira	Ikasle-kopurua
Eskolaurrea	1.	14,53	41,51	22,33	21,63	100	33.587
	2.	12,79	47,44	19,37	20,40	100	36.620
O.H.O.	1.	12,54	55,92	13,22	18,32	100	39.852
	2.	13,37	59,98	9,74	16,91	100	40.754
	3.	13,65	63,61	56,73	16,89	100	39.299
	4.	16,05	64,88	4,03	15,03	100	39.043
	5.	18,59	65,62	2,85	12,94	100	40.038
	6.	21,26	65,67	2,73	10,34	100	40.822
	7.	22,43	65,36	2,91	9,30	100	39.369
	8.	23,89	64,93	2,50	8,68	100	36.679

Iturria: *Jakin*, 26-27 zb., 1983, 97. or.

Taula honi iruzkin hau egiten diote txosten-egileek:

«Eskolaurreko eta OHoko ikasmila bakoitzean eta guztietan garaile den eredia A eredia da, non euskara asignatura bezala bakarrik sartzen den; ez dugu oraindik benetako ikasketa-emaitzen berririk.

Goiko mailetatik behekoetara jaitsiz goazen neurrian, B eta D eruedetan diharduten gelen proportzioa gehituz doa; honek, azken urteotan irakaskuntza elebiduna eta euskarazkoa gero eta gehiago sartzen ari dela erakusten du. Bereziki ohartzekoa agertzen da B ereduak azkeneko 3 urteotan duen goraka progresiboa.

Arrazoizkoa dirudi, B eta D ereduak euskaldun osoak sortuko dituztela espero izateak. Aurrikuspen hau betez gero, eta datu hauen arabera, bere lehen mailako ikasketak sei urte barru amaituko dituen belaunaldiko euskaldun-tasa, lehen aldiz gure historian, euskal populazio osokoaren berdina edo handiagoa izango da. Honek esan nahi du, funtsezko aldaketa bat gertatuko dela orain arte ohartutako joeran: belaunaldi gazteenak, tartekoak baino euskaldunagoak izango dira» (*Jakin*, 26-27 zb., 1983, 96-97 or.).

Eusko Jaurlaritzatik datozen datu-iturri eta segidako iruzkin horiek ikusi eta irakurri ondoren, zera ageri da: optimismorako dei bat egiten dela. *Jakin*-eko testuak «goiko mailetatik behekoetara jaitsiz goazen neurrian, B eta D eruedetan diharduten gelen portzinoa gehituz doa» la dio eta, beraz, irakaskuntza elebiduna gero eta gehiago sartuko dela. Eta testuak dakarrena, zentzu horretan, egia da. Gure kalkuluen erreferentzi puntu gisa taula hori berori hartuta, B eta D ereduaren portzentaia handituz doaz goiko mailetatik behekoetara irakurtzen ditugun neurrian. Beharrezko eskailera hori honelakoa da, B eta D ereduak orotara harturik:

OHoko 8. urtean.....	% 11,18
OHoko 4. urtean.....	% 19,06
OHoko 1. urtean.....	% 31,54
Eskolaurreko 1. urtean.....	% 34,96

Baina eskailera hori beheko mailetatik goikoetara igotzen bada eta oraingoan B eta D eruedetan ez dauden ikasleak gogoan hartzen badira, honelakoak ditugu portzentaia:

Eskolaurreko 1. urtean.....	% 56,04
OHoko 1. urtean.....	% 68,46
OHoko 4. urtean.....	% 80,94
OHoko 8. urtean.....	% 88,82

Beraz, OHoko azken urtea bukatu eta BBBn bere ikasketak euskaraz egin ditzakeen ikasle-kopurua % 11,18koa da. Egoera hau, bere hoztasun latzean, ez da batere kontsolagarria eta bai tristea. Desplazamendu koxkor horren izenean eta gainean ezin daiteke esperantza faltsurik eraiki.

Ez hori bakarrik. Lehen aurrikuspen hori kasurik onenean oinarritua dago. Zeren hor gauza gehiegi suposatzen bait da, hala nola:

- B ereduaren arabera eskolatzen diren guztiak beren ikasketak euskaraz egiteko gaiturik daudela.

- errealitateak estimazio koantitatiboen arabera funtzionatzen duela.
- OHOk ikasketak bukatzen dituzten guztiek BBBko ikasketak hasiko dituztela.
- B eta D ereduaren aldeko joera, mailaz-maila, beti lineala izango dela.

Hemendik sei-zazpi bat urtetara emaitzak aurrean eduki arte, ez dagoke deus frogaturik. Oraingoan, aipaturiko azken puntuok aurrikuspen hutsak dira, ez gehiago. Guk, besterik nahiko genukeen arren, arras erlatibizaturik ikusten ditugu hipotesi horiek eta, zentzu honetan, optimismorako baino pesimismorako arrazoi gehiago ikusten dugu bide horretatik joanez gero.

Kontutan hartzen badugu A ereduak ez duela ezertarako balio, elebitasunaren aurpegia zentru publikoetan eta pribatuetan nolabait justifikatzeko ez bada, ondorio garbi honetara heltzen gara: *de facto*, oraindik gaur, euskarazko irakaskuntzaren zutabe nagusia, ia bakarra, Ikastolak direla.

Berriki argitaratutako «Elebitasuna ikastoletan: egoera eta irtenbideak» lanean (*Jakin*, 32 zb., 1984, 37-69 or.) Gipuzkoako Ikastoletako esperientzia elebidun desberdinak jasotzen dira, batez ere Eskolaurrea eta Hasiera-Ziklokoak. Horko datuek erakusten dutenez, % 75 lehengo eredu klasikoari eustearen aldeko agertzen da, haurra euskaraz hezitzearen aldeko alegia, hizkuntza menperatuz. Eta, azkenean, ondorio honetara heltzen da txostena: «... esperientziak argi erakutsi du Ikastolak bakarrik ezin dezakeela Herria euskaldundu, haurraren bizi-giroa ere ez bada era berean euskalduntzen. Horregatik, euskalduntzearen plangintza orokorra beharrezkoa da, kontutan harturik, Euskal Herriko hizkuntzaren etorkizuna D eredu dela, nahiz eta horretara iristeko bidean beste zenbait eredu erabili» (*Jakin*, 32 zb., 1984, 68. or.).

Dagoeneko, beraz, badirudi hasierako optimismoaren globo hura puztuegia zela eta errealitatea beste nonbaitetik doala.

3.1.3. Euskal eskolaren funtsezko helburuak

Lehen eta Bigarren Mailako Irakaskuntza erakunde jakin batean gauzatzen denez gero, bidean datozkigun euskal haur guztien euskarazko hezkuntza bideratuko duen eskola-mota hori nolakoa nahi dugun alde zehazteak ezinbesteko egitekoa dirudi.

Hona hemen euskal eskolaren ezaugarririk funtsezkoenak:

3.1.3.1. Eskola nazionala

Hemen «nazional» adjektibo hau darabilgunean, hitz honek politikan duen zentzu hertsian ulertzen da. Beraz, Euskal Herria herri gisa zapalduarik daukaten bi estatuen kontrako askapen nazionalaren aldeko borrokan sartuta dago eskola «nazionala»ren prozesua. Gu orain gauden fasean, dauzkagun eskola-mota guztiak —publikoak nahiz pribatuak, berdin Ikastolak— estatu espainolaren menpeko eskola nazionalak dira. Nazionalak bai, baina espainolak. Euskal Herriko irakaskuntza osoan, beronen punturik erabakiorrenetan, Madrileko administrazio zentralak agintzen du eta ez Gasteizko gobernu autonomoak, ez Nafarroako parlamentuak. Eusko Jaurlaritzak ez du ahalmenik ez bere funtzionariak edukitzeko ez ikasketen programaketa egiteko. Madrileko gobernuak transferitu dizkionak dira Gasteizko gobernuaren funtzionari bakarrak, lehendik zeudenak, alegia. Areago: Euskal gobernuak publiko egin dituen oposizioak Madrileko gobernuarekin negoziatuak izan dira. Ez du autonomiarik funtzionarietzako oposizio publikoak egiteko. Eta guzti honen ondorioz, orain oposizioak ateratzen dituztenek ere estatu zentralaren funtzionari segitzen dute.

Horregatik, hor goian azpimarratu den ikuspuntutik begiratu-ta, ez dago ondo esanda, etendura politikoa proposatzen duten talde politikoez ez dutela aginterik eta, beraz, hauek proposatzen duten alternatiba (demagun, kasurako, EEPPA) ez dela baliagarria. Instituzioetan ez dagoen aukera politikoaren eraginkortasuna ezdeusa dela juzgatzen bada, politika instituzionalaren adierazpen goren den Eusko Jaurlaritzarena oraindik ezago dela esan behar-ko da, zeren, beti ere euskal nazionalismoaren izenean, lortu beharrekoak lortu bait ditu eta, honela, behingoz hipotekaturik utzi bait du euskal eskola nazionalaren aldeko borroka.

Zentzu horretan, bada, irakaskuntza mailan botere autonomo-arekin nahiz estatalekin egindako edozein paktu, errealitate politikoaren zolara joanda, haiek ezartzen dituzten neurri kojunturalen araberakoak izango dira.

Horregatik, Euskal Herriaren proiektu nazionalak erdiz-erdi zeharkatzen badu gaurko politika instituzionala, funtsean espainola, arrazoi berregatik zeharkatu behar-ko luke irakaskuntza mailan ere. Horregatik, behar-beharrezkoa da funtsezko aldaketa bat bi-

deratzea hezkuntzan. Ikuspuntu hau gogoan hartu behar da oro har hezkuntzaren eta zehazki irakaskuntza-maila orokorraren gero planteatzeko orduan.

3.1.3.2. Eskola euskaraduna

Ez da nahikoa eskola nazionala nahi dugula esatea. Euskaradunak hizkuntzaren aldetik datorkion marka berezia eranstean dio gizarte bati. Horregatik, «euskal eskola» esaten denean ongi zehaztu behar da horren bidez zer esan nahi den, zeren, zoritxarrez, zorioneko «euskal» hau era askotara uler bait daiteke. «Nazionala» eta «euskaraduna», gure kasurako, kontzeptu osagarriak dira, baina ez gauza bera.

Gure hizkuntza nazionala euskara da eta horregatik nahi dugu irakaskuntza osoa euskaraz. Herritar oro euskaradun izanik, herriak berak bere adierazpen kulturalaren eremu zabala euskararen bidez azal dezan. Eta Euskal Herri euskaraduna diogunean, euskal lurralde osoa esaten dugu, Iparra nahiz Hegoa, lurralde euskarageak barne: Araba, Nafarroa, Bilbo, etab. Euskal Herri osoa euskalduntzeko helburuak hutsegiten badu, askapen nazionalaren aldeko borroka galdurik duke bere zutaberik behinena.

Helmuga hori lortzeko zer prozedura eraman behar da? Zer bide da egokiena? Galdera hauek beste maila batekoak dira eta gero saiatuko gara zerbait proposatzen.

3.1.3.3. Eskola publikoa

Publikoa, berez, pribatuari kontrajartzen zaio. Eskola publikoek nahiz pribatuek euskal eskola nazional eta euskaradun izan ezinik ez dute. Publikotasuna, hitzaren zentzu hertsian, irakaskuntzaren antolakuntza administratibo-politikoari dagokio.

Eskola publikoak eta pribatuak dauden erregimen politikoetan, normalean, haiek langileriarenak eta hauek burgeseriarenak izan ohi dira. Eskola publikoaren eta pribatuaren arteko zatiketa sozial honetan, bereziki, klasearteko gizarte-zatiketari dagokion faktorea sartzen da elementu determinatzaile gisa.

Hori horrela, bi arrazoi hauengatik gaude, batipat, eskola publikoaren alde: Batetik, herriko ikasle guztientzako aukera-berdintasun berbera nahi dugulako. Guztientzako aukera berberak; eta eskola pribatuak egiten duena, hain zuzen, horixe da: «bere» eskola egin, diruaren truke. Bestetik, ikasle-gehiengoa non, gure

etorkizunaren gakoa han dagoelako. Lehen ikusi dugunez, gure Herrian, bi eskola-moten artean diferentzia handirik ez egon arren, gehiago dira eskola publikoetan dabiltzanak.

3.1.3.4. Doako eskola

Hau dugu funtsezko beste baldintza bat. Irakaskuntzak, berau herri baten ondasun publikoa denez gero, doakoa izan behar du eta ez klase bati atxekia. Euskarazko irakaskuntzaren kasuan Ikastolek pairatu duten ustiapena hain grabea eta hain luzea izan denez, garaia da gure eskubideak kaleratzeko. Dirua nonbaitetik atera behar eta berriz ere gurasoen poltsikoak sakatzen dira. Gaurko ikastola gehienen larritasuna, beste arazo askoren artean, jasaten dituzten mailegu eta zorretatik dator. *Doakotasuna* aipatzen dugunean, beraz, zor eta diru-hipoteka guztietatik libratzeaz ari gara. Hor barruan sartzen dira: Ikastolen zorrak, orain arte ordaindu dena, gaur Ikastolak mantentzea kostatzen dena. Doala dena erakunde publikoen gain.

3.1.3.5. Eskola demokratikoa

Gizarte demokratiko bati dagokionez, gizarte-bizitzan bezala irakaskuntzako zentruetan ere, askatasun demokratikoak errespetatzea eskatzen da. Errespetatzea, bereziki, irakaskuntzaren prozesuan zuzenago edo zeharkago partehartzen dutenen ikuspegia eta jokabidea. Hemen sartuko lirateke: ikasleak, irakasleak eta gurasoak. Eskola irekia nahi da, irekia gestioaren aldetik, irekia pentsakeraren aldetik, irekia pedagogiaren aldetik.

3.1.3.6. Sare bakarra

Lehen Mailako Irakaskuntza euskalduntzeko projektua borroka nazionalaren barruan kokatzen bada, euskal geografian dauden eskola-motak oro hartu beharko ditu bere gain, hots: publikoak, pribatuak eta ikastolak. Euskarazko eskola nazionala ezin izan daiteke gaur den bezalakoa: zatikatua, hots, bakoitza bere aldetik dabilena. Ezin dute bi taldeek, batetik euskaragabeek eta bestetik euskaradunek, elkarrengandik bananduta segitu. Eskola nazionalak sare bakarrera bildu behar ditu bai ikastolak eta bai beste guztiak plangintza orokor baten barruan. Sare bakar baten beharraz ari gara hemen, horretaz batez ere, ez hainbeste haren nolakotasunaz, zeren eskola-mota guztiak sare bakarrera biltzeak aldeaz au-

rretik programa zehatz bat mamitzea eskatzen bait du, euskarari kalterik etor ez dakion. Hain zuzen ere, sare bakarreko eskola horrek, zerbait izatekotan, euskaraduna izan beharko bait du. Hala ez izatekotan, ez du balio. Horregatik, sare bakarraren prozesuak euskarazko irakaskuntzaren garapena bermaturik eduki behar du.

Hona hemen euskal eskola zertzen duten ezaugarri batzu, garrantzitsuenak behintzat. Esan behar da, batez ere azken aldiotan, asko hitzegin dela eskola publikoaren alde, eskola demokratiko eta pluralistaren alde, baina ez neurri berean eskola nazionalaren eta euskaradunaren alde. Eta Lehen Mailako Irakaskuntzaren mailan gaur egun daukagun kontraesan nagusia, hain zuzen, eskolaren nazionaltasunean eta «euskaraduntasunean» datza. Dirudenez, inork gutxik du eragozpenik eskolaren publikotasuna onartzeko. Alderantziz, euskarazko irakaskuntza nazionalaren defentsan borrokatzeko gertu daudenak ez dira hainbeste. Hementxe aurkitzen da gaur horrenbeste eztabaidatzen den Ikastolen arazoaren muina. Helburuak ondo markatuta nora goazen garbi ikusten badugu, oztoporik handienetako bat gairadurik genuke, zeren, baldin hara heltzeko borondate kolektiborik eta, azken finean, politikorik bada, bidegintzak berak elkartuko bait ditu alternatiba honen aldeko partaideak.

3.2. Gaurko Unibertsitate publikoa

Lehen eta Bigarren Mailako Irakaskuntzak Goi-Irakaskuntzaren edo Unibertsitatearen atetan utzi gaitu, segidan, orain arteko azterketaren ildotik segituz, gaurko Unibertsitatearen egoera zein den ikus dezagun.

3.2.1. Unibertsitatearen egiturazko egoera

3.2.1.1. Irakasleak

Lehenik, gaur egun bi motatako irakasleak daudela kontutan hartu behar da: numerarioak eta ez-numerarioak.

Irakasle numerarioak, batetik, funtzionariak dira, betirako lanpostua dute, ez zaie kontrolik ezartzen, eta abar. Horien eskuetan dago Unibertsitatearen gestioa. Irakasle ez-numerarioek, bestetik,

ez daukate inolako segurtasun laboralik, urteko (edo urte batzuta-ko) kontratua dute, soldata askoz txikiagoa numerarioen aldean; alabaina, hauen eskuetan dago Unibertsitateko irakaskuntzaren parterik handiena.

Irakasle ez-numerarioen arazo larria hauxe da: irakasleen irakaslerik eza. Ez-numerarioek ez dute beren prestakuntzarako mediorik eta, klasez lanpeturik daudenez gero, ezta denborarik ere.

Beste arazo larri bat, funtzionalgoari lotua datorrena da: hemengo Unibertsitatea pasoko Unibertsitatea besterik ez da izan orain arte. Merituak lortzeko etorri dira hona irakasle numerario-eta posible izan dutenean, alde egin dute. Horregatik, gure Unibertsitatea aurrera ateratzeko, ezinbestekoa da irakaslego propioa edukitzea, ezin da irakasle numerarioen nahiz ez-numerarioen es-tabilitate-gabezia hau onartu.

3.2.1.2. Ikasleak eta irakaskuntza

Lehenik esan behar dena da gure lurraldean sortu diren ikaste-txe berriak inolako plangintzarik gabe sortu direla, hiru «campus»-etan barreiatuak eta, oraingoz bederen, elkarren arteko koordina-ketarik gabe.

Bigarrenik, gure Unibertsitatea masifikatu egin da. Une hone-tan 40.000 ikaslelik gora dabilta. Eta ikaslegoaren hazkunde hau hain bizkorra izan da, non oraingo azpiegitura ez bait dago gaitua hainbat motatako beharriaz erantzuteko. Gero eta zentru ge-hiago, gero eta ikasle-kopuru handiagoa, baina ez dator hazkunde horrekin batera irakasle-kopuruaren gehikuntza.

Beraz, klaseko ikasle-kopurua emendatuz doa. Ikasle-kopuru handiak, bestalde, eskola magistralak ematea, azterketak egitea, etab. eskatzen du. Honek, noski, ikasleen pasibotasuna dakar. Hauek ez dute partehartzen. Entzutera etortzen dira ikasleak uni-bertsitatara.

3.2.1.3. Ikerkuntza

Unibertsitatearen helburuetariko bat, ikerkuntza da. Baina ikerkuntza ez da tesia, huts-hutsean. Gaurko irakasleari ezarri zaion helburua, berriz, horixe da: tesia. Tesia egiteko lasterketa hasi da. Honela, 1987rako tesia eginda ez daukaten irakasleak Uni-bertsitatetik bota egingo dituzte.

Epea ezarria dago, baina bitartekoak? Batetik, ez da kontutan hartzen dozentzia ere bete behar dela. Eta eskolaz beteta egonik, zaila da ikerkuntzarako denbora izatea. Bestetik, ez dago plangintza kolektiborik. Nork bere aldetik egin behar du. Batez ere indibidualtasuna indartzen da, lan kolektiboaren aurrean.

Azkenik, eta puntu honek ere badu garrantzirik, gaurko ikerketa-gaiek errealitatearekin ez dute zerikusirik.

3.2.1.4. Gestioa

Unibertsitatearen egiturak hierarkikoa dirau. Gestio-karguak, beti bezala, katedratikoen eskuetan daude.

Nahiz eta proportzio desberdinetan, klaustroetan sektore guztiak daude, egon, baina horietan ez da ezer asko erabakitzen. Formalismo hutsa dira eta benetan erabakitzen dutenak katedratikoak eta ingurukoak dira.

3.2.1.5. Barrutiaren egitura

Lehenik, Nafarroa Euskal Herriko Unibertsitateak kanpo dagoela salatu behar da. Euskal Herriko Unibertsitateaz hitzegiten hasteko, lehen baldintza bezala lurralde-batasun hori normaldu behar da, Iparraldea barne delarik.

Bigarrenik, barrutia eskualdeka sakabanaturik dago. Seguraski ez da posible Fakultate guztiak eskualde guztietan jartzea. Behar-bada ez da komeni ere. Hala ere, oraingo egoera honi egokitasunez erantzuteko, gutxienezko azpiegitura bat jarri behar da eskualde bakoitzean, hala nola: ikasleentzako etxebizitzak, bide materialak (bibliotekak, laborategiak, gelak, bulegoak, fotokopiagailuak, proiektagailuak, bulego-materiala, etab.) eta pertsona mailakoak (administrazio-pertsonala eta zerbitzuak eta irakaslegoarena).

3.2.2. L.R.U.ren ezarpena

«Ley de Reforma Universitaria» honek ez ditu Unibertsitatearen arazoak konpontzen. L.R.U.ren mugen barruan konponbiderik ez dagoela frogatzeko, zenbait puntu aztertuko dira.

Lehenik, *irakasleei* dagokienez, arazorik larriena hau da: irakasle izateko bide bakarra, funtzionari izatea dela eta kontratu laborala ukatzen zaiola.

Eta irakasle izateko, doktore izan behar da. Hori horrela, gaur egun Unibertsitatean dauden hainbat irakaslek ez du estabilitaterik. Lehen esan bezala, 1987rako irakasleak doktore-titulua izan eta oposizioa gainditu behar du. Horrela ez bada, kanpora.

Zentzu honetan, Euskal Herriko Unibertsitatearen egoera go-goemanik, gaurko irakasle ez-numerarioen egoera eta etorkizuna aski larriak dira. Hara zergatik:

Gaurko irakasleen arteko % 22 idoneitate-probetara aurkezteko gai izan da. Aurkezteko gai izan diren hainbat irakaslek ez dituela idoneitate-probak garaitu jakinik eta, bestalde, irakasle numerarioak (irakaslegoaren % 11,66) kendurik, gaurko irakasleetatik % 66,33 L.R.U.k planteatzen dituen bi irakasle-mota horietatik kanpo geratzen da. Azken hauen artean, % 3,7k doktore-titulua du eta % 62,7k ez du titulurik. Hau da, 1987. urtea baino lehen, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleetatik % 62,7k tesia egin eta oposizioa gainditu behar du.

Bigarrenik, Unibertsitatearen *nortasun juridikoari* dagokionez, L.R.U. legeak autonomia ukatzen du. Arrazoiak honako hauek dira:

— Lege hori Lege Organikoa da eta, alderdi horretatik begirata, esan liteke formalismo juridiko guztien gainetik, *de facto*, hura Euskal Estatutueta oinarriturik sor litezkeen arau eta legeen gainetik dagokeela. Orain arteko praxiak hala erakutsi du behintzat.

— Unibertsitateen Kontseiluaren kontrolaren pean dago Unibertsitatea. Eta Euskal Herriko Unibertsitatea, Kontseilu horretan, bat gehiago da Espainiako Estatuko beste gehiengoaren aurrean.

— Irakaslego propioa ukatzen da, denak funtzionari estatalak izango bait dira.

3.2.3. Euskal Herriko erakunde politikoak eta Unibertsitatea

Badakigu, jakin, Unibertsitatea multzo eta erakunde gisa, normalki komunitate politikoa deitzen den horretatik aparte dagoela, erakunde gisa aldatzeko inertzia handia daukala eta, oro har, bertako boterearen egitura sozio-politikoak gizartearena baino askoz egonkorragoa dela eta normalean gizartearenetik oso desberdina;

hala ere, erakunde politikoek eragin handia eduki dezakete eta eduki behar lukete Unibertsitatearen martxan.

Ikus dezagun, bada, gaur egunean bi erakunde-mota horien arteko harremana nolakoa den.

3.2.3.1. L.R.U.ren onarpena

Ukaezinezko datua da ezen gaur egungo sistema politiko konstituzionala onartzen duten talde politikoek L.R.U. legea ere onartzen dutela. Beharbada, Komunitate Autonomoaren kasuan, artikulatu batzuren aurkako errekurtsua aurkezturik, nolabaiteko oposizio simbolikoa azaldu nahi izan da, baina horrek ez du esan nahi, inola ere, legea onartzen ez denik. Esandakoaren frogarik zuzenena, L.R.U. lege hori ezarri ondoko praktika da, ez bait zaie inolako oztoporik jarri bertan adierazitako pausoei (adibidez, idoneitatei).

3.2.3.2. Euskal Gobernua eta Euskal Parlamentua

Behin eta berriro errepikatu da, Autonomi Estatutuaren 16. artikulua arabera, Komunitate Autonomoak konpetentziak izango dituela irakaskuntzaren arlo guztietan eta, beraz, baita Unibertsitatean ere, baina itxaron egin beharko dela transferentziak heldu arte. Bitartean, L.R.U. martxan dago eta, errekurtsuak gorabehera, zenbait puntutan kontraesana dagoenez, bada galdera bat oraindik argitu gabea, lehen ere aipatu dena: kontraesanen kasuan, zein da maila goragoko legea, L.R.U.rena ala Autonomi Estatutuaren transferentzien bidezkoarena? Argitu beharrekoa da puntu hau, zeren beharbada alferrik itxaroten bait gaude transferentziak.

Galdera horren zergatikoa 16. artikuluan bertan dago, honela bait dio: «Konstituzioaren lehen Erabaki Gehigarrian erabakitzen dena aplikatzeko, irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren konpetentzia pean dago, Konstituzioaren 27. artikulua eta bereziki zehaztuko duten Lege Organikoei, haren 140.1.30. artikulua Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta guztiori betetzeko eta bermatzeko behar den goi-inspezioari kalterik egiteke».

Beraz, oinarrizko galdera da, ea Euskal Gobernua eta Euskal Parlamentua L.R.U.ren gainetik ala azpitik egongo diren. Lehen ere esan dugu, orain arteko esperientzia laburrean oinarrituz, Lege Organikoak agintzen duela praxian.

3.2.3.3. Nafarroako Gobernu eta Parlamentua

Kasu honetan arazoa are larriagoa da, indar antiabertzaleen nagusigoa ezagutuz. Bestalde, lehen esan den bezala, Unibertsitatea Nafarroan oraingoz Zaragoza-ren barrutian dago eta horrek L.R.U.ren aplikazioa dakar zuzenean.

Bigarren faktorea Opus-en Unibertsitateak Nafarroan duen indarra eta boterea da, berorrek guztiz mugatzen bait du Unibertsitate Publikoaren sorrera. Arlo horretan UNED ere kontutan hartzekoa da.

3.2.3.4. Plangintzaren beharra

Esandako puntu guztiak batuz, plangintza politikoaren beharra azpimarratu beharko litzateke. Gaur egungo erakunde politikoek (eta alderdiek) zertzu asmo eta ahalmen dauzkaten ikusita, badaude oinarritzko puntu batzu, edozein plangintza unibertsitario plazaratzerakoan, oso gogoan hartzekoak.

— Politika unibertsitario horrek «autonomoa» izan behar luke gutxienez bi arlotan: Komunitate Autonomoari eta Nafarroari dagokienez, eta Unibertsitate izateari dagokionez.

— Horrekin batera, Euskal Herriko arazo bereziak eduki beharko lirateke kontutan eta, prezeski, arazo linguistikoa. Arazo linguistiko horrekin lotuta, irakaslego propioarena letorke eta, zehatzago, irakaslego hori prestatu beharrarena. Eta, zer esanik ez, arazo guztiak bideratzeko egitura berri eta bereziaren beharra, oraingoz ez bait dago hori egituratzeko moduko ahalbiderik.

3.2.4. Etorkizunerako oinarriak

Orain arte egoeraren eta baldintzen azterketara mugatu bagara, laugarren atal honetan lortu nahi dugun Unibertsitatearen abiapuntuez arituko gara, alternatiba gisa edo ager daitekeen Unibertsitateaz, epe labur eta ertainera eman beharko liratekeen pausoak gidatzeko.

3.2.4.1. Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko harremanak

Unibertsitatea ez da hutsean teknikari edo zientzilarien fabrika bat, baina neurri batean erantzun egin behar die gizartearen pre-

miei, garaian garaikoei eta etorkizunekoiei. Eta gizarte-unitatearen arabera eratua egon beharko du, zein *gizarte-motari* erantzun nahi dion argi zehaztuz. Gizarte-mota hori, lehenik eta behin, arazo geografikoa da eta gure kasuan ondo definitu behar da barrutiari dagokionez, lehenengo pauso batean Hego Euskal Herrirako barruti bakarraren eraketa bultzatuz. Halaber, gizarte-unitatea esatean, tamaina-arazo bat ere planteatzen da, gizarte edo populazioaren tamaina batetik eta Unibertsitatean diharduten ikasle-irakasleen kopurua bestetik. Tamainarekin harremanean, dibertsifikazioa dator. Zenbat eta zeintzu Fakultate eduki behar ditu gure Unibertsitateak? Hedapen geografikoa eta txokokeriak tartean direla, anizkoiztasun-fenomeno bat gertatzen ari da zenbait kasutan, beste Fakultate batzu falta diren bitartean. Dena dela, plangintza zehatza beharko da gizarte-mota honek dituen premia nagusiei ondoen erantzuteko.

Hasieran esan denez, beraz, gure gizarte-unitatea Euskal Herria da, eta horren arabera finkatu nahi dugu etorkizuneko Unibertsitatea, bertako premia sozial, historiko, ekonomiko eta linguistikoei erantzunez. Euskal gizartearen zerbitzura egongo den Unibertsitatea lortu nahi da.

3.2.4.2. Unibertsitate Publikoa

Irakaskuntzaren arloan, oro har, pribatutasunak gizartearen —ikasleen— kontrola esan nahi du, nagusiki kontrol ideologikoa. Zer esanik ez, arazoa areagotu egiten da Unibertsitate mailan. Berrez, ekonomikoki errentagarri ez den ekintza honi bestelako emaitzak eskatzen zaizkio eta horiek ideologikoki kontrolaturik dauden ikasle eta ikasle-ohien bidez lortzen dira, batez ere, ikasle-ohiak gizartearen egituraren botere-zentruetara heltzean. Ikusi besterik ez dago Unibertsitate Pribatuen eraginaren historia, azken urteotan nabarmenki ikusi ahal izan dena, bai Espainiako Estatuko politikan eta bai Hego Euskal Herriko erakunde politikoetan. Ez da ahantzi behar, bestalde, gure lurraldean bi Unibertsitate Pribatu indartsu daudela: Jesuitena Deustuan eta Opus-ena Iruñean.

Unibertsitate Pribatu horien interesak supranazionalak edo multinazionalak edo beste zerbait dira, baina ez, noski, euskal gizartearenak. Gizarte horren premiei erantzuteko irtenbide bakarra publikotasuna da, hau da, Unibertsitate publikoa, irekia, muga ideologikorik gabea eta kontrol publikoa duena. Oztopo ekonomikoak gainditzeko finantzaketa publikoz hornitua egongo da eta, egiturari dagokionez, zerbitzu publikoa izateko borondatea izan-

go du, horrela, hain aipatua den «aukera-berdintasuna» neurririk altuenean eskaintzeko. Horrek berekin dakar botere publikoak azpiegitura egokia prestatu beharra, garraio eta egoitzen arloan adibidez, are gehiago Unibertsitate honen «campus»aren egitura kontutan hartuz.

3.2.4.3. Gestio demokratikoa

Puntu hau publikotasunari loturik doa. Finantzaketa publikoa izanik eta Unibertsitatea bera ere publikoa izanik, ez da dudarik gestioan bertako sektore guztien partaidetza eskatu behar dela (ikasle, irakasle eta langile ez-irakasleen partaidetza, alegia) eta, halaber, gizartearen ordezkariarena. Gaur egungo egituraren ordea, eta zenbait ordezkari sinboliko kenduz, zuzendaritzako karguak katedratikoen eskuetan daude, horrela gestio-ahalmena sektore bakar bateko funtzionarioek soilik gordetzen dutelarik. Puntu honetan argi ikusten da oposizio-sistemak boterearen kontrolerako ematen duen giltza. Gainera, arazo hau ez da L.R.U.rekin konpontzen, lege hori bide beretik abiatzen bait da.

3.2.4.4. Ikerkuntzaren eta irakaskuntzaren arteko oreka

Gaur egun, Unibertsitatearen egituraren barnean, karrera dozentea egiteko orduan, irakaskuntzaren azpibalorazioa dago. «Curriculum» akademikorako ez da ia kontutan hartzen irakaste-lana eta, horrela, publikazioen gainbalorazioa gertatzen da, izugarrizko desoreka sortuz. Puntu hau argiago ikusi da L.R.U.ren aplikazioa dela eta, idoneitate-proben inguruan.

Etorkizunerako oinarrietan, ikerkuntzari dagokionez, zehaztu egin behar dira zenbait zutabe:

— Batetik, ikerkuntza-taldeen plangintza prestatu behar da, taldeek helburu amankomun batez lan egin dezaten eta ez, oraingo egoeran sarri gertatzen denez, tesi-arazo pertsonalak (legeak sortuak) gaintzeko aitzakia izatera baztertuz ikerkuntza. Oraingo tesien problematikak irtenbide desorganizatu eta deslotuak hartzeri behartzen ditu irakasleak, geroari begiratzeko plangintza batean ez dagoen ikerkuntza egitera.

— Bestetik, ahal den neurrian, inguruko gizarte-arazoei loturiko ikerkuntzari emango zaio lehentasuna.

— Azkenik, karrera akademikorako konpetibitate hutsala

gainditzeko, ikerlanen balorazio progresiboa egingo da, baina ikerkuntzako lan-projektuen barruko lanean finkatuz.

Dena dela, ikerkuntzari buruz esandakoak ez du irakaskuntza baztertzea adierazi nahi, zeren Unibertsitatearen helburu sozial nagusienetakoa, eta agian bere izaera gehien justifikatzen duena, irakasle-lana bait da. Gainera, Hego Euskal Herriaren kasuan, areagotu egiten da puntu honen garrantzia. Orain arte, hemen, Goimailako Irakaste-sistematik eduki ez dugunez, arreta eta plangintza berezia prestatu beharko da, irakasleen prestakuntzarako eta irakaskuntza sistema finkatzeko, horretarako zenbait arlo ahan-tzi gabe:

- Dauden irakasleen birziklapena
- Irakasle berrien prestaketa
- Hirugarren zikloaren benetako prestaketa

Eta zer esanik ez, kasu honetan ere ardura berezia jarri beharko da irakaslegoaren euskalduntze progresiboa bideratzerakoan, horretarako politika zehatza eramanez.

3.2.4.5. Unibertsitate autonomoa

Unibertsitatearen publikotasuna finkatu eta bertan helburuak eta kontrol publikoa ezarri ondoren, Unibertsitateak autonomia izan behar du bere eraketan, gutxienez ondoko puntuotan:

- Ikasketa-plangintzak prestatzeko
- Irakasleen kontratazioarako ahalmenarekin
 - Irakaslego propioa ezarriz
 - Funtzionarioei mugak ezarriz
- Gestiorako autonomian

Baina, Unibertsitateak gizarteko erakunde politikoetatik neurri batean autonomo izan beharraz gainera, Komunitateak berak ere bere autonomia beharko luke, gaur egungo Autonomi Estatutuko 16. artikulua arabera. Hala ere, oraingoz arlo horretan inolako pausorik eman ez den arren, zenbait puntu finkatu beharko lirateke gutxienez:

- Estatuaren funtzionari-egituratik autonomo izan beharko luke.
- Estatuaren L.R.U. legetik autonomo (nahiz eta hemen kompetentzien kontentziosoa izan).
- Fakultateak eraikitzeko eta politika unibertsitarioa erabakitzeko autonomia.

— Irakasle-sistema berria eraikitzeko autonomia.

Gutxienez arlo hauetan kompetentziarik ez badago, autonomia minimorik ez dagoela esan beharko da.

3.2.4.6. Unibertsitate euskalduna

Orain arteko puntuetan hainbat ezaugarri definitu dira, gehienak Unibertsitate eta publikotasun kontzeptuei lotuak, baina ezer gutxi esan da «Euskal» hitzari buruz, eta horixe da hemen adierazi nahi dena.

Gizarte-unitatea esatean, euskal herria, euskaraduna alegia, hartzen dela ardatz gisa azpimarratu nahi da, euskal nazioa osatzen eta finkatzen lagunduko duen Unibertsitatea lortu nahi delako. Horregatik, eta herri horren tamaina kontutan hartuz, lehenengo, osotasun geografikoaren premia daukagu, hasteko Hego Euskal Herrirako Unibertsitate-Barruti bakarra lortuz eta ondoren —edo batera— Iparraldearekiko harremanak landuz eta sendotuz.

Bigarren oinarria euskalduntasunarena da. Honetaz esan behar da, duela zenbait urte zegoen berotasuna nolabait moteldu egin dela eta berriro areagotu behar dela, Unibertsitateak eta, oro har, Irakaskuntzak ondorio biderkatzaileak eduki bait ditzake gizarte osoaren berreuskalduntzean. Arlo honetan ezin da geroko utzi euskararen normalkuntzarako plangintza bideratzea. Plangintza honek gutxienez atal hauek izango lituzke:

— Hizkuntzaren Estatutua, zeini esker euskaldunek euskaraz ikasteko eta Unibertsitatean lan egiteko dugun eskubidea babestu eta bideratuko bait litzateke.

— Euskarazko irakaskuntzarako lerroak jarri eta indartzea. Ez da ahantzi behar ikastoletako prozesuan irakaskuntza euskaldunean hezitakoak jadanik Unibertsitatera heltzen hasiak direla.

— Irakaslegoaren euskalduntze progresiboa:

- Irakasle euskaldunak kontratuz eta prestatuz, lerro euskaldunak posible izan daitezten.
- Dauden irakasle euskaldunak «birziklatuz» eta besteek euskalduntzeko aukerak emanez.

— Gauza bera irakasle ez diren beste langileei dagokienez.

Zer esanik ez, prozesu hori ez da ezerezetik sortzen, eta abiapuntu modura dagoen egoeratik jo beharko da, beti ere daukagun Unibertsitatea kontutan hartuz, baina, aldi berean, Euskal Unibertsitateranzko prozesuan pentsarazten dituten erakundeak eta taldeak aurrean edukiz, hala nola: UEU, Elhuyar, UZEI, Eusko Ikaskuntza, eta besteak. Ik. Dossierraren 2. partearen 1.2.2.

Euskal Unibertsitate horren ezaugarriak betezinezkoak gertatzeko zorian daude, eta ziurki hala gertatuko dira L.R.U.ren ondotik ematen ari diren pausoak zeharo desbideratzen ez badira behintzat, zeren L.R.U. honetan eskaintzen den ereduarekin Euskal Unibertsitateak ez bait du inolako etorkizunik.

Unibertsitateko ikasketaren plangintzak, Departamentuak, irakaskuntzako eta ikerkuntzako eremuak, guztiauek funtzionari-gorputzaren arabera eratzen dira. Funtzionari-gorputz horiek izan dute, eta dute egun ere, Unibertsitateko boterea, egiazko boterea. Eta funtzionari-karrera akademikoaren oztupoak batez ere Euskal Herriko irakasle-gaiezkat nolakoak diren ikusiz gero, esan dezakegu gaurko P.N.N.ek utziko duten hutsunea, 1987. urtetik aurrera hain zuzen, hein handi batean bederen kanpoko funtzionarioekin beteko dela. Hala eta guztiz ere, kanpoko hauen etorrera ez da, berez, kaltegarriena izango. Okerrena izango da, eta da, kanpoko hauen etorrera aitzakia gisa erabiliko dela, euskara Unibertsitateetik uxatzeko, horiekiko errespetua gorde beharko bait da. Euskararen unea ez da iritsi orain arte eta eredu horrekin ere ez da sekula iritsiko.

Unibertsitateko arduradunen ahotik maiz samar entzuten dira euskararen alde handikiro egindako baieztapenak. Unibertsitateko Estatutuetan ere euskararen «garrantzia» azpimarratu da kapitulu oso batean. Baina deklarazio guztioriek, dagoen egitura aldatzen ez den bitartean, gure Euskal Herriko gizarte mailan egin dena berregin besterik ez dute egingo, hots: euskal unibertsitatei beren protagonismoa kendu eta «Euskal Herriko Unibertsitatea» burokrazia ofizial baten eskuetan utzi. Noski, deus aldatu gabe. Lehen eta orain bezain espainola izanez segituko du.

3.2.5. UEU: Euskal Unibertsitatearen hasikinak

UEUk leku arras espezifikoak du Euskal Unibertsitatea euskaldunduz joateko prozesu honen barruan. Ideia horrekin sortu zen

1973ko irailean Donibane Lohitzunen. Hasiera batean, UEUk bere eginkizuna hitzaldiak emanez betetzen zuen gehienbat. Baina denboran zehar sailen inguruan mugitzen ziren irakasleak eta ikasleak beren autonomia handitzen hasten dira eta, beraz, sailkapena sendotu egiten da. Gaur egun 20 bat sail ditu eta bakoitza guztiz autonomoa da besteengandik. Sail bakoitzak bere arduraduna du, urtean zehar lanak antolatuz joan dadin.

UEU ez da Uztailean ematen diren 600 edo 650 klase-ordu bakarrik. Hori eta zerbait gehiago ere bada, hots: urtean zehar klase horiek emateko egin den lana ere kontutan hartu behar da. Azken batean, horixe da UEU gehien ezaugarritzen duen elementua. Zentzu honetan, Euskal Herriko Unibertsitatean euskaraz lantzen diren gaien luzapena da batipat. Zalantzarik gabe, UEUren helburu nagusia Unibertsitate Ofiziala euskalduntzea da eta hortik doa kezka lehena. Euskalduntze-prozesu honetan irakasleak prestatu behar dira, baina hauentzako materiala ere sortu behar da, gero ikasturte ofizialean zehar ikasleekin erabiltzeko. Ik. Dossierren 2. parteko 1.2.2.5.

UEU, bere hamaika urteko ibilaldiaren ondoren, goimailako irakaskuntzan errealitate egituratu bat da, goraka doan kultur indar bat, erakunde publikoen aldetik erantzun zehatza eskatzen duena. Hor daude errealitate honi dagozkion datuak: 1983ko uztailean 509 partaide, ikasle (445) eta irakasleen (64) artean, 75 liburutik gora argitaratuak 1978-82 epealdiaren barruan. Euskarazko Unibertsitatearen hazia jadanik erinia dago UEUn. Soro hori laguntza egokiz ongarritzea falta da bakarrik.

4. EUSKARA KOMUNIKABIDEETAN

Atal honen azalpena hiru zatitan banatua eskaintzen da, mass-medieez hitzegiterakoan egin ohi den sailkapena segituz. Honela, lehenik ikusentzuztekoak aztertuko dira, ondoren entzutezkoak eta, azkenik, irakurtzezkoak. Euskararen berreskuratzeari dago-kionez, haxe dugu zutabe nagusienetako bat, komunikabideak bait dira jenderik gehien ukitzen duten tresnak.

Noski, mass-medietan zuzenean edo zeharka sartzen diren kultur baliabide hauek ez diote era berean eragiten euskal gizarteari, nahiz eta guztiak garrantzitsuak izan. Garrantziaren aldetik lehenetasunik markatzen hasteko asmorik gabe, azpisail bakoitzaren egoera azaltzea da hemen lehen xedea.

4.1. Ikusentzutezkoak

Hitzak berak dioenez, sail honetan aldi berean ikus eta entzun daitezkeen kultur baliabideak dauzkagu, hots: batetik, sail honi zuzenean dagozkion Telebista eta Zinema eta, bestetik, mass-medi-en eremua albotikago ukitzen duen Antzerkia.

4.1.1. Euskal telebista

4.1.1.1. Telebista Euskal Herrian

Gaur egun, Euskal Herrian, hiru telebista-katea frantses eta bi espainol sintoniza ditzake bere etxean telebista-aparailu baten jabe den zenbaitek. Bost katea horietaz gain, ETB daukagu 1983ko urtarrilaz geroztik Hego Euskal Herriko hiru probintziek osaturiko Komunitate Autonomoan. Telebista espainolak zein frantsesak ez du euskara aintzakotzat hartu izan. Euskal Telebista (ETB) martxan jarri arte, euskarak ez du telebistan duintasunezko presentziarik izan.

Egia da saiotxoren bat edo beste izan dela han eta hemen. Horien artean aipatu beharrekoak dira *Euskalerrria* programa hura, geroztik J.M. Iriondok Telenorte-n egin zituen programak eta FR.3 frantsesak duela bost urte hasitako emanalditxoak. Ezer gutxi geratzen da gaur egun saiotxo haietatik.

Une honetan, FR.3 frantsesak Akitaniarako programazio bereziaren bidez zer edo zer ematen du euskaraz. Gauza bera esan dezakegu hain lurralde-esparru informatibo bitxia (Komunitate Autonomoa gehi Errioxa) duen Telenorte-z eta Nafarroarako soilik ematen duen Telenavarra-z. Hiru hauetatik euskaraz gutxien eskaintzen duena nafarra da, baina hiruron artean dagoen portzentai alde ia hutsala da, hirurak % 1,1 eta % 3,5 bitartean bait dabilta. Areago: telebista guzti horiek estatalak direnez eta botere zentralaren menpe daudenez, ezin espero daiteke horietan euskararen kopurua gehitzerik. Errebindikatzea, hala ere, eginkizun geratzen da.

Euskal Telebistari begiratu beharko diogu, bada, euskarak telebistan izan duen aurrerakada ikusteko. Ez dezagun ahantz, ordea, bost katea daudela Madrile eta Pariseren eskuetan eta esparru honetan Autonomi Estatutuak ez duela inolako transferentziarik eskaintzen TVERi atxekiriko bi katea espainoletan eta bi programa

erregionaletan eskua sartzeko. Ez dezagun ahanztz, ezta ere, gaur egungo marko juridikoan, Komunitate Autonomoaren marko juridikoan alegia, ezin dela ezer egin telebista hori euskaratzeko (ezta gureganatzeko ere).

4.1.1.2. ETB: Euskal Telebista

Euskal Telebista berria 1983ko lehen orduarekin batera sortu zen, 1982an Eusko Jaurlaritzak TVErekin haustea erabaki ondoren. Ramon Labaien kontseilariaren esanetara, Madrilek ez zuen hitza bete. Madrilek minikatea bat eskaintzen zuen. Bestela esanda: Madrilek ez zuen euskara sendotzeko borondaterik erakusten. TVEren sarea alde batera utzi eta telebista propio bat eraikitzea erabakitzen du Eusko Jaurlaritzak.

ETBren eta TVEren arteko harremanak ez dira inoiz samurrak izan. Gehiegi luzatu gabe, esan dezagun Eusko Jaurlaritzak Autonomi Estatutuaren 19. artikuluan eta 6. agindu iraunkorrean oinarritzen duela laugarren programa hau egiteko eskubidea. Beste muturretik, berriz, «legez kanpokotzat» dauka TVEk ETB, esanez estatuari dagozkiola bai eskumen esklusiboa, bai titulartasuna eta bai frekuentzien banaketa.

Puntu honetara helduz gero, esan dezagun ETB *laugarren kanala* dela, Autonomi Estatutuaz baliatuz eraikitakoa, alegia. *Hirugarren kanala*, «el canal de las autonomías» delakoa, ez da oraino martxan jarri Komunitate Autonomoan, nahiz eta horretarako behar diren legezko eskubide guztiak izan. Horregatik, 3. kanal hau martxan ez jartzearen erantzukizuna Eusko Jaurlaritzari zuzendu behar zaio zuzen-zuzenean.

Eusko Jaurlaritzaren *Euskararen politikarako oinarriak* liburuskari argi eta garbi esaten da: «Autonomi Elkartearen telebistarako bi kate egotea posible balitz, bata osoki euskalduna behar luke izan. Hori posible ez balitz, orain arte esandakoak balio du».

Gu ere horretan gaude. Katea bat oso-osorik euskalduna behar dugu, aldamenen beste katea elebidun bat izango dugun bitartean.

Dena dela, eta nahiz eta posible izan hori egitea, Eusko Jaurlaritzak ez du aurrera atera hori. Berak dauka erantzukizuna. Berari egotzi behar zaio euskaldunok telebista *erabat* euskalduna izateko daukagun eskubidea bete ez izana.

Bitartean, eta bi kateak martxan ez jartzeagatik, ETB 4. kanalaren gurutzatu dira bi kateetan bana zitezkeenak. Hau da, ETBn

gaztelania sartu da informatiboetan eta publizitatean, arrazoi politiko eta ekonomiko nahikoa argiei erantzunez. Telebista bezalako tresna bat bere esku daukan gobernu batek, ez da harritzekoa tresna hori politikoki erabili nahi izatea. Ez da harritzekoa Eusko Jaurlaritzan une honetan dagoen alderdiak ETB erabili nahi izatea eta informatiboetan gaztelania ere sartzea. Ez da inor harritzen PSOEek TVErekin eta horren barruan Telenorte eta Telenavarra direlakoan bidez egiten duen erabilera politikoaz.

Arazoa, ordea, beste bat da. Politikoki, ikuspegi abertzale baretik begiratuta, bi kateak martxan edukitzea izango litzateke errentagarriena: katea bat gehienbat gaztelaniaz, kanpokoentzat eta bertako euskaragabeentzat, eta beste katea bat euskara hutsean euskaradunentzat.

Katea elebidun edo diglosiko horren egitekoa TVEri konkurrentzia egitea eta bezeria kentzea izango litzateke, euskara piskanaka sartuz eta herritarrengan euskararekiko joera positiboa sortuz, gero euskara hutsezko telebistara pasatzeko moduan izan daitezzen.

Hau da Eusko Jaurlaritzak egin beharko lukeen *minimoa*, eta ez da oraindik hasi.

4.1.1.3. Telebista «normal» bat

Telebista bat eskuartearen edukita, berorren erabilera posible desberdinen artean hautatuak emango dio nortasuna telebista horri. Aipa ditzagun hizkuntzarekiko erabilera posible batzu:

— Euskal Telebista euskararen erreproduktzioerako erreminta gisa erabiltzea, hau da, euskaraz irakasteko/ikasteko. Bestela esanda: ETB berdin Euskaltegi.

— Euskal Telebista hezkuntza sistemaren tresna gisa ulertzea, eskolarako, hezkuntzarako. Hau da: ETB berdin Ikastola.

— Euskal Telebistan euskara zenbait albo-eginkizunetarako gordetzea, adibidez: kulturarako, folklorerako, euskal gaietarako, herri-kiroletarako.

— Euskal Telebistan euskara hizkuntza arrunt gisa erabiltzea, bai informazioan, bai kulturean eta bai gainerako eginkizunetan. Komunikazio-hizkuntza modernotzat hartzea euskara, Frantziako telebistetan frantsesa eta espainoletan espainola bezala.

Azken bide honetatik jo du ETBk eta benetan garrantzizkoa da euskarari ETBn eginkizun funtzional moderno hau aitortzea. Fun-

tzionatuz erakusten du euskara funtzionala dela, baliagarria eta bizia.

Laugarren bide horretatik jo du, baina ez du inola ere betetzen. Funtzionaltasun horren irudi onaren kontra doaz zuzen-zuzen gaztelaniazko informatiboak, gaztelaniazko publizitateak eta gaztelaniazko azpituak. Horiek dira telebista piztu bezain laster telebista «normal» baten aurrean ez gaudela erakusten digutenak.

Eusko Jaurlaritzaren *Euskararen politikarako oinarriak* liburuskara aipatuan euskarara itzulaldatutako filmeen garrantzia azpimarratzen da, telebistan euskaraz hitzeginez aterako diren pertsonaia eta pertsonaia handien garrantzia bezalaxe. Honela dio: «Bide berdinetik jarraituz, haurrentzako, gaztetxoentzako eta gazteen-entzako programak dira lehendabizi euskaldundu beharrekoak». Horrez gain, badio, halaber, bost ordutako programazioaz kanpo Alfabetatze- eta Euskalduntze-lanetarako erabil litekeela. Eta telebista «normal» bat izatea bezain garrantzitsua da euskararen egoera «anormal» honetan telebista Euskalduntze- eta Alfabetatze-lanetarako ere erabiltzea. Konplexurik gabe, gainera. Telebista «normalagoak» izango dira beti Espainiako bi kateak eta Frantziako beste hirurak eta, zentzu honetan, ETBren eguneroko 5 ordu horiek apenas neurtu ahal izango duten beren burua beste bost katea horien ordu guztiekin.

4.1.1.4. Telebista txiki bat

«Euskaraz bizi»tzea helburutzat daukagunontzat ez da aski inola ere gaur egun eskaintzen zaiguna. Are gutxiago, Euskal Herria euskalduntzea helburutzat jartzen badugu.

Euskararen Erabilkera Arauzkotzeko Oinarrizko Legea-n esaten da Eusko Jaurlaritzak bere neurriak hartuko dituela komunikabideetan euskararen erabilera kopuruaren aldetik gehituz joan dadin. Ondoren hauxe dio: «El Gobierno impulsará la normalización lingüística en los centros emisores de RTVE a fin de asegurar una adecuada presencia del euskara como lengua propia del País Vasco». Nork ikusi du, ordea, RTVEen euskararen gehitze bat? Telenorten eta Telenavarran, esan dugu zein neurritan erabiltzen den euskara.

Alde honetatik ez da ezer egin, eta zinez telebistaren 3. eta 4. kateak edukitzea bezain garrantzitsua da hori. Gaurko lege-egoean, ordea, ezinezkoa zaio Eusko Jaurlaritzari ente estatal horietan eskurik sartzeta eta ETBekin konformatu beharra dauka.

Amaitu aurretik, esan ditzagun bi hitz ETBren oihartzunari buruz. Lau sondaketa dauzkagu eskuartearen ETBren audientzia neurtzeko eginak: bata ETBren enkarguz *Tecnimedia* enpresak egindakoa, zeinak % 21eko entzulegoa ematen bait dio, 300.000 lagunekin; bigarrena *Estudio General de Medios* delakoak egindakoa da eta honek % 14,1ekoa ematen dio, 200.000 ikuslerekkin; hirugarrena, CIES etxeak egindakoa, 220.000 lagunekin, % 14,7ko portzentaia aurreratzen duena; azkenik, *Gallup* Institutuak (1984) egindako inkestaren arabera, 15 urtetik gorakoen artean % 20,8k ikusten du ETB eta 15 urtetik beherakoen artean, berriz, % 51,3k.

Jende askok zifra horiek altu samarrak direla, eta ETBk hasieran izandako «boom»ari erantzuten diotela pentsatzen du.

4.1.2. Euskal zinema

Zinemagintzan hiru alderdi aztertu behar dira aparte: ekoizpe-
na, banaketa eta erakusketa.

4.1.2.1. Ekoizleak

Hamalau bat ekoizle edo produkziogile daude Euskal Herrian, eta esan liteke hogeiren bat lagun bizi direla zinematik, gehiago agian.

Ekoizle hauek *Euskal Herriko Zinema Ekoizleen Elkarte*a ize-
neko batasunean daude bilduta. Elkarte hau eskubide ekonomiko-
ak babesteko pentsatua da eta, beraz, Komunitate Autonomoare-
kin ditu zereginik handienak. Nafarroa ez da guztiz kanpoan gel-
ditzen estatutuetan, baina Nafarroan ekoizlerik ez dagoenez...

Elkarte honen helburuak ez bait dira kulturalak, euskararen
arazoa ez da ezertarako aintzat hartzen.

Hego Euskal Herriko ekoizleak bi laguntza-mota jasotzen di-
tu, biak elkarren osagarriak:

Lehenik, Kultur Ministraritzak Zinematografiako Zuzendari-
tza Orokorraren bidez ematen dituen laguntzak daude. Aurrekon-
tuaren ehuneko 50eraino irits liteke, baremo hauen arabera: gi-
doiaren kalitatea, esperimentalta izatea, haur-filmea izatea, zuzen-
dari berria izatea (oraindik bi luzemetraia zuzendu gabea izatea,
alegia).

Bigarrenik, Eusko Jaurlaritzaren aldetik, ehuneko 25 jasotzen da, horretarako izendatua dagoen batzordearen baimena edo oneritzia lortuz gero. Baldintza hauek bete behar dira:

- Teknikariak, ahal den neurrian, bertakoak izatea.
- Kanpoaldeak edo paisajeak Euskal Herrian filmatuak izatea.
- Filmearen kopia bat euskaraz ematea.
- Euskarazko bertsio hori Komunitate Autonomoko hiru hiriburuetan estreinatzea.
- Ekoizlea Komunitate Autonomoan finkatua egotea.

Laguntza hauek kontutan hartuta, Komunitate Autonomoa pribilegiozko lekua da zinema egiteko eta, halatan, Estatuko zenbait zuzendari eta ekoizle hona datoz, hala nola: Eloy de la Iglesia, Pedro Olea, Elias Querejeta, etab.

Etorkin hauek ez datoz beren profesionaltasuna erakustera edo bertako azpiegitura sendotzera, Euskal Herria paisaje eta gai bezala esplotatzera baizik, laguntza ekonomikoak hartuz.

Eusko Jaurlaritzaren orain arteko politikarekin berdin laguntzen da «bodrio» bat (baldin minimo bat lortzen badu) eta berdin gidoi interesgarri bat. Ez, ordea, Madrilako politikarekin, han faktore kultural eta partikularrak (zuzendaria *novel* izatea eta) oso kontutan hartzen bait dira.

Ekoizlea kopia bat euskaraz egitera behartua dago Eusko Jaurlaritzaren laguntza jasotzeko. Ondorioz:

— Filmeak gaztelaniaz egiten dira, gero kopia bat euskaratzeko.

— Zuzendariak eta ekoizleak ez dira arduratzen beste diziplina batzutan (adibidez, prentsan eta) bezala euskararen portzentaiak, kopia oso bat bait dute euskaraz.

— Esan liteke, kopia hori egin beharrik ez balego, euskara gehiago agertuko litzatekeela gaztelaniazko bertsioetan, ondo gelditzeko % 20 hori bai bederen.

— Euskara hutsezko kopia horrek libratu egiten ditu zinegiak euskararen arazoak arduratzen eta, honela, jatorrizko bertsioa gaztelaniaz egiten delarik, ez da euskal dramaturgia zinematografikorik sortzen.

— Azken puntu hau kontuz erabiltzekoa da, zeren filosofi eta estilo-kontutan sartuko bait ginateke. Dena dela, oraingoz bede-

ren, zineman bikoizketa edo doblajea daukagu, zinemagile gutxi egiten bait du lan hemen soinu zuzenekoaz baliatuz.

4.1.2.2. Banatzaileak

Banatzaileak dira filme bat komertzializatzen edo merkaturatzen dutenak. Enpresa pribatuak dira eta helburu soilki ekonomikoak dituzte gidarizat.

Horiek dira lehenengo arazoak jartzen dituztenak, euskarazko filme bat (ez da gertatu oraindik) edota euskaraz portzentaia garai samarra duena zabaltzeko.

4.1.2.3. Erakusleak

Banatzaileak, bestalde, erabat loturik agertzen dira erakusleen eritziei. Horiek esaten dute «filme honek funtzionatzen du» eta «denbora gehiago edo gutxiago egon behar du pantailan». Horiek dira esaten dutenak euskarazko bertsiok ez direla errentagarriak.

Zer gertatzen da, ordea, Eusko Jaurlaritzari agindutako euskarazko kopia horrekin? Lehen esan denez, Eusko Jaurlaritzaren arabera, nahikoa da hiru hiriburuetan estreinatzea, hau da, emanaldi bana eskaintzea, eta ez derrigorrez, kontuz hemen!, saio ordainduan. Esan nahi bait da, izan litekeela pase bat Aurrezki Kutxaren bateko aretoan, adibidez, gratis emanda.

Eta filmeak ikusteko egiten dira. Erakusleek eta zinema-nagusiek esaten dute euskara ez dela errentagarria; baina hori ezin da frogatu, ez bait da euskara hutsezko filmerik eskaini inon.

Gauzak horrela, ia-ia alferrikakoa gertatzen da, beraz, euskarazko kopia hori egitea ere.

4.1.2.4. Zinemaldi ugari eta industriarik ez

Euskal Herrian, bestalde, garrantzi handiko zinemaldiak daukagu: Donostiakoa, Bilbokoa, Zestoa eta Lekeitioko lehiaketak, eta orain Gasteizen sortu-berria den amateurrentzakoa.

Topaketa ugari luzemetraia nahiz laburmetraiak zabaltzeko. Kontuz, ordea: Eusko Jaurlaritzaren laguntza bezala, gehiago daude zuzenduta «zinemagintza» laguntzera, «euskal zinemagintza» laguntzera baino.

Panorama guztionek erakusten du diru-mordo bat ari dela gas-tatzen benetako politika zinematografikorik gabe. Inolako eredu eta erizpiderik gabe, alegia.

Badago beste errealitate bat ere herrietan zehar zabaldurik da-goena, zine-klubena alegia. Hauek bide bat izan daitezke euskal filmeen erakusketa errazteko (baina ez dira aski inondik ere).

Beste puntu bat ere badago oraindik inork planteatu ere ez duena: filme komertzialak bikoiztu eta, besterik ez bada, euskal zonaldeetan banatzea. Ekoizpena lantzeko bezain interesgarriak izango lirateke laguntzak arlo honetan, bikoizketa-zentruak la-gunduz eta erakusketak lagunduz.

4.1.3. Euskal antzerkia

Euskal edota euskaraz egiten den antzerkiaren egoera aztertze-rakoan, historian zehar antzerkigintza horrek eramán duen bilaka-bidea ezagutzea onuragarri izan daiteke, batipat gaur egungoa ho-beki ulertzeko eta antzerkigintza horren ahalmen kamustuak begi-bistan jartzeko.

4.1.3.1. Historia, pintzelada laburretan

Euskal Herrian egin den antzerki edota parateatro deitu dena-ren alorra guztiz aberatsa agertzen zaigu, batez ere gaur egungoa-rekin konparatuz gero. Irudipen-maila soilean besterik ez bada ere, Xaribari, Pastoral, Tragikomedia, etab. asko aztertu dira, bai-na ez, noski, azter zitezkeen bezainbestean. Lehen begirada ba-tenan, euskal antzerkia aberatsa agertzen zaigu, eta kanpoko antzer-kilari eta antzerkizaleek ere hainbatetan goraiatu izan dute dau-kagun abantaila hori; oso euskalduna den bertsogintzarekin batera emango lituzkeen emaitzak aipatuz, gainera.

Baina egia latza, bestea da. Euskal antzerkigintzak ez du tradi-zio zurrunik, tradizio hori Euskal Herriaren egoera politiko eta kulturalak jasandako erasoak minatua izan bait da hainbatetan. Historian aurrera goazen heinean, zaila gertatzen zaigu euskal an-tzerkigintzaren aztarnak aurkitzea (horrek antzerkigintza hori ez dela egon esan nahi ez badu ere).

Barrutia, Munibe, eta ezer gutxi, obra bakan batzu, XIX. men-dearen amaiera aldera iristen garen arte. XIX. mendearen amaiera eta XX. mende honen hasierako parte hori da antzerkiaz daturik

gehien eskaintzen digun garaia, aberatsa bezala agertzen zaiguna. Eta garai hartako bilakabidea ere gerrak moztu zuen.

Harez gero euskaraz egiten den antzerkia modernotasunaren eta tradizioaren artean zabuka ibili da, bi iturri desberdin horietatik edanez. Arestiren bultzada garrantzitsua, «Jarrai» taldearen lana, «Intxixu» taldearena, Iparraldean Larzabal eta Monzonen antzerki-lanak, guzti hauek hor daude. Gerra ostean, eta garai hurbi-lagotan areago, euskaraz egiten den antzerkiak bizirik dirauelako seinaleak ugari dira. Baina tradizioa falta zaio antzerkigintzari, gutxi dira urtean zehar antzerkigintzari emanda daudenak, eta horrela antzerkigintza hori beti gazte mantendu izan da. Horrek dituen abantaila eta alde txar guztiekin.

4.1.3.2. Azpiegituraren eskasia

Gaur egun, teatroak mundu osoan bizi duen krisia ezin ahan-tziz, baina piska bat alde batera utziz, euskaraz espezifikoki egiten den antzerkiak duen arazorik larriena azpiegiturarena da. Hau da: antzerkia ikuslegotik bizi den espresio kulturala denez, antzerki horrek ez du, beste kultur espresio batzuk jadanik, modu urrian bada ere, lortu duten «ikuslego»rik edota aiduru duen jenderik. Antzerkiak ez du ohitura bizkorrik sortu euskal gizartean (Iparraldean Hegoaldean baino gehiago, hala ere). Eta horren arrazoia beste zenbait arazoren irtenbidea izango litzatekeen hitz batek ematen du: profesionalizatzeak, alegia. Gaur egun euskal antzerkia amateurra da, zaletua, zaletasun handikoa. Baina belaunaldiz-belaunaldi berriztatzen den antzerkigintza da gurea, bestetarako biderik ez delako egon orain arte, eta egin diren saioak beti itzali egin direlako azkenean.

Ia hogeitamarrera iristen dira gaur egun euskarazko obrak ematen dituzten taldeak. Horietatik hogeik soilik euskaraz egiten dute antzerkia. Eta hamabost dira *Euskal Antzerki taldeen Biltzarrea*-n sartuta daudenak.

Bestalde, euskaraz egiten den antzerkigintzak bi talde besterik ez ditu profesionalki dihardutenak. Eta profesionalki iharduteak antzerkiari denbora gehiena ematea ekartzen du ondorioz, hau da, antzerkiari bizitasun handiagoa ematea. Beraz, eta alde honetatik bakarrik begiratuta, bizitasun gutxi erakusten du euskarazko antzerkiak.

Antzerkilariak, zuzendariak, idazleak, jantziteriaz, apaindurez, eszenografiaraz, giaz arduratuko liratekeen jendeak falta dira. An-

tzerki-aretoak ere falta dira. Antzerki-emanaldiak apailatuko dituen jendez ere urri dabil antzerkia.

Euskarazko antzerkiak bi topaleku izan ditu 1984. urtean: Azpeitiko Topaketa eta Hazparneko Galarrotsak. Baina Euskal Herrian antolatzen diren bestelako topaketa eta antzerki-jaialdietan (Gasteiz, Baiona, Santurtzin eta) zaila gertatzen zaio sarrera euskarazko antzerkiari. Kasu batzutan lehen aipatutako amateur-jiteagatik, baina beste askotan, euskarazko antzerkia alboratua bizi delako, ohizko zirkuluetatik kanpo, propagandarik ezaz, leku eta antzoki jakin batzutara mugatua.

Hegoaldeko hiriburuak itxiak daude euskal antzerkiarentzat une hauetan, lehen aipatutako egun jakinetan izan ezik (Donostian, adibidez, San Sebastian egunean eta Santomasetan). Bilbon funtzionatzen duen antzerki egonkorrean ez du sarrerarik izan, Gasteizen ere ez, Iruñean zer esanik ez. Iparraldean bere tradizio-maila eta eraketa hobetuz doaz, baina bertako hiri nagusietan (Miarritze, Baionan eta) azaltzeko oraindik ahalbide gutxi daukate. Hor dago lekuko gisa Baionan berriki egin topaketa, euskarazko emanaldirik izan ez duena.

Bestelako arazoa da Iparraldetik Hegoaldera eta alderantzizko zirkuitoak dakarrena. Ahaleginak ahalegin, zaila da korrante hori bideratzea, baina Ipar eta Hegoaldeko euskal talde gehienak EATBn daudenez, harreman on eta itxaropenez ari dira lanean.

Udaldean, hiriburuetan «antzerki-denboraldia» hasten denean, hegoaldera Madrileko konpainiak etortzean, areagotu egiten da bazterketa hori. Eta, oraingoz bederen, ez du inork ezer egin horren kontra. Eskabideak EATBk bakarrik egin ditu, ez udaldeko arazo horri lotuz konkretuki, baina bai antzerki-zirkuito egonkor nazionala osatzearen alde.

4.1.3.3. Euskarazko antzerkiaren alde egiten dena

Badaude bi erakunde ofizial antzerkiaren alde zerbait egiteko moduan: Komunitate Autonomoan *Antzerki*, eta Iparraldean Baionako *Zentru Kulturala*. Nafarroako kasua lazgarria da.

Lehenengoak ez du oraingoz antzerki independente euskaldunik bultzatzeko borondate gehiegirik azaldu. EATBk egindako proposamenek ez dute behar adinako erantzunik izan.

Bigarrenari buruz ezer gutxi esan daiteke, hastapeneko esperantza edukitzeaz gain. Nafarroako erakunde ofizialak oraindik

ezezagunak ditugu euskal antzerki-alorrean, baina EATB eta Ikastolen laguntzen bidez zerbait lantzen ari da.

Euskal herrialde guztiak bere baitan hartzen dituen erakunde bakarra dugu EATB, bokazioz eta ekintzaz. Hor dago Iparraldeko EATB, hor dago Hegoaldeko EATB. Burutzen diren ekintzak, ikastaroak, topaketak eta zirkuitoak dira gehienbat. Azken hauek eratzean, Jaurlaritzaren laguntza eskergarria izan da Nafarroan eta Iparraldean. Baita ere, azpimarratzekoa da, Gipuzkoako Foru Diputazioarekin bat eginik herrialde honetan lau hilabetez 80 emaldi inguru lortzea.

Hau horrela, EATBk Jaurlaritzari eginiko zirkuito nazional bat eraikitzeko proposamenak erantzunik ez badu ere, aipatu direnak egitea, EATBk beharrezkotzat jotzen du eta aurrera atera nahian saiatzen den asmo bikainaren hasiera da.

4.2. Entzutezkoak

Sail honetan, hitzaren zentzu hertsian, bat bakarrik dugu aipatzekoa: irratia. Baina aurreko sailean Antzerkia sartu dugun bezala, hemen Bertsolaritza sartu behar dugu, euskal kulturari hain errotua denez, eta euskararen normalkuntzarako garrantzi bereziko kultur sektorea denez, literaturaren barruan.

4.2.1. Irratiak Euskal Herrian

Irudiaren aroan bizi gara. Komunikabideen alorrean telebista dugu mediorik indartsuena. Hau erraz frogatu daiteke, publizitateak medio horri dedikatzen dion diru-kopuruari begirada soil bat emanaz. Badirudi, beraz, telebistak eta beste ikusentzutezko komunikabideek gogorki aurreratzen duten heinean, beste komunikabideak, irratia eta prentsa idatzia alegia, atzerantz ez badoaz, hondoa jota gelditu direla.

Baina gauzak ez dira hain zuzenak. Azaleko itxurak alde batera utziz gero, beste ondorio batzua atera daitezke, irratiei dagokienez behinik behin. Irratia dugu oraingoz, duda-izpirik gabe, komunikabiderik zuzenena eta merkeena —bai igorlearentzat eta bai entzulearentzat—. Ez dezagun ahantz, gainera, informazioa azkarren emateaz gain, entzulearen ekintza askorekin konpatiblea dela, ez

du derrigor atentzio osoa eskatzen. Entzule askori laguntza egiten dio, lanean, jolasean... eta ia lo dagoenean ere bai, iratzargailu-irratien bitartez. Halaber, beste datu interesgarri bat aipatu behar dugu: hiru probintzia autonomikoetan azken urteetan egunkariak (*Tribuna Vasca*, *Hoja del Lunes*, *Norte-express*, *Pensamiento Navarro*, *La Voz de España* eta *Hierro*) itxi beharrean aurkitu diren bitartean, zenbait emisora berri sortu da, bai ofizialak eta bai libreak.

4.2.1.1. Historia hurbila

Siadecok 1979.ean Euskaltzaindiaren eraginez egin eta argitaratu ikerketan, irratigintzari buruzko azterketa esanguratsua eskaintzen digu. Lehenengo eta behin, euskarak irratietan izan duen garapenez hiru fase bereizten ditu:

1. fasea: *Folklore eta baserriar maila*

60. urtean, Arrate, Segura eta pixka bat beranduago Tolosako Parroki Irratia Gipuzkoan. Mezak, baserriarrentzako programak, musika folklorikoa, disko dedikatuak... ziren nagusi urte haietako euskarazko programetan.

60.etik aurrera, Loiola, Donostia eta Bilboko Herri Irratiak, hirurak Elizarenak. Baina, 1964ean Fraga Iribarnek Informazio eta Turismoko Ministraritzatik eta saturazioa aitzakiatzat hartuta, probintzia bakoitzari hiru emisora utzi zizkion.

2. fasea: *Maila diglosikoa*

Fase honi dagokionez, Loiolako Herri Irratiak eginiko hamar urteek adierazten digute ongien euskarak irratian dituen posibilitateak. Fase honetan, euskara, hain kaltegarria izan zaion (eta botereari hain mesedegarria izan zaion) baserri-girotik atera eta gizarte moderno batera moldatzen hasi zen. Profesionalen aldetik, hizketako egokitasunean, ahotsean eta kultur prestakuntzan hutsuneak nabaritzen dira.

Laburtuz, euskara katakunbetatik irten da, baina oraindik oztopo teknikoak eta bestelakoak asko dira eta egoera guztiz diglosikoa da: hots, publizitate guztia gaztelaniaz ematen da, baita audientzia handiko programak ere: musikalak, kirolak, programa informatiboak.

3. fasea: *Elebitasunaren maila*

Fase honetan, programak euskaraz behar bezala egiteko medio

teknikoak lortzen dira, profesionalak ongi prestatuak daude, bai teknikaz, bai hizkuntzaz. Halere, hau ez da nahikoa: ez da aski euskaraz mintzatzea, eta ongi egitea ere ez; programak ongi prestatzeko gai izan behar dute profesionalak. Gauzak honela, euskarak beste edozein hizkuntzak dituen oztopoak izango lituzke: entzulegoa eta enpresaren gogo eta ahalmen ekonomikoak alegia.

Fase honetan «24 orduak euskaraz» egin zen, 1976ko Martxoaren 27an. Esperientzia honek eginiko bidearen froga bat zen eta etorkizunerako helburuaren adierazgarria ere bai. Donostia, Loiola eta Bilbo Herri Irratikoek hartu zuten parte ekintza honetan.

4.2.1.2. Gaur egungo egoera

Jarraiko taula honetan daude Komunitate Autonomoko irrati-katea garrantzitsuenak, entzule-kopuruaren arabera, euskararen presentzia ordutan emanda.

1.SER-Bilbo OM.	290.000	24	—
2.RNE-Bilbo OM.	121.600	24	—
3.SER-Bilbo FM.	109.800	24	—
4.RNE-Donostia OM.	104.300	24	—
5.COPE-Bilbo OM Herri Irr.	85.200	19	4,5
6.SER-Donostia OM.	68.800	24	— (tarteka minutu gutxi batzu)
7.SER-Donostia FM.	60.600	18	0,5
8.COPE-Loiola FM. Herri Irr.	57.400	17	10
9.COPE-Bilbo FM. Herri Irr.	55.900	19	4,5
10.Vitoria-Gasteiz OM/FM.	52.500	18	1 fijo. Tarteka zerbait.
11.Euskadi Donostia FM.	44.900	16	16
12.COPE-Donostia OM.	43.300	18	7
13.RNE-3 Madrid FM.	33.500	24	—
14.Eusko Irratia. Bilbo FM.	30.000	18	2
15.RCE-Bilbo OM.	27.100	24	—
16.RCE-Gasteiz OM.	25.700	18	— Tarteka pixka bat.
17.Segura FM.	24.900	14	7
18.RCE-Donostia.	14.600	21	2
19.COPE-Donostia FM.	14.600	18	7
Denetara	1.023.900		

Iturria: CIES enpresak Komunitate Autonomoko zenbait komunikabide-enpresarentzat egindako lanetik.

Irrati-katea horiei, Nafarroako *Radio Popular de Pamplona* (COPE), *Radio* (SER), *RNE en Pamplona*, *Radio Cadena Tudela* (RCE), *Radio Tafalla*, *La Voz de Navarra* (RCE), Iparraldeko

Radio Adour, Gure Irratia, Irulegi Irratia, Radio France Pays Basque eta *Zuberoako Boza* gehitu behar zaizkie.

Hogeitamar irratitik gora daude une honetan Euskal Herrian. Irrati libreak, berriz, hogeitik gora izango dira.

Jabegoari begira hasten bagara, berriz, berehala ikusiko dugu «bertako» irradi oso gutxi ditugula. *Radio Cadena Española* (RCE) eta *Radio Nacional de España* (RNE) RTVE erakundearenak dira. Madrileren esku daude erabat eta programazioa bera ere maila handi batean Madrileren egindakoa da. Ordu batzu besterik ez dituzte emititzen hemengo «sukurtsal»-etatik eta euskarak ez du tokirik inondik inora (zenbait minutu sinboliko kontaktzen ez bada behintzat).

Cadena de Ondas Populares Españolas (COPE) irradi-katea pribatua da, Elizak zuzentzen duena. Moldez aurrekoen antzekoak izan arren, Donostia eta Loiolako *Herri Irrati*-ek zabalagoak, gertuagoak eta euskarari irekiagoak izaten jakin dute. SER ere beste irradi-katea pribatua da, Espainiako estatu osorako aritzen dena, eta RCE eta RNEri buruz esandakoetatik ateratzen ez dena.

Gure Irratia eta *Irulegi Irratia*-ren kasua kenduta, Ipar Euskal Herrian ere Hego Euskal Herriko eskema berbera aplikatzen dela esan ezinik ez dago, bai irradi estatal edo pribatuetan bai horien sukurtsaletan.

4.2.1.3. Irratiak eta euskarazko emanaldiak

Emanaldi-orduen eta euskarazko orduen arteko proportzioari gagozkiola, 382 orduko emanaldia eskaintzen dute hiru probintzia autonomikoetako 19 irratiek egun bakoitzeko. Horietatik 61 ordu besterik ez dira euskaraz ematen direnak. Hau da: zazpitik bat besterik ez direla hauek. Nafarroan zenbait minutu baizik ez dira eskaintzen euskaraz astean zehar. Iparraldean gehixeago. Datu hauek sartuta, esandako proportzioa, zazpitik bat euskaraz alegia, behera joango litzateke.

Baina datuen artean zera nabaritzen da: entzule gehien duten lau irradi-kateetan euskara ez dela agertu ere egiten. Eta lau irradi hauen artean 626.300 entzule dituzte, entzulego osoaren erdia baino gehiago alegia.

Eta entzule euskaldunik ez da falta. Ikus, bestela, *Euskadi Irratia* (euskaraz) eta *Radio Euskadi* (gaztelaniaz) taula horretan: ha-

mabost mila entzule gehiago ditu euskarazkoak erdarazkoak baino.

Euskara hutsez, berriz, Iparraldeko *Gure Irratia* (11 ordu egunean) eta *Irulegi Irratia* eta Donostiako *Euskadi Irratia* (17 ordu) besterik ez ditugu. Zer dira horiek beste 33 irratiaren ondoan? *Euskadi Irratia*-k dituen 45.000 entzule horiek zer dira Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban dauden 1.023.900 entzuleren ondoan?

Begira ditzagun gauzak diren bezala. Egia da euskara hutsezko hiru irrati baditugula. Ez gaitezen hor geldi, ordea. Begira ditzagun alboko beste guztiak, bestela gure uhin euskaldun horri begira beste uhin guztiak janda gertatzeko arriskuan izango gara eta.

Irratiekin, telebistekin ailegatutako puntura iristen gara: esaten da bultzatu egin behar direla euskara zabaltzeko, oso beharrezkoak direla, hor erasan beharra dagoela, eta horrelakoak. Eta egin, egiten dira zenbait gauza ere. Hor dago *Euskadi Irratia* euskaraz eta hor *Radio Euskadi* gaztelaniaz. Biak EITBren pean. Zer dira horiek beste guztien artean? Zer dira horiek, gehien entzuten direnak SER, COPE eta RNE baldin badira?

Oso gutxi. Eta okerrena, oraingo legeriarekin ezinezkoa dela irrati entzute handiko horietan esku sartzea, zeren Madrile, Parise edota etxe pribatuaren eskuetan bait daude. Eta hauen esku dauden bitartean, jai dago, bai politikaren aldetik bai euskararen aldetik. Estatutuak ezin du hor ezer egin, ezta horren ondorioz eman diren euskarari buruzko arauak ere. Hor, gehienez ere, egitea dagoena da zenbait programa, ordu batzu erosi, euskaraz eman dezaten. Gipuzkoako Diputazioak egin zituen horrelako batzu Donostiako SER, RCE eta COPE irratiarekin. Saio garestiak eta emaitza urrikoak gertatu ziren.

4.2.1.4. Irrati librearen esperantza

Irrati libreak hedatuz doaz, bestalde, Euskal Herri osoan zehar. Normalean herri bakar baterako edota auzo baterako egindako irrati txikiak dira. Merkeak eraikitzeko eta aurrera jendearen borondatez egiten dutenak. Hogeitabosten bat izango dira une honetan gure geografian zehar barreiatuta.

Legearen aldetik «utzi» egiten dira. Behin baino gehiagotan itxi edo prezintatu izan dituzte gobernadorearen baten aginduz, baina normalean «utzi» egiten dituzte beren martxan ibiltzen.

Hauetatik dexente ari dira euskara hutsez ematen, eta, denetan

ez bada ere, euskarak badu bere presentzia (zenbaitetan nahikoa sinbolikoa, egia esan).

Nolanahi ere, hauen izaera marjinala kontutan izanik, oro har, euskararenganako jarrera positiboa dute. Hauen arazorik larriena baliabideena da. Herriko koadrilaren bat, edo zenbait koadrilaren elkarte izaten delarik irratia antolatzaile, nahikoa eskas ibiltzen dira aparailuak erosteko edo lokala ordaintzeko. Jendea tarteka aritzen da eta bakoitzak orduren bat egiten duenez irratian, ez daukate «profesional»en beharrik.

4.2.2. Bertsolaritza

Bertsolaritza, nola kalitate hala kantitate aldetik, inoizko mailarik garaienean aurkitzen da. Begira dezagun gaurko egoera.

4.2.2.1. Egoera koantitatiboa

Egungo bertsolaritzari kopuruaren aldetik dagokion sailkapena honela geldituko litzateke:

Ohizko bertsogintza eta bertsolariak

— Goimailako bertsolariak: Txapelketan partehartu eta finaletaraino heldu zirenak, edo partehartu gabe egindako saio eta bertsoei esker maila horretan jadanik onartuak direnak. Kopuru aldetik, 20 bat bertsolari dira horrelakoak.

— Erdimailako bertsolariak: Txapelketan partehartutakoak, baina finalera iritsi ez zirenak. Hauen kopurua 25 inguruan finka daiteke.

— Iparraldeko bertsolariak: Hauek dituzten berezitasunak kontutan harturik, plazetan ari diren goi- eta erdimailako guztiak talde berean sartuz gero, guztira 8 edo 10 inguru izango dira.

Datu hauen arabera, esan dezakegu ohizko bertsolariak gaur egun 55 baino gehiago izango direla.

Helduen bertso-eskolak

1980ko txapelketaren ondoren, Santutxuko Eskolaren inguruan sortutako mugimenduak ondorio positibo eta garrantzitsuak izan ditu, gaur egun eragin handikoak direnak.

Bizkaian dozena-erdi bat eskolatan batzen dira (Algorta, Durango, Gernika, Mungia, Santutxun eta) bertsolaritza aztertzeko. Guztira 100 lagun baino gehiago dabilta, eta horietatik 30 inguru plazetan kantatzen dutenak ditugu. Gainera, hamarren batek hartu zuen parte 1982ko txapelketan; horietatik hiru 2. fasera pasa ziren.

Arabian ere bi eskola ezagutzen ditugu (Laudio-Aiara eta Gas-teizkoa), eta Gipuzkoan ere badira (Eibar, Tolosan, eta). Nafarroan eta Iparraldean taldeka elkartzen dira bertsolaritza berpiztu nahirik. Bada mugimendua.

Eskola guztion barnean, hauxe da aipatu beharreko puntu garrantzitsua: mugimendu honetan euskaldun berriak eta emakumezkoak sartuta daudela eta horietatik batzuk kantuz dihardutela Euskal Herriko plazetan.

Haurren bertso-eskolak

Batez ere ikastoletan oinarritu eta finkatzen dira. Mugimendu hau indar handia ari da hartzen, batipat bertsolari profesional batzu eginkizun horretarako izendatu izan direnez geroztik. Ildo berean, bereziki aipatzea merezi du «Almen» eskolak, eman dituen fruituengatik.

Datu hauen arabera, argi dago kopuruaren aldetik gorakada handia egon dela bertsolaritzan. Horren frogarik handiena 1982ko txapelketan 65 bertsolarik partehartzea izan da, inoiz izan den kopururik altuena.

4.2.2.2. Egoera koalatitiboa

Kalitateari dagokionez, inoiz lortutako mailarik garaienean aurkitzen garena esan izan da, bai bertso-saioa orokorki hartuta eta bai bertsolari bakoitza bakarka hartuta.

Gorakada honen arrazoiak ematen hasiz gero, jarraiko hauek aipa daitezke:

— Lehen gutxi batzuren ondarea zena, gaur egun askoz ere zabalagoa da, batez ere bertsoa zer den, nola burutzen den eta beraren teknika nolakoa den jakiteari dagokionez. Bestalde, orain arteko beldurra edo errespetua galdu egin da.

— Komunikabide eta aldizkariak ere zabaldu eta egunean egoteko aukera ematen dute, ez bakarrik albiste huts gisa, baita kritika

zorrotzak plazaratuz ere. Egunkari eta aldizkarietan gero eta bertso-sorta gehiago agertzen da. Bertsoz osatutako liburuak ere hor daude.

— Garraioak ematen duen erraztasuna alde batetik bestera mugitzeko: bertso-saioa non, jendea han.

— Gizartearen aldakuntzak ere garrantzi handia du. Bertsoa baserri-girotik hiri-mundura sartu da, toki guztietara heltzeko asmotan.

— Beste ondorio baikorra, bertso-saioetan jende gaztea ikustearena da. Bertsolaritza denbora ondo pasatzeko eta, batez ere, hizkuntzan aurreratzeko bide egoki eta eroso izan daiteke.

Beharbada, alderdi positibo horien kontrakarrean, masifikazioa joenezake gauza negatibotzat, baina askoren artean ona ateratzea errazagoa izango da, gutxiren artean baino.

4.2.2.3. Saioak, jaialdiak, sariketak eta txapelketak

Gorakada kontutan izanik, normala da Euskal Herri osoan bertso-saioak ugaritzea, saio berezi edo sariketa-txapelketa eran antolatuz. Hiru urtetik behin ospatzen den txapelketa nagusia ardatz delarik, badira beronen inguruan beste batzu ere. Txapelketa eta sariketek, gaindituz joatea eskatzen dute eta, zentzu honetan, positiboak dira bertsolarien maila igotzeko.

Jai inguruko saioak beste era batera egiten dira, bertsolariak beste eginkizunen artean sartzen bait dira. Egoera honetan ez bertsolariak, ez entzuleak aurkitzen dira gustora eta ez dute behar adina gozatzen. Beste oztopo bat, jaietako saioetan ia beti bertsolari berak ikustea da. Horrela, helduen eskoletako partaideen helburuetako bat, goimailakoak heldu ezin diren lekuetara heltzea izango litzateke, giroa mantentzeko, hortik sortuko bait dira bertsolari berriak.

4.2.2.4. Helburua

Bertsolaritzak Euskal Herriko toki guztietara heldu behar du. Horretarako, Ikastola eta Bertso-eskolen bidez martxan jarria dagoen prozesu hori indartu eta ikastaro bereziak antolatu behar dira toki desberdinetan, bertsolaritzak esparru berriak irabaz ditzan. Ikastaro hauen helbururik nagusia ez da bertsolariak ateratzea, entzulegoa prestatzea baizik.

Bestalde, entzuleak bertsoa nola aztertzen den jakin behar du, hori gutxienik; eta hori jakin ondoren, kantatzera ausartzen bada, hainbat hobe; baina bertsoa zer den jakin gabe, pentsaezinezkoa da bertsolari izatea.

4.3. Irakurtzeak

Liburugintza-saila zuzenean mass-medietan kokatzen den prentsari ez badagokio ere, sail berean aztertzeari egoki eritzi diogu, zeren, azken finean, liburugintzak irakurlegoa bait du bere bezero ohizkoa.

4.3.1. Euskal prentsa

4.3.1.1. Aurre-oharrak

Euskara hutsez idatzitako prentsaren azterketa izango bada ere ondorengo ihardunaren gaia, ezin ahantz ditzakegu, euskara hutsez ez izan arren, Euskal Herrian dauden medio edo bide idatziak, hala nola, dagoeneko desagertua den zenbait prentsa euskarazko. Bi baldintza bete beharko dituzte aztertzerako goazen medio hauek: lehenik, prentsa idatzia izatea; bigarrenik, euskaraz idatzia izatea.

Bi baldintza hauekin batera, beste osagai bat ere nahasten da eskema pittin bat korapilatuz: *maiztasuna*. Maiztasunaren arabera, prentsa izan daiteke egunerokoa, asterokoa, hamabosterokoa, hilerokoa, hiruhilerokoa, etab. Gauzak sinplexego egitearren, *egunerokoa* eta *aldizkakoa* izenda ditzakegun sailak banatuko ditugu.

Dena dela, eta dagoena erizpide horiekin bakarrik sailkatzea zail samar gerta dakigukeelako hain zuzen ere, kontutan hartu beharko da beste faktore bat ere: aldizkariaren *karakterea* edo ezaugarria. Hau da, zer motatako aldizkaria den, alegia: informazio orokorreko aldizkaria, alfabetatze- eta euskalduntze-aldizkaria, zientzi aldizkaria, erlijio-aldizkaria, eta besterik.

Aldizkariaren maiztasuna eta karakterea dira, beraz, prentsari oro har dagozkion ezaugarri nagusiak. Euskararen egoera aipaturiko kasu bakoitzean nolako den aztertuz gero, emaitzek honelako errealitatea eskaintzen dute:

- Erdara hutsezko prentsa
- Prentsa diglosikoa (ia erabat erdalduna)
- Euskara hutsezko prentsa.

Bada oraindik guztioriei erantsi behar zaien beste faktore bat, Euskal Herriaren egoera politikoari zuzen-zuzenean lotzen zaiona: *zabalkundea*. Zabalkundearen arazoa erabat loturik doa Euskal Herriaren marko politikoari eta, halaber, euskararen estandardizazioari. Lurraldearen arazoa ere gogoan hartzekoa da bai erdara hutsezko prentsan bai prentsa diglosikoan, zeren erdara hori, Ipar Euskal Herrian ala Hego Euskal Herrian, non zabaltzen den kontu, izango baita frantsesa ala gaztelania. Ezin ahaztuko da, bestalde, Komunitate Autonomoko inizatibek Nafarroan izan dezaketen eragina, berau baloratu ahal izateko. Eta, azkenik, baloratu beharra dago euskalkitan argitaratzen den prentsa, euskararen normalkuntza linguistikoaren helburuak zertan diren jakiteko.

4.3.1.2. Prentsa idatziaren egoera diglosikoa

Taula eskematiko baten bidez, argazki batean bezala, azalduko da egoera diglosiko hau, aparte utziz hainbat hizkuntzatan argitaratzen diren zientzi aldizkariak.

1. Erdara hutsezko prentsa (bi estatuetako prentsa estatal guztia eta eskualde mailako zenbait prentsa)

- Erdara hutsezko egunkariak: *El País, Diario 16, Liberación, Liberation, Le Monde, Le Matin, France Soir, Diario de Navarra, Navarra hoy, Sud-Ouest...*
- Erdara husezko aldizkariak: *Tiempo, Cambio 16, Interviú*, aldizkari espezialdu guztiak eta Frantziako hauen homologoak.

2. Prentsa diglosikoa

- Egunerokoak: *El Correo Español, Diario Vasco, La Voz de Euskadi, Deia, Egin, La Gaceta del Norte.*
- Aldizkakoak: *Punto y Hora, Euzkadi, Herriz Herri, Abil, Muga, Kimu, Ateka; Aránzazu, Redención, Herria 200 Eli-za, etc.*

3. Euskara hutsezko prentsa

- Egunerokoak: Ez dago (*Eguna* egunkaria izan da esperientzia bakarra).

- Aldizkakoak: Hauen artean ezaugarri desberdinetakoak aurkitzen dira.
 - Informatiboak: *Argia*, *Herria* (asterokoak)
 - Kultur aldizkariak: *Jakin*, *Elhuyar*, *Senez*, *Zutabe*, *Euskera*
 - Alfabetatze-euskalduntzeak: *Aizu*, *Habe*, *Habeko Mik*
 - Literaturazkoak: *Egan*, *Olerti*, *Maiatz*, *Susa*, *Korrok*, *Ttuttuá*, *Kandela*, *Idatz eta Mintz*.
 - Pedagogikoa: *Isilik*
 - Haur-aldizkariak: *Kili Kili*, *Ipurbeltz*
 - Erlijiozkoak: *Karmel*, *Jaunaren Deia*, *Otoizlari*
 - Herrietakoak: *Ttipi-ttapa*, *Hots*, *Sustraiak* (40tik gora)
 - Desagertuak: *Anaitasuna*, *Goiz Argi* (?), *Saski Naski*

Zor zaio oharririk aurkezpen horri.

Lehenik, goiko taula panoramiko horretan azpimarratu behar da euskara hutsez dagoen *guztia* jartzen ahalegindu garela, erdara hutsezkoak erakuskari bat baizik ez direlarik.

Bigarrenik, aparteko beste puntu batean aztertzeak dira euskara hutsezko prentsaren ahultasuna eta marjinaltasuna (euskara hutsezko beste edozer bezala).

Hirugarrenik, hemen ez da «elebidun» kategoriarik erabili sailkapena egiteko orduan. Ez dago prentsa elebidun osorik gure artean.

Laugarrenik, egunkari diglosikoen artean bereizi behar dira, batetik, *Egin* (4 or. «Egunon» + or. 1) eta *Deia* (or. 1) egunkariak, euskaraz gehien egiten dutenak eta, bestetik, beste egunkariak, «euskararena» idazle-pare batek idatziriko zutabeaz konpontzen dutenak.

Bostgarrenik, ondorengo taula ikustea ondo dator egunkari diglosikoen artean erdaldunenak direla gehien irakurtzen direnak konturatzeko. Horra hor zifrak:

	1980	1981	1982	1983
<i>El Correo Español</i>	75	81	83	94
<i>Diario Vasco</i>	60	61	67	—
<i>Deia</i>	51	52	48	50
<i>Egin</i>	40	49	42	42
<i>Diario de Navarra</i>	39	41	39	39
<i>Navarra hoy</i>	—	—	—	13
<i>La Voz de Euskadi</i> (ez da daturik eskaintzen)				

Iturria: OJD kontrolak zabalduko kopuruak (milaka kontatuak)

Seigarrenik, beste datu interesgarri bat, egunkari garrantzitsuek duten irakurlegoaren artean bakoitzak daukan euskaldunen kopurua da. Honako hau da:

<i>Egin</i> -ek	% 40 euskaldun
<i>Deia</i> -k	% 28 euskaldun
<i>Diario Vasco</i> -k	% 27 euskaldun
<i>Correo Español</i> -ek	% 6 euskaldun

Zazpigarrenik, aipagarria da, halaber, oraingoz euskarazko egunkari bat plazaratzeko proiektuak aurkeztu dituzten bi enpresa bakarrak *Deia* eta *Egin* argitaratzen dituztenak izatea. Euskaldun gehienak dituztenak, alegia. Konkurrentziarik handiena jasan dezaketenak.

Zortzigarrenik, datu estatistikoaren arabera, egunkarietako berriak dira euskaldunok euskaraz irakurtzen dugun gehiena: euskaldun zaharren erdiak eta euskaldun berrien % 46k irakurtzen omen ditugu egunero edo ia egunero euskarazko albiste eta artikulak.

4.3.1.3. Egoera diglosikoaren aldagaiztasuna

Azken finean, helburua euskara normaltzea baldin bada (kasu honetan euskara prentsa idatzian normaltzea), egoeraren ikusmira honen ondoren ikusi beharko da zeintzu diren egoera hau aldatzearen aurka diharduten faktoreak.

Lehenik, merkatu librea da kontrako faktore bat, gizartea erabat gai denean erdara(k) erabiltzeko eta eskaintzarik zabalena eta merkatuaren aldetik onena erdarek eskaintzen dutenean. Hori da gure kasua.

Bigarrenik, erdara hutsezko aldizkariak zein egunkariak beti defendatuko dute Euskadin saldu ahal izateko «adierazpen-askatasuna» delakoa. Bi estatuek beti defendatuko dituzte egunkari eta aldizkari hauen eskubideak, zeren, azken batean, nahiz eta pribatuak izan, dominatzailearen medioak bait dira. Eta halaxe dira, darabilten hizkuntza dominatzaileena delako.

Laugarrenik, egunkari eta aldizkari diglosikoetan faktore komertzial eta politikoen arabera egongo da euskararen kopurua beren orrietan. Honelako erizpidez gidatzen dira eskuarki:

— Euskara gehiegi sartzen bada, arriskua dauka egunkari batek irakurle erdaldunak galtzeko.

— Euskara gutxi sartzen badu, apenas daukan arriskurik irakurle goaren galtzeko.

— Egunkari batek ez du euskara gehiago sartuko ez badu ikusten horrekin gehiago salduko duenik, gizarteak (botereak, alegia) ezin bait dio presio handirik egin euskara sar dezan.

Hemen, berriz ere, euskal gizarteak hizkuntza mailan daukan egiturazko arazoarekin egiten dugu topo. Gizarte-harremanen sakoneko aldaketa dago inplikaturik. Prentsa euskaldun batean ezin daiteke ametsik egin puntu ardatz horretan neurri minimoak hartu gabe.

4.3.2. Liburugintza

Euskal liburugintzak dituen arazo nagusienak deskribatzera mugatuko gara hemen. Zein egoeratan aurkitzen garen jakiteak nora jo beharko genukeen pentsatzera eramango gaitu edo, bederen, bidean jartzeko parada eskainiko digu. Liburugintzan aztertzekoak puntu asko badira ere, hemen batez ere edizioa eta zabal-kundea ikusiko dira. Produktzioaren arazoak arduratuko gara, beraz. Analisi horretatik at utzi ditugu oraingoz bai idazlea eta bai irakurlea.

4.3.2.1. Edizioa

Gaur Euskal Herrian lau liburu-argitaratzaile mota nagusi daukete euskaraz: a) propioki argitaletxe dena, bere edizio-zenbaki eta guzti; b) taldeak, argitaratu ere egiten dutenak, baina argitaletxe izan gabe; c) erakunde argitaldariak, nahiz ofizialak nahiz finantz etxeak; d) autore-editore gisa funtzionatzen dutenak.

Euskara hutsez funtzionatzen duen argitaletxe gutxi dago. Erdarazkoaren zati bat izan da, eta da, euskal edizioa. Estatu mailako editore handiek, bestalde, ez dute aintzakotzat hartu euskal edizioa, errentagarritasunaren etekin ziurra ikusi izan duten kasuetan izan ezik.

4.3.2.2. Euskal argitaletxeen ezaugarriak

a) Antolaketa

Kanpoko argitaletxe handiekin konparatuta, euskal argitalpena erdibidean dago, artesautzaren eta edizio industrialaren artean,

alegia. Profesionaltasunaren bidetik abiatua, baina *Planeta* eta *Hachette* bezalako editorial handien eskemetara hurbildu gabe, noski. Kontzentrazio txiki bat dago. Finantz etxean eskuhartzerik eta marketing-ik gabe, baliabide propioekin jokatzten dute.

b) Azpiegitura abula

«Hondo» onak edukitzeak kalifikatzen du neurri on batean editorial baten kalitatea; baina, bestetik, stock-ak arazo larriak sortzen ditu. Euskal argitalpenak ez du horrelako ezaugarririk, bereziki jarraiko bi arrazoi hauengatik: lehenik, gure editorialak oraindik gazteak direlako eta, bigarrenik, botaldi neurtuak egiten direlako, arriskutan sartu gabe. Botaldia, zifra zehatzik ez badago ere, honako hau da batezbeste:

- irakaskuntz liburua bizpahiru urtetarako ateratzen da, 3.000tik 7.000 arteko tiradarekin.
- ipuin-liburua ere holatsu, bizpahiru urtetarako eta 5.000tik 6.000 arteko tiradarekin.
- nobela, saiakera, olerkia, hauek urtebeterako ateratzen dira, 1.000tik 3.000 arteko tiradarekin.

c) Staff urria

Jendez urri dabil euskal editoriala, minimoetan. Horregatik, zenbait eginkizun alde batera uzten dira, bereziki promozioa eta idazlearekiko harremana. Oraingo laguntzak eta subentzioak gutziz ziurrak ez direnez gero, argitaletxeek ez dute jende berririk hartu nahi egoera ezegonkor honetan.

d) Errentagarritasuna

Argitaletxearen helburuetako bat errentagarritasuna baldin bada ere, ez dago esaterik euskal editorea ikuspegi horretan bakarrik oinarritzen denik. Normalean, gurean, asko saltzen dena eta gutxi saltzen dena, biok elkar osatuz, jartzen dira merkatuan. Gaur-gaurkoz, hala ere, merkatua egon, irakaskuntzan bakarrik dago. Irakaskuntzan eta narratiba motzean. Eta ez dago merkatu-olerkian, saiakeran eta hizkuntzaren maila tekniko eta profesionaletan. Zentzu honetan, liburu errentagarrietan ez dago arazorik finantzaketaren aldetik, baina bai bestelakoetan, hots, tirada txikikoetan

eta luzarora saltzekoetan. Honelakoetan nolabaiteko finantz laguntza baten beharra ikusten da.

Bai, egia da, laguntza instituzionalik egon da azkenaldi honean: 40 milioi 1984ean Eusko Jaurlaritzak eta 20ren bat milioi Gipuzkoako Diputazioak. Ongi dago, baina ETBk, orkestak eta enparatuek jasotzen dutenarekin konparatuta, ez ote da oso eskas geratzen laguntza hori? Laguntzaren erizpideak, orokorrak nahiz partikularrak, argi eta garbi finkatu beharko lirateke, lehentasunak kultur premien arabera markatuz.

4.3.2.3. Zabalkundea

Euskal liburuak ez du trabarik jasotzailearengana iristeko. Bizpahiru egunetan liburudendetan dago liburuak salgai.

a) Banaketa-sistemak

Katea nagusia liburudenda da, hemen supermerkatuak ere sartzten direlarik. Testuliburuak, hala ere, zuzenean ikastoletara zerbitzatzen da. Liburu arrunta ere bai, dexente. Hortik aparte, azokatan eta, Durangokoan eta hiriburuetan nahiz herrietan egin ohi direnetan, liburu franko saltzen da. Hauetan, haurrentzako liburu errazak du lehentasuna.

Kreditu-sistema, atez-ate saltzen den liburuarena, gure artean oso zabaldua bada ere, euskal gaietako erdarazko liburuekin erabiltzen da eta ez euskarazkoekin. Bestalde, ez dago gurean ez *Círculo de lectores* delako formularik ez euskal liburuaren klub-ik. Agian interesgarria izango litzateke antzeko formularen bat bul-tzatzea.

b) Argitaldaria eta banatzailea

Argitaletxeak berak liburuen banaketa egitea oso zaila gertatu da orain arte. Ahaleginik egin da gurean, baina porrotaren ondorio mikatza jasoz. Banaketari dagokionez, talde autonomoak daude: *Zabaltzen*, *San Miguel*, *Manterola*. Badira, gero, talde txikiago eta espezialduago batzu ere. Banatzaile hauek, eskuarki, euskarazko eta erdarazko liburuak banatzen dituzte. *Zabaltzen* dugu hemen salbuespen bakarra, euskarazko produktiora mugatu bait du bere egitekoa.

4.3.2.4. Promozioa eta publizitatea

a) *Merkatuaren informazioa*

Merkatuak ez du euskal liburuaren informaziorik. Liburudendan, saltzaileen aldetik, profesionaltasun gutxi dago eta informaziorik batere ez askotan; euskara ez dakiteneen kasuan ziurki ez. Horregatik, luzaezina da katalogo on baten eratzea eta noizbehinka buletin bibliografiko bat argitaratzea.

b) *Liburuaren sustaketa*

Gaur egun promoziorik eta kaleratzerik gabe datoz euskal liburuak merkatura. Ez prentsa-oharririk dago, ez aurkezpenik, ez berriemate sistemakorik. Garai bateko prentsaurrekoek eta aurkezpenek lur jo dute. Aurrezki-Kutxek eta gisakoek bakarrik erabiltzen dute gaur formula hori. Argialetxeek, bestalde, agian sinesten ez dutelako, agian horretarako azpiegiturarik aski ez dutelako, ez dute komunikabideetan publizitaterik egiten. Aipamen kritikorik apenas egiten den zirkulu jakin interesatuetatik aparte. Liburuaren notizia emateko eta hartzeko plataformak falta dira

5. EUSKARA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

5.1. Euskara administrazioan, ukapenaren historia

Gaurko egoera legala guztiz berria, eta osatu gabea denez, beharrezkoa dugu gure historiari aipamen laburtxo bat egitea. Beharrezkoa, eta erraza, gehiegizko laburkeriatan erori gabe esan bait genezake, euskarak ez duela inoiz sarbiderik izan gure administrazioaren izkribuetan, nahiz eta Euskal Herriak beren buruen jabe izan, XVIII. mendearen bukaera arte Iparraldekoa, eta XIX.aren erdialdea arte Hegoaldekoa.

Azken gerratean, Euskal Herriaren zati batean eta bederatzi hilabetez soilik iraun zuen Eusko Jaurlaritzaren agintealdia kenduz gero, ez dugu gure historian zehar ondorenik utzi duen euskararen erabilera ofizialik.

Hortaz, orain dela oso urte gutxi arte, Euskal Herriak bazuen halako batasun bat administrazioaren hizkuntzaren aldetik. Ukapenaren batasuna, Iparraldetik Hegoaldera.

5.2. Administrazioa eta euskararen lege-tratamendua

Aldaketak, Franco hil ondoko Erreformarekin hasten dira, lehenik 1978ko Espainiako Konstituzioaren eskutik. Hainbeste aipatu den 3. artikuluan, Hegoaldeko euskaldunontzat nahitaezko Lege Nagusia den horrek ofizialkidetasunarentzat bidea irekitzen du, euskararen eta gaztelaniaren berdintasunari uko eginez, eta areago euskararen nagusigoari.

Ondotik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, Autonomi Estatuak, Konstituzioa garatuz, ofizialkidetasuna arautzen du, legez hiru lurralde horiek elebidun deklaraturaz.

Hala ere, 1982ko Azaroa arte ez da aldarrikatzen *Euskararen Erabilkera Arauzkotzeko Legea*, edo, esan ohi den bezala, Normalizazio-Legea. Lege honetan administrazioaren hizkuntz erabilera arautzen duten artikulua gehienak Auzitegi Konstituzionalean aurkatu zituztenez, eta beste legegintza garrantzitsurik geroztik izan ez denez, lege-hutsune nabarmenean aurkitzen da hiru probintziatako administrazioa.

Nafarroari dagokionean, *Ley de Amejoramiento* delakoan egiten den aipamenaren arabera, bi zati izango ditu Nafarroak, bata elebakar erdalduna, eta bestea, oraino zehaztu gabea, elebiduna izango omen dena.

Iparraldean, berriz, ez da inolako aldaketarik gertatu, eta beste alorretan euskarari utzi zaizkion tartetxoak ere ukatu egiten zaizkio administrazioarenean.

5.3. Estatuaren administrazio-organoak

Lurraldeka, eta legeen aldetik, Euskal Herria zatiturik aurkitzen badugu, euskarak nolabaiteko aitorten formalta lortu duen lurraldeetan ere beste zatiketa bat aurkitzen dugu, funtzionala eta politikoa batera, administrazioaren hizkuntz erabileraren aldetik: erakunde autonomo, probintzial eta lokaletako administrazioetan, euskarak badu nolabaiteko presentzia, baina estatuaren administrazio-organoetan egoerak Francoren garaian bezalatsu dirau. Maiz askotan ahaztu ohi dugun administrazioaren zati horren garrantziaz jabetzeko, gogora dezagun horietakoak direla justizia,

armada, poliziak, aduanak, Ministraritzen delegazioak, postak, Renfe, eta abar luze bat.

Beraz, eta norberak egunero egiazta dezakeen bezala, administrazioaren zati handi batean, Estatutuak, Normalizazio-Legeak eta gainerakoek aitorturiko eskubide minimoak ere ez dira errespetatzen.

5.4. Euskal Herriko administrazioaren egoera

Goazen, hortaz, Euskal Herrian dagoen administrazioaren bigarren zatian gertatzen dena aztertzea.

Zabalenetik eta orokorrenetik hasiz, lehen errealitatea da plangintzarik eza: ez orokorrik, ez eta izen hori merezi duen sektorialik edo lurraldekorik.

Plangintzarik ezean, administrazioaren buruen asmoak edota printzipioak nolabait jasotzen dituen liburuska bat besterik ez dugu aurkitzen: 1984eko lehen hiruhilekoan *Euskararen politikaren oinarriak* izenez Eusko Jaurlaritzak argitara emandako lantxoak, hain zuzen.

Liburuskak, helburuari —hots, elebitasunari— buruzko gogoeta batzurekin batera, erakunde autonomoen botere-ezaren eta borondate mazkalaren isladapen diren helburu eta erizpide orokor batzuek ematen ditu, baina horiek ere hitz huts gertatzen dira erakunde autonomoen praktikan.

5.4.1. Erakunde autonomikoak

Maila honetan bi jatorritako organoak aurkitzen ditugu. Batzuek, transferituak, edo estatuarenak izan eta Eusko Jaurlaritzaren menpera igaro direnak. Horietaz ia daturik ez badago ere, praktikak erakutsi digu antzinako jabeen pean bezalatsu jarraitzen duela euskarak.

Baina zatirik garrantzitsuena, eta «errepresentatiboena», *ex novo* sortutakoa da (Lakuako Sail eta Zerbitzu guztiak, Ertzaintza, Kultur Zerbitzuak...). Horietan ez du balio «lehendik datozkigun funtzionari erdaldunen» aitzakiak.

Eusko Jaurlaritzaren egoitzan egindako inkesta batek erakusten duenez, bertako pertsonalaren euskararen ezagutza eta areago

erabilera, oso eskasa da (% 35 euskaldun, zerbitzu batzutan ia euskaldunik ez dago...) eta funtzionariak euskalduntzeko ahaleginak gutiz mazkalak eta itxura hutsezkoak dira.

Euskarak ez du Jaurlaritzako Sail baten ohorea lortu, eta hizkuntzaren ardura bi organo inoperantek (emaitzei bagagozkie beberen) daramate. Bata, orokorra, Euskararen Aholku Batzordea, eta horrekin batera Hizkuntza Jaurpidetzarako Idazkaritza; eta bestea, administrazioari zuzendua, Oñatin datzan Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren euskara-saila (Ik. Dossier honen lehen parteko 4.5 eta bigarren parteko 1.2.2.2.).

Esan beharra dago, halere, Eusko Jaurlaritzak jaulkitzen dituen inprimaki, iragarki, Aldizkari Ofizial eta gainerako izkribuetan (ez hainbeste liburuetan) bi hizkuntzak erabiltzen direla, gehienetan. Euskara horren balio praktikoaz aurrerago ihardungo gara.

5.4.2. Diputazioak

Lurralde Historikoen Lege eztabaidatuaren arabera botere ekonomiko itzela eskuratu duten erakunde horiek zer esan handia dute administrazioiko hizkuntz egoeran, nahiz eta orain arte Gipuzkoak soilik erabili dituen bere ahalmenak alor horretan.

Oso jokabide desberdinak aurkitzen ditugu.

Gipuzkoako Diputazioak, orain ia lau urtez gero martxan du Euskara-Zerbitzua, horretara soilik dedikatzen diren teknikari eta itzultzaileekin; funtzionariak euskalduntzeko ahalegin batzu egin dira; publikoari begira diharduten lanpostu nabarmenetan euskaldunak ipini dituzte, eta kanpora begira, euskararen aldeko kanpainak, Gipuzkoa mailako azterketa soziolinguistikoak bultzatu dira, eta beste zenbait ekintza burutu da. Baina oraindik ere *Boletín Oficial de Guipúzcoa* erdaraz argitaratzen da, nahiz eta bertan elebitasuna sartzeko asmoak aski bide egina dirudien.

Bizkaikoan, 1982an lehen itzultzailea hartzearekin hasi zen euskalduntzearen historia. Ordurarte ezer ez. Bi mila funtzionari inguru duen instituzio horretan, inkesta baten arabera, 300en batek zekien hitzegiten, 110 omen ziren euskaraz alfabetatuak; 27 zerbitzutan ez zegoen inortxo ere euskaraz zekienik. Ez dirudi plangintzarik edo egiteko biderik irekitzen ari denik, eta Buletin Ofiziala, zer esanik ez, erdara hutsez kaleratzen da.

Arabakoan, are negargarriagoa da euskararen egoera.

5.4.3. Udalak

Maila honetan, inon baino gehiago nabarmentzen dira plangintza eta normalkuntz politikarik ezaren ondorio latzak. Udal baikoitzak, halaber, bere aldetik dihardu, goitiko plangintzarik eta aholkularitzarik gabe, gehien-gehienetan eskualdeko edo bailarako Udalekiko koordinaziorik ere ez duelarik, eta Gipuzkoako eta Bizkaiko Udal gehienek indar politiko bakar baten, PNVren, esku egon arren, ez dago inolako batasunik hizkuntz jokabideetan.

Udaletxeak euskaldundu behar zirela pentsatzen hasi zenean, 1979. urte inguruan, itzultzaileak sortu ziren. Izen bakarrak ofizio ugari estali ditu: toki batzutan itzultzaile huts, bestetan euskararen irakasle, bestetan euskal kulturaren eragile, bibliotekari, administrari, denetatik. Udal askotan, itzultzailearen gain laga dira euskarari buruzko ardurak guztiak. Eta hori, zenbait kasutan finkotasunik gabeko lana eskaintzen zitzaizolarik.

Gaur egun, Euskara-Zerbitzuekin, Euskararen Teknikari bereziak hasi-berriak dira azaltzen. Oso pittinka, ordea, esku bateko hatzekin sobera bait da guztiak zenbatzeko.

Itzultzaileak ere ez dira gehiegi ugaltu: 45en bat izango dira gaur finkotasunez itzultzaile gisa kontraturik daudenak, Gipuzkoan eta Bizkaian gehienak. Nafarroan eta Araban, berriz, ale bakar batzu besterik ez dira.

Aipatu beharrekoak dira, hala ere, Euskal Herriko Udaletan zehar dauden idazkari euskaldun alfabetatu bakanak ere.

Euskara ogibide duten funtzionari horien eragina edo efektu biderkatzailea oso urria da oraingoz. Gipuzkoan —bestetako daturik ez bait dago— 83 udaletatik, 41etan inor ez dago euskaraz idazteko gai denik, Siadecoren azterketaren arabera. Beste lurraldeetan, dudarik gabe, askoz handiagoa izango da kopurua. Zertan gauzatzen da euskararen profesionari horien lanaren emaitza?

Egia da Gipuzkoa eta Bizkaian, hainbat tokitan ageri dela euskara kale-izen, errotulu, seinaleztapen, inprimaki eta beste idazkitan. Egia da ere, ordea, horiek denak testu finkatuak, hilak, direla, eta administrazio-bizitza espainolez jarraitzen dela, euskararen erabilera funtzio «heraldiko»-ra mugatzen dela.

Horrela gertatu behar, funtzionari-jendea, ez bakarrik analfabetoa, baizik eta neurri handi batean erdalduna bait da. Euskaldunok arrazoi politikoengatik funtzionaritzari muzin egiten genion garai hurbil horren ondorioz, proportzio txikiagoan daude euskal-

dunak administrazioan gizartean baino. Gipuzkoako datuetan ikusten dugunez, % 33 besterik ez dira.

Egoera hori aldatzeko, bi bide daude: dagoena euskalduntzea lehenengo. Zentzu horretan egindakoa, zenbait kasutan itzultzaileak horretaz kargutuz, oso emaitza urrikoa izan da. Badirudi orain hartutako bideak, funtzionariak helduen euskalduntzeko erakundeetara bidaltzeak, ondorio hobexek ekar ditzakeela. Oso udal gutxitan egin da bertako funtzionariak euskalduntzeko plangintza.

Bigarren bidea, funtzionari berriak euskaldun izan daitezen neurriak hartzea da. Diskriminazioaren mamua dela eta, arazoren batzu sortu diren arren, udal gehienek herabe jokatu dute legeek edo lege-hutsunek uzten dituzten zirrikituez baliatzeko orduan, eta batezbeste, euskalduntasun gutxi zabaldu da funtzionaritzan.

Funtzionari mailan hori gertatzen bada, zinegotzien artean gauzak are nahasiago daudelako da. Udal gutxitan osatu da Batzorde berezia euskararentzat. Gehienetan, euskaren ardura Kultura eta Hezkuntzaren gaiez arduratzen den Batzordearen barruan urturik aurkitzen da, zenbait udaletan zinegotzi bat bedera ere ez delarik euskararen arduradun bereziki.

5.5. Administrazioeko euskararen barne-normalkuntza

Historian zehar euskara administrazio-eginkizunetatik baztertua eduki denez, arazo larriak aurkitu zituen alor horretara egokitzera.

Aipatu den normalkuntz plangintzarik ezak normatibizazioaren alorrean ere ondorio latzak izan ditu. Udal bakoitza, administrazioeko erakunde bakoitza, bere bideak eta ereduak asmatu beharrean aurkitu da, goimailetatik inolako plangintzarik, azterketarik edo aholkularitzarik jaso gabe.

Ekintza ofizialaren hutsunea betetzen, ekimen pribatua eta UZEIren eragina izan dira argi pixka bat ekarri dutenak egoera nahasi horretan.

UZEIren inguruan egindako administrazioaren eta itzultzaileen arteko koordinakuntzaren bidez lortu da, gehienbat, Udal eta Diputazio gehienetan erabiltzen den euskara nahikoa antzekoa izatea.

Baterakuntza horren aurka bi joera nabarmendu dira administrazioaren munduan. Bata, euskara batua euskalkien etsaitzat hartu eta arbuiatzen dutenena. Bizkaiko udal batzutan, gutxitan, bakarrik nagusitu da joera hori.

Beste joera, Komunitate Autonomoaren botere-gunetan sustatua dago. Joera horretakoa da Eusko Jaurlaritzak berak eta Eusko Legebiltzarrak beren Aldizkari Ofizialetan erabiltzen duten euskara-eredua. Ofizialtasun gorenez hornitutako euskara hori, lexiko aldetik nahiz sintaxi aldetik, beste alor guztietan, baita administrazioan ere, normaltzat ematen den eredutik zeharo urrun dago, eta, besteak beste, hain da ulergaitza non euskarazko testua erabilgaitza gertatzen bait da euskara galanki menperatzen dutezentzat ere.

Beraz, esan genezake, batuaren etsaiez aparte, administrazioiko euskararen batasunak baduela etsairik. Non eta normatibizazioaren eta baterakortasunaren aitzindari izan beharko luketen erakundeetan.

5.6. Justizi administrazioa eta euskara

Kapitulu honetan, aparteko azalpena merezi du justiziaren administrazioaren munduak.

5.6.1. Justizi administrazioaren hedadura

Justizi administrazioa ez da soilik Organizazio Judizialera mugatzen. Bere inguruan eta bere alorrean mugitzen diren hainbat erakunde ere sartzen dira barruan: notaritzak, erregistro publikoak, abokatutzak, etab.

Beraz, esparru honetan sartzen dira, teorikoki bederen, Justizia helburu duten erakunde guztiak, dela parte biren arteko auzien bidez, dela alderdi biren akordio edo kontratuen bitartez.

5.6.2. Historia laburra

Euskarak ez du sekula tradizio juridikorik izan Euskal He-

rrian, sekula ez delako erabili bertako dokumentazio eta barne-bizitzan.

Euskal Foruek sorturiko sisteman Justizi administrazioaren funtzionariak euskaldunak baziren ere eta, are gehiago, honelako karguak betetzerakoan bertoko semeek lehentasuna bazuten ere, ez zuen euskarak inoiz presentziarik lortu, mundu horren barnean.

Foruen galerak, organizazio judizial honen deuseztapena suposatuz, eta gainera kanpoko (Espainia eta Frantziako) sistema eta Justizi administrazioaren ezarpena.

Baina, esan bezala, aldaketa honetan ez zen galdu inolako tradizio linguistikorik, Justizi administrazioa euskal langileek —beste sail batzutan aipatu dugunez— «bitartekotza»-papera jokatzen bait zuten: herritarrei agintariak eta legeak ziotena adierazi, eta agintariei herriak zioena eta nolakoa zen adierazi. Itzultzaile «funtzionalak» ziren, nolabait esatearren, baina hasiera-hasieratik, agintarekin gero eta gehiago lotzen zen hizkuntzaren alde. Euskaldun izanik, erdaraz ziren justizi administratzaile.

Espainiatik inposatzen den sistema berriak, Espainiako Administrazio Judiziala, Kodeak, Lege hipotekario eta notarialak eta beste hainbeste ekartzen eta inposatzen dizkigu. Hauek guztiak ditugu egungo erakundeen iturburu zuzenak. Gauza bera esan behar da Iparraldeari eta Frantziari dagokienez.

5.6.3. Gaurko egoera

Autonomi Estatutuak dioenez (Nafarroako eta Iparraldeko sistema legeletan ez da euskararen aztarrenik ere aurkitzen), «Euskadiko Komunitate Autonomoaren esku egongo dira, bere barrutian, Justizi Boterearen eta Justizi Boterearen Kontseilu Nagusiaren Lege Organikoak Gobernuari ezagutu, erreserbatu edo gainjartzen dizkion ahalmenak», ondoren zehazten direlarik Euskal Herriko jurisdikzio-organoei dagozkien kompetentziak maila zibilean, penalean, sozialean eta kontentzioso-administrati-boan (13 eta 14. artikulua).

Euskararen ezagutzari dagokionez, hau da irakurtzen duguna:

«Magistratu, Epaikari eta Idazkarien izendapena Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Lege Organikoetan aurrikusten den bezalaxe, egingo da, Euskal Zuzenbide Forala eta euskara ezagu-

tzen dutenei lehentasuna emanaz, izatasuna edo auzotasuna dela eta, salbuespenik egin gabe» (35 art. 1).

«Bere eremuan Komunitate Autonomoari dagokio Justizi Administrazio zerbitzuko pertsonala eta bere funtzionamendurako behar diren medio materialak eta ekonomikoak hornitzea, Botere Judizialaren Lege Organikoak eskubide hori Gobernuaren eskutan uzten duen hitz beretan, pertsonala hornitzeko sistemetan Euskal Zuzenbide Forala eta euskara ezagutzen dutenei lehentasuna eman-go zaielarik» (35. art. 3).

Ezagutzen dugu errealitatea; eta maila honetan inolako datu fidagarriarik ez badago ere, okertzeko beldurrik gabe baieztatu dezakegu, lehen aipatutako bi puntuok ia ez direla orain arte kontutan izan. Bestalde, hemen ere Euskal Herriko administrazioak bizi duen kontraesana aurkitzen dugu: euskara eta erdara ofizialak dira, baina euskara baloratu egiten da, funtzionari izango diren guztiak bi hizkuntza ofizialen ezaguera-maila berdina eskatu beharrean.

Euskararen Erabilkera Arauzkotezko Oinarrizko legearen 9. kapitulua Justizi Administrazioari dagokio eta osorik inpugnatua dauka Madrileko Gobernuak. Honela dio:

1. «En sus relaciones con la Administración de Justicia, todo ciudadano podrá utilizar la lengua oficial de su elección, sin que se le pueda exigir traducción alguna.

2. Los escritos y documentos presentados en euskera, así como las actuaciones judiciales, serán totalmente válidos y oficiales.

3. El Gobierno Vasco promoverá de acuerdo con los órganos correspondientes, la normalización del uso del euskera en la Administración de Justicia en el País Vasco.»

Egungo errealitateari begiratuz, esan beharra dago Justizi Administrazioaren errealitateak ez diola euskarari sarbide minimo-rik eman: ez inolako plangintzarik egin, ez neurri minimo-rik hartu, euskaldunak euskaraz ihardun ahal izateko, kasu gehienetan (denetan ez esatearren), euskaraz alfabetatutako lagunik ere ez da goelarik.

Bestalde, badirudi laster kaleratuko den *Ley Orgánica de Poder Judicial* delakoak oraindik gehiago murriztuko duela prozesuak euskaraz egin ahal izatea, itzulpenak eskatuko direlarik a) Komunitatetik kanpoko organo judizialetara pasa behar denean, b) Juezaren aginduz, c) Indefensioa alega dezakeen alderdiaren eskariz.

5.6.4. Justizi administrazioaren euskalduntzea

a) Euskara tekniko-juridikoa landu beharra dago eta Justizi administrazioaren behar guztietara egokitu. Euskara-mota honek, gainera, mundu juridiko oso bat ekarriko du, beste hizkuntzetan gertatzen den bezala. Bidea hasia badago ere —UZEIren Administrazio- eta Zuzenbide-hiztegiak— helbururako tartea handia da.

b) Justizi Administrazioaren barne-euskalduntzerako, derri-gorrezkoa da sartuko diren langileak euskaraz iharduteko gaiturik egotea, gutxienik alfabetatze mailan. Bestalde, oraingo funtzionari erdaldunak euskalduntzeko plan sakona egin beharra dago.

d) Administrazioari eta Aginte politikoei dagokie euskalduntze-plangintza honi hasiera ematea eta eragitea, herritarrak bultzatuz bere ihardueretan euskara erabiltzera. Justizi administrazio hau herriaganatu behar da: herritik orain arte hain urrun ibili den administrazioa herriak hurbildik ikus dezan eta batez ere herri hau, administrazio honen barnean, bere eskubideak (linguistikoak eta bestelakoak) defendatzeko gai izan dadin. Honela bakarrik beteko dira administrazio honen benetako xedeak.

e) Presio herritarrari dagokionez, oso garrantzitsua da euskaldunok geure hizkuntz eskubideak errebindikatzea eta euskara Justizi administrazioaren edozein mailatan erabiltzea. Salatu beharra dago halaber euskararen erabilpena eta normalkuntza oztokatzen duen legeria. Nola egin dezake Justizi administrazioak justiziarik Euskal Herrian, ez badu justizia hori euskaraz egiten?

6. EUSKARA GIZARTE-ZERBITZUETAN

Gizarte baten bizitzan erabat bereizten dira egoera pribatuak eta egoera publikoak. Egoera publikoen artean ere, bada desberdintasunik: garrantzitsuena zera dateke, egoera publiko ofizial eta ez-ofizialen artekoa. Egoera hauen bitartez gizarte baten bizitza soziala desberdinu daiteke, eta, nola ez, portaera linguistikoa.

Euskara, hainbat aldiz errepikatu ohi dugun bezala, funtzio pribatuetara baztertua izan da historian zehar. Euskara familian, lagunartean, auzoan edo herritarren artean erabiltzeko hizkuntza zen, baina beste egoeretan erdara erabili beharra zegoen.

Egoera publiko ofizialetan erdaren nagusitasuna erabatekoa

izan da, euskara erabat baztertua izan delarik administrazioan, adibidez, ikus daitekeen bezala.

Baina badago beste alor bat, egoera publiko ez-ofizialena, alegia, euskararen itxura «aldekoagoa» eskainiz, erdara sartzeko aha-lerinik handienetakoak egin dituen.

6.1. Sektore honen garrantzia

Gizarte-Zerbitzuak gero eta garrantzi handiagoa ari dira hartzen gizarte modernoetan. Ikusi besterik ez dago, zenbait naziotan «enplegatu» gehiago dagoela industrigintzako langile baino.

Bestalde, bilakaera izugarria jasan du sektore honek. Denda txikietatik, kasurako, «Corte Inglés»etara pasa gara. Erosten handietan, esate baterako, despertsionalizazio izugarria gertatu da, eta kontutan izanik euskararen erabilera giro pribatuetara mugatzen zela, erdara bihurtu da sektore honetako komunikazio-hizkuntza.

Historikoki begiraturaz, fenomeno hau ez da berria, martxan zegoen prozesu baten azken atala baizik.

Gizarte-Zerbitzuetako enplegatuek, eta profesio liberalek bereziki, bitartekotza-funtzioa bete izan dute, herri euskaldunetan. Berak ziren munduaren (bereziki metropoliaren) eta herriaren lotura. Horiek esaten zieten nolakoak ziren mundua eta agintea, eta horiek ziren aginteari euskaldunak nolakoak ziren esaten ziotenak.

Enplegatu hauek elebidunak ziren, eta euskaraz mintzatzen ziren herriarekin, baina herria erdaldunduz joan den heinean eta harremanetarako euskararen beharrik izan ez duten neurrian, euskara baztertu egin dute, erdararen agenterik onenetakoak bihurtu direlarik. Horrela bihurtu da «beste» hizkuntza, hizkuntza «publiko».

Lehen aipatu denez, sektore honen garrantzia kontutan izateko, zein esparru hartzen duen zehaztuko dugu lehenbizi. Gizarte-Zerbitzutzat, ondoko hauek joko genituzke:

- Merkatalgoaren mundua: Denda, supermerkatu, kotxe-saleroketa eta tailerrak, etab.
- Diru-etxeak: Bankuak, Aurrezki-Kutxak, Aseguru-etxeak, etab.

- Garraio eta komunikabideak: Telefono-telegrafoak, Posta, ibilgailuak (lurreko, aireko nahiz itsasokoak).
- Osasun-zerbitzuak eta ardura soziala: Klinikak, Anbulatorioak, Zaharren egoitzak, Gizarte-laguntzaileak, etab.
- Ostalaritza: Jatetxe, taberna, ostatu, hotelak, etab.
- Zerbitzu pertsonal eta profesionalak: Ileapaindegia, tindategiak, gestoriak, aholkularitzak, etab.
- Erljio-Zerbitzuak: Elizak, katekesiak, etab.
- Kultur eta aisialdi-zerbitzuak.
- Kirol-talde eta -zerbitzuak.

Garbi dakusagu, beraz, sektore zabal honek herritarrengan eta bitzita sozialean duen pisu espezifikoa. Gertutik ukitzen bait du, gainera.

6.2. Gaurko egoera

Sektore honetan da nabarien, hain zuzen, euskararen erabilpen «sinbolikoa». Itxura euskaldunaren trukean, erabateko funtzionamendu erdalduna saltzen bait da kasu gehienetan.

Denda, mediku, abokatu, etab.etan, euskara kanpoko ezaugarrietara, eta menbreteetara mugatzen da, ia beti. Beren propagandan erabiltzen dutenak gutxiago dira oraindik (euskara ez bait da errentagarri, eta bezero guztiek bait dakite erdara). Eta zer esanik ez, barne-bizitzan (barne-administrazioko paperak, fakturak, oharrak, etab. egitean) erabatekoa da erdararen nagusitasuna, euskara agertzen denean, beti, erdarak lagundurik agertzen delarik.

Euskararen normalkuntzaren aldeko jarrerak, ia beti, maila pertsonalean planteatu ohi dira sektore honetan.

Euskarari sarbidea kolektiboki ireki dion alorrik garrantzitsuen, agian, Aurrezki-Kutzak dira. Errotulazio guztia bi hizkuntzetan jarri ohi da sarritan, zenbait «Elebitasun-Batzorde» antolatuta da, langilei euskarazko ikastaroak eskaintzen zaizkie, etab.

Baina beti ere «elebitasuna» ren inguruan planteatutako jokabideak izan dira, bezeroak euskaraz iharduteko aukera izan dezan, hala nahi badu. Beren azken helburua, zerbitzu elebiduna eskain-

tzea da. Hala ere, zerbitzu hauetan bertan, garbi dago, oraindik ere, erdarak duela lehentasuna, eta hori ez dela eztabaidan jartzen. Etxe handi hauek guztiz erdaldunduak dauzkate beren egiturak, eta ez dago horiek aldatzeko asmorik.

Euskarari nolabaiteko sarbidea eman izan dioten kultur, kirol, eta aisialdirako zerbitzuak aparte utzita, beste guztietan (jokabide pertsonalak aparte utzita), hasiera-mailan gaudela esan genezake.

6.3. Bazterrezinezko eskubidea

Zerbitzu publikoek, publiko diren neurrian, publikoaren zerbitzuan egon behar dute, eta ez bezeriak haien zerbitzuan. Eta eskubide hau erabili beharra dago euskaldunok zerbitzu horiekin ditugun harremanetan. Gizarte-Zerbitzuetan zerbitzu bat ordaintzen da eta zerbitzu hori ezin da kalitatezko izan, baldin euskaraz ez bada. Maila honetan, gure antzeko nazio bateko kasua jar dezakegu: Italiako Tiroleko botika-laguntzaile postuetarako alemaniararen ezagutza exijitu zuten. Bertako sektore italiarzaileek inpugnatu egin zuten deialdi hura eta, azkenik, juizioan, epaia alemaniera exijitzearen aldekoa izan zen, zerbitzu publikoa egoki betetzeko bi hizkuntzen ezaguera eskatzea normalizat jotzen zelako.

6.4. Eliza eta euskararen normalkuntza

Aipamen apartekoa zor zaio hemen Elizari —Eliza katolikoari bereziki—, euskal gizartean erlijiozko zerbitzua eskaintzen duen erakunde nagusien-nagusiena denez.

Alde batera utzirik orain balorazio historikoak (zein eta nolakoa izan den eta izan behar zukeen Elizaren erantzunak historian zehar euskararen atzerapenean eta ordezkapen-prozesuan, eta horren mantentzean eta lantzean), orain nabarmendu nahi duguna horren erantzukizuna da, euskararen etorkizunari eta normalkuntzari begira.

Zalantzarik ez dago oraindik ere, euskal gizartearen sekularitze-eta deskristautze-prozesua eta guzti, eragin sozial eta itzal moral handiak dituela Elizak, bere historiagatik, bere presentzia zabal eta sakonagatik, bere indar instituzionalagatik eta bere ikastetxe-sarearengatik. Ez dago ahazterik Euskal Herriko % 36tik gora ikasle ari dela Elizaren ikastetxeetan ikasten.

Gizarte-zerbitzuen artean euskara gehien darabilena Eliza da noski: liturgian, katekesian, dokumentuetan, etab. Hala ere, ikastetxeetan eraman izan duen politika erdalduna da neurri handi batez Euskal Herriaren erdalduntzearen erantzule. Funtsean Elizak historian zehar erizpide pragmatista erabili duela esan daiteke euskara pastoraltzarako eta katekesirako erabiltzean eta lantzean, baina ez barne-bizitza ofizialean eta instituzionalean; seminarioetan euskara irakastean —neurri batez—, baina ez bestelako ikastetxeetan. «Interesatua» deitzen du K. Mitxelenak, alde horretatik begiraturik, Elizak euskarari eman dion laguntza garrantzizkoa (Ik. *Euskararen Liburu Zuria*, 19. or.).

Euskal Herriaren zerbitzurako dagoela aitortzen duen Elizari, berriz, euskara Herri honen funtsezko ondasuntzat hartzea eskatu behar zaio, herri honen herritasunaren eta proiektu nazionalaren oinarritzat. Horrela bakarrik aurkituko du benetako koherentzia Elizaren euskararekiko «jokabideak»: bereziki euskararen batasunari, modernizazioari eta berreskurapenari buruz.

Euskararen normalkuntzarako plangintza eta politika orokorrean benetan sartzea eskatu behar zaio Euskal Herriko Elizari; bereziki balio du horrek Elizaren ikastetxeei begira.

7. EUSKARA LAN-MUNDUAN

Gu bizi garen gizartean behintzat, pertsona gehienen bizitzaren ardatz bihurtzen da lana, neurri handi batean. Batek, kirola egin dezake, elkarte baten partaide izan, egunero telebista ikusi edo irakurri edo tabernaz-taberna baso-erdiak hartu, baina derri-gorrez egin behar duena lana da.

Eguneko ordu gehienak, lanaren testuinguruan sartzen ditu langileak; era berean, bere egite linguistiko gehienak ere lanaren inguruan egiten ditu.

7.1. Euskararen bilakaera lan-munduan

Iraultza industrialaren aurreko lan-harreman gehientsuenak euskaraz egin ohi ziren, goimailako tratuak eta burokraziaren mundua izan ezik. Lantegietako giroa, gizartea bezain euskalduna zen; oligarkiak, erlazio ekonomikoetan, politikoetan bezala, «bi-tarteko»-papera jokatzen zuelarik, praktika elebidunaren bidez. Baina produkzio-kateek nagusiki (zonalde erdaldunetan salbu, noski) euskaraz funtzionatzen zuten. Hor ditugu lekuko gisa, burdinoletako edo ehungintzako euskal hiztegi aberatsak.

Iraultza industrialaren ondoren, ordea, lan-munduaren egitura zeharo aldatzen da eta produkzio-harremanak burokratizatzen eta mekanizatzen diren heinean, erdarek esparru gero eta zabalagoak hartzen dituzte. Lantegi txiki isolatuak desagertu beharrean aurkitzen dira eta erdimailako edo goimailako industrien garaia heltzen da; bestalde, gero eta harreman eta dependentsia handiagoa dute lantegi txikiek handiekiko. Dependentsia ekonomikoa, dependentsia linguistikoa ere bihurtzen da.

Azkenik, eta lan bila etorritako etorkin-uholdea zela bide, zonalde euskaldunetako lantegietako harreman-hizkuntza euskara bazen ere, giro hori erabat arrotz egiten da, salbuespenak salbuespen.

7.2. Gaurko egoera

Lantegietako euskararen erabilpen ofiziala «0» puntuan aurkitzen dela baieztatu daiteke. Aurkitu duen sarbide bakarra, kooperatiben munduan izan da, eta zenbait fabrikatan, bere produktuen etiketaian eta fabriketako errotuluetan (eta kasu hauetan ere, ez litzateke inoiz totalaren % 5era iritsiko).

Fabriketako barne-giroari dagokionez, euskararen erabilpena ia «0» puntura jaisten da kasu gehienetan: fabriketako batzorde, bilera, etab.etan euskararik ez da erabiltzen. Langile-errebindikazio, slogan eta pankartak ere, euskararekin haserreturik daudela dirudi. Lantegietako barne-bizitza erabat arrotz bilakatu da.

Egoera honen aurrean, zenbait urrats eman izan dira hainbat fabrikatan, bertako langileentzat euskarazko klaseak jarritz, konbe-

nioetan euskarazko klasetara joaten direnei zuzendaritzak matrikula ordain diezaien lortuz, etab.

Hona hemen, adibidez, aurtengo ikastaroaren hasieran AEKK euskarazko eskola ematen zuen Bizkaiko lantegien zerrenda: Euskalduna (3), Asepeyo (1), Pantzuergoa (2), El Corte Inglés (2), Pedro Salcedo (1), Renfe (2), Maquinaria Eléctrica Bilbao, S.A. (1), Artiach (2), Altos Hornos (5), Balcok Wilcox (2), General Eléctrica (2), Carbureibar (1), Iberduero, Petronor... (parentesi artean datorrenak, taldeen kopurua adierazten du). Aparte utzi dituguz diru-etxe eta administrazioako taldeak.

7.3. Langileria, lan-munduaren euskalduntzearen aurrean

Lanak sortzen duen produkzioa erdaraz egitera behartu dute euskalduna. Gaztelania eta frantsesa hegemoniko bihurtzen dira alor honetan, euskara bertan behera utziz. Aukeraketa honen azpian, ordea, interes batzu dautza, kapitalaren interesak, hain zuzen.

Euskal oligarkiak eta burgeseriak gaztelania eta frantsesa aukeratu dituzte bere harreman ekonomikoetarako (eta, beraz, politikoetarako), bakoitzak bere estatuan.

Hizkuntzak batasuna ematen dio merkatuari, eta ikusi besterik ez dago, pezeta iristen den azken muturreraino iristen dela gaztelania. Garbi dago, euskara traba besterik ez dela burgeseriak ahalik eta emankorren nahi dituen harreman ekonomikoetarako. Multinazionalak hizkuntz batasuna azken muturreraino ari dira eramaten, mundu guztian ingelesa inposatuz.

Lan-mundua euskalduntzeko benetako interesa izan lezakeen klase bakarria langileria da. Langileriak ez du bere askatasun osoa lortuko, dependentzia guztiak astintzen ez dituen artean eta, beraz, baita dependentzia linguistikoa ere.

Euskararen erabateko berreskurapena prozesu sozio-ekonomiko luze baten ondorioz lortuko da eta hizkuntz aldaketarekin, merkatu-aldaketa ere derrigorrez etorriko da, kinka honetan, nazio-askapenerako urrats sendoak eman daitezkeelarik.